I: Zelian ohorez eta ditxa oroz bethe den lekhü bat, bethikoz jente perestien saristatzeko.

LAUR ÜRHENBÜRIEZ

G: Zonbat dira jentiaren ürhen büriak?

I: Laur: 1. Hilzia, 2. Jüjamentia, 3. Ifernia, 4. Paradüsia.

G: Zer da hilzia?

I: Azken bethiereko arresta, zein Jinkoak emanen baitü jente honen althe, eta gaistoen kontre.

G: Zonbat jüjamentü gisa da?

I: Bigatako: bat bederarena, eta güziena.

G: Noiz date bat bederaren jüjamentia?

I: Hil bezain sarri.

G: Noiz date ororenaren?

I: Mündiaren ürhenzian.

G: Zer da Ifernia?



18. igantian

HAMABIGARREN KAPITÜLIA

Sakramentü güiez,
zoñez Jinkoak emaiten bainterikü
bere grazia

G: Zer da sakramentia?

I: Zeñhare ageri bat, zoñek Jesús-Kristen manüz eta indarraz era-zagützen, eta emaiten bainterikü grazia ageri eztena, gure arimen saintützeako, onsa hartzen dügünian.

G: Zonbat sakramentü dira?

I: Zazpi: Batheyia, Konfirmazionia, Korpitz Saintia, Penitenzia, Oiladüra, Ordena, eta Ezkonzia.

G: Nork ordenatü dütü sakramentiak?

I: Jesús-Kristek.

HAMIRURGARREN KAPITÜLIA

Batheyiaz

Joan. 3. v. 5. Math. 28. v. 19

G: Zer da Batheyia?

I: Lehen sakramentia; zoñek sortzetik orok dügün bekhatü orijinala xahatzen bainterikü, eta kristitürük Jinkoaren, eta Elizaren haurrak egiten.

G: Nork batheia diro?

I: Jaun erretorak edo haren lekhükoak, eta hoiek hel eztitakianian nork nahi, aita amek ere, hobeki dakianak.

G: Zer behar da onsa batheiazteko?

I: Hirur gaiza: hora, hitzak, eta intenzionia.

G: Zertan dago intenzione hori?

I: Elizak egiten dian bezalako kristau baten egin nahian.

G: Zoin hitz erran behar dira?

I: Nik batheiatzen ait Aitaren, + eta Semiaren, + eta Espiritü Sain-tiaren izenian, + hala biz.

G: Hitz horik minzarajez erran behar dira?

I: Zoinzaz nahi.

G: Zoin hurez batheiatü behar da?

I: Hur naturalaz: ezi eztaite batheia arrosa hurez, saldaz, ehez, ez eta belharretarik elkhiten direnez.

G: Nora isuri behar da batheyüko hora?

I: Haurraren büriala, edo bortxan haren beste eretze gehien agertian.

G: Noiz isuri behar da hora?

I: Erraitian, batheiatzen ait Aitaren &c.

G: Haurra bizi edo onsa batheiatü denez düda denian, zer egin behar da?

I: Batheiatü behar da hula; Jinkoaren haurra bizi bahiz, edo onsa batheiatü ezpahiz, batheiatzen ait Aitaren + &c.

G: Hil beldürrian etxen, edo bereber haurra batheiatü denian, berriz Elizan batheiatü behar dia?

I: Ez; ordian aski da, eman dakitzon krisma eta gañelako Elizaren zeremonia saintiak.

G: Zergatik Elizan haur batheiatzen denak egüz aita, eta egüz ama behar düti?



I: Erakusteko: hala nola bere aita eta ama naturalek korpitza eman baiterie, Jinkoak eman derion arima bekhatiak theyütürk, egüz aita amek batheyiaren graziaz xaha erazirik, Jesús-Kristen legian ahalaz bizi eraziren diela, Jinkoari haur espiritual berriz sorthiaren berme sartzen direla.

G: Berme espiritual haietan zonbat urthe behar die?

I: Egüz aitak hamalaur; eta egüz amak hamabi, biak onsa ikhiasiak direlarik: gaztiagori ere fedezko püntü gehienak eta othoitziak balin badakitze.

G: Zoin izen haurrari eman behar zaio?

I: Santü batena mithilkoari, eta sainta neskatilarri; amorekatik Paradüsian Jinkoa gana artekari eta patron bura ükhen dezan; lürrian deno haren berthüter iarraiki dadin, eta othoitzer komenda.

G: Egiten deia askazkünterik Batheyian, eta Konfirmacionian?

I: Bai espiritualki: haur batheyiaren eta batheiazaliaren; egüz aita amen eta egüz aita amen artian: berhala gerthatzen da Konfirmacionian hartakoz etzate haier sori algarreki ezkonzia.

19. igantian

HAMALAURGARREN KAPITÜLIA

Konfirmazioniaz

Act. 8. v. 14. 15. 16. 17.

G: Zer da Konfirmaziona?

I: Sakramentü bat, zoñek emendatzen baiterikü grazia eta indar Batheyiak eman derizkünak Jesùs-Kristetan dügün sinhestiaren erakusteko, eta kristi osotzen Espiritu saintiaren dohañez.

G: Nola izan behar da, konfirmatu izateko?

I: Kofesatürk graziatan, eta jakin paterra, Abe-Maria, Kretoa, Jinkoaren, eta Elizaren maniak, baita fedezko püntü gehienak.

G: Sakramentü haur gabe salba gitakia?

I: Bai: bena hartzen ahal dilarik, eizten dianak bekhatü handi egiten dü.

G: Nork konfirma diro?

I: Jaun apezküpiak.

G: Zer adin behar da konfirmatu izateko?

I: Zazpi urthe, eta Jinkoa ezagütü.

G: Zer da Konfirmazionien materia?

I: Krisma saintia, zoin baita olio balsamoreki nahasia, eta ostegün saintian jaun apezküpiak konsekratia.

G: Olioak zer erakusten dü Konfirmazionian?

I: Haur hedatzen den bezala, Espiritu saintiak isuriz bere grazia ari-mari emaiten deritzola.

G: Zer erakusten dü balsamoaren ürrin honak?

I: Gure bizitze perestiaren ürrin honez algar eskolatü behar dügüla.

G: Zergatik jaun apezküpiak berekatzen dü konfirmatzan dianaren belarra?

I: Erakusteko: haur nola baita korpitzen eretze gorena, eta non ageri baitira beldurraren eta ahalkiaren zeñhariak, Jesús-Kristen fedia goraki lotsa gabe haren etsai gaistoenen aitzinian aithortü behar dügüla.

G: Zergatik jaun apezküpiak konfirmatiari emaiten derio maxelan eskü khaldi bat?



I: Orhit dadin, adelatürk egon behar diala, gaizki eta desditxa ororen Jinkoaren amorekatik egarteko.

G: Zonbatetan ihor konfirma daite?

I: Ez behin baizik: ez eta batheia, ez ordena; zeren hirur sakramentü hoiek karaktero eta zeñhare espiritual gal eztizakian bedera, arimari eretxekiten baiteritze.

20. igantian

HAMABOSTGARREN KAPITÜLIA

Penitenziaz

Math. 16. v. 19. Joan. 20. v. 23. Act. 19. v.

G: Zer da Penitenzia?

I: Sakramentü bat, zoinzaz batheiatuz geroz egin dutügün bekhatien parkamentia ardiesten baitügü.

G: Zer behar da sakramentü honen hartzeko?

I: Hirur gaiza: Kontriziona, konfesiona, eta satisfaziona.

G: Zer da kontriziona?

I: Ürriki eta dolü bizi bat Jinkoari ogen egin daritzogünez, orotako hobena delakoz; hari hitz emanik ezkirela berriz hetara eroriren, eta iga-renez kofesatüren girela.

G: Kontrizione berareki salba gitakia?

I: Bai oso bada, eta ezin kofesa bagite.

G: Kofesatzian, arras ükhen behar dügia kontriziona?

I: Hobena lizate, eta Jinkoari hura ahalaz galthatü behar deriogü: ororat ere hura eztügünian. Atriziona aski dügü Kofesioniareki.

G: Zer da Atriziona?

I: Dolü ükheitia Jinkoari ogen eginez, bekhatiak Paradüsia gal erazi-ten derikülakoz, eta eragoizten Ifernüko penetara.

G: Zer da Kofesiona?

I: Gure bekhatü ororen Jinkoari aithortzia, hurak parkatzen ahal derizkün apezaren aitzinian.

G: Zer behar da Kofesione hon baten egiteko?

I: Bost gaiza: 1. bere konzenzia onsa ikher, 2. bekhatü oroz dolü, 3. apezari oro kofesa, 4. har gogo azkar bat, ez hetara erorteko gehiago, 5. ahalik sarriena egin penitencia kofesoraz emana oro.

G: Zer da satisfaziona?

I: Jinkoari eta gure lagüner zor deritzegünen pakatzia, gure kofeso-raren maniaren arau.

G: Penitencia egin ezpaliz, hon lizatia Kofesiona?

I: Bai: bere nahiz eizten dianak, haren egin gabez bekhatü laidi.

G: Nola hasi behar da kofesatzen?



I: Apezaren aitzinian belhariko zeñhatürik erran, Idazü Aita züre benedikzione saintia, bekhatore bainiz; gero erran: Kofesatzen niz Jinko potere oro dianari, Maria bethi Birjina dohatsiari iondane Ñeli arkanjelia-ri, iondane Johane Baptistarri, iondane Petiri eta Paule apostolü saintier, beste saintü orori, eta zuri aita espirituala, zeren sobera bekhatu egin baitut pensamentüz, hitzez eta obraz; ene faltaz, ene faltaz, ene falta handiz hartakoz othoitzen düt Maria bethi Birjina dohatsia, iondane Ñeli arkanjelia, iondane Johane Baptista, iondane Petiri eta Paule apostolü saintiak, eta beste saintiak oro; Eta zü Aita espirituala, Jinkoa othoi dezaien enegatik.

Edo latiz *Confiteor Deo &c*

21. igantian

HAMASEIGARREN KAPITÜLIA

Korpitz saintiaz

Math. 26. v. 26. Marc. 14. Luc. 22. Joan. 6. 1. Corinth. 11.

G: Zer da Korpitz saintia?

I: Althareko sakramentü saintia, zoñek gure arimaren bizigarri bai-
taduzka egiazki Jesús-Krist gure jaunaren korpitza, odola, arima, eta Jin-
kotarzuna, ogiaren eta mahatsanoaren üdüren pian.

G: Zer dira üdüri hurak?

I: Gure sendimentier ageri diren xuritarzuna, biribiltarzuna, handi-
tarzuna, figüra eta gozoa.

G: Ezteia ogiaren eta mahatsanoaren izatia üdüri haieki?

I: Ez: zeren hura egiten baita Jesús Kristen korpitza eta odola; ape-
zak Meza saintian, ostia eta mahatsanoa konsekratzen dütian bezain sarri.

G: Nola borogatzen düzü mirakülü handi hori?

I: Jesús Jaunak berark Ebanjelioan erran derikü, ogia eskietara hartü-
rik.

HAUR DA ENE KORPITZA eta mahatsanoa kalitzan ezarririk,
HAUR DA ENE ODOLAREN KALITZA.

G: Noren hitzez eta indarraz egiten da Mezan Konsekrazione hori?

I: Jesús-Kristenez, zoin apezak haren manüz, eta lekhüko bezala
erraiten baitutü.

G: Noiz egiten da hori Mezan?

I: Apezak ostia saintiaren, eta kalitzaren goratzerakoan, erraiten
dütianian hitz sakramentalak.

Ordian Iesús Kristen korpitza, eta odol sakratiak adoratu behar direia Bai
onsa, hala nola haien hartzian, zeren ezpaititake berhez haren jinkotarzü-
netik.



22. igantian

G: Korpitz saintia errezebitzen dianak, Iesüs-Kristen odol preziatia ere hartzen dia?

I: Bai: zeren haren korpitz arrapiztia bethi bizi dena, odolarekin baita.

G: Iesüs-Krist nola dago ostian?

I: Espiritia korpitzian dagoan bezala, oso ostia güzian, baita haren eretze orotan: hartakoz ostia hausten denian, ezta batere hausten Iesüs-Kristen korpitzza, bena bai ogiaren üdüriak.

G: Ostian izateko, Iesüs-Krist elkhiten deia zelütik, ala ordü berian han ere dago?

I: Ezta hantik ialkiten, Zelian eta sakramentü saintian da behinkoaz Jinkoaren ahalaz.

G: Noiz manatü izan da sakramentü haur?

I: Ostegün saintü gaian, Iesüs iaunak erranik, egizie haur ene orhitzarretan; eta ordü berian apostoliak apez egin zütian.

G: Zer behar da sakramentü honen merexitürik hartzeko?

I: Fedia, xahütarzuna, debozionia eta barur izan.

G: Zer sinhetsi behar da osoki sakramentü honez?

I: Natüraz gainti hontan dela Iesüs-Krist.

G: Iesüs han gure korpitzeko begiez ikhus dirogia?

I: Ez gure korpitzian arima beno haboro, zeren nola espiritiaren anzo han baitago, eztaite ikhus gure arimaren begiaz baizik, zoin baita fedia.

23. igantian

G: Zer xahütarzün galthatzen derikü sakramentü honek?

I: Bekhatü, güziz mortalik gabe izatia.

G: Zer debozione?

I: Berthüte berhezi zonbaiti iarraikitia; eta begiak beheratürik, korpitz za xahürik, armarik batere gabe hura errezebi graziatan, eta beharra bada onsa kofesatürik.

G: Nola barur?

I: Gaiherdiz geroz deus ian ez edan gabe salbü eriak hilzerakoan.

G: Zoin adinetan, eta nola ikhasirik hartu behar da korpitz saintia?

I: Mithilkoek hamalaur urthetan, eta neskatilek hamabitan; othiotziak eta katexima ikhasirik, kofesorari hobekien üdüri zaion bezala.

G: Erier eman behar zaieia korpitz saintia eta hura hetara lagüntü?

I: Bai haien errekeitariek ordü honez eman erazi behar derie, hen arimaren eta korpitzaren hazkürre hobena denaz geroz: eta hari ohorez jarrikirik, eria Jinkoari gomendatü.

G: Mezan ostia saintiaren goratzian, zer erran behar da?

I: Adoratzen zütüt ümilki Jesüs-Krist ene salbazaliaren korpitz sakratia Maria Birjina ganik sorthia, eta kürütxian enegatik hil zirena; aragi bizia, arima saintia, Jinkotarzün osoa, eta ororen salbamentia, zure amorio handiaz othoi parka ene ogenak.

G: Apezak kalitza goratzian, zer erran behar düzü?

I: Adoratzen zütüt ümilki Jesüs-Krist ene salbazaliaren odol prezziatia; ene bekhatü ororen xahatzeko isuria izadazu othoi ene arima, eta salba nezazu zure hontarzünaz.



24. igantian

HAMAZAZPIGARREN KAPITÜLIA

Mezako sakrifizioaz

Luc. 22. v. 19. Hebr. 5. v. 1. Act. 13. v. 2.

- G:** Zer egiten düzü lehenik Iesüs-Kristen korpitza eta odolaz?
- I:** Meza saintian ohereskatzen zitzüt Jinko Aita bethierekoari, hen merexiez ene bekhatien parkamentziaren eta behar ororen ardiesteko.
- G:** Sakrifizio honzaz zer enthelegatzen düzü?
- I:** Jinkoaren handitarzünari altharian bere semiaz egiten zaion ohereskia, hari laketenik zaiona bezala.
- G:** Zergatik egiten da sakrifizio haur?
- I:** Jesüs-Kristek kürütxian berartzaz egin dianaren orhitarretan, eta haren berthütiaren guri eretxekiteko.
- G:** Mezako sakrifizioan Jesüsek isurtzen dia bere odola, beste ordütz kürütxian bezala?
- I:** Ez: sakrifizio haur odolstatü gabe da.
- G:** Jesüs Krist hilzen deia sakrifizio hontan?
- I:** Bai üdüritan, bera ez egitan.
- G:** Nola hori?
- I:** Üdüri delakoz, misterio hontan haren korpitza eta odol edireiten direnak ostian, eta kalitzan bata bestiaganik berhezi direla.
- G:** Bera egiazki berhezi direia?
- I:** Eztitake berhez gehiago, Jesüs-Krist hiletarik piztüz geroz.

25. igantian

- G:** Mezako sakrifizioan edireitian zer egin behar da?
- I:** Orhitü Jesüs-Kristen hiliaz, Kalbarioan ikhusten bagünü bezala, eta haren minez honki gure bihotzak.
- G:** Elizak Jinkoari zer eskentzen derio Meza saintian Jesüsen, korpitza eta odolareki?
- I:** Kristi hon ororen othoitz eta gogo honak.
- G:** Zergatik?

I: Jinkoari laket zaitzolakoz, bere semiaren korpitza eta odolarekin eskenzen deritzogünian.

G: Nori egiten da sakrifizioa?

I: Jinkoari berari, haren gehiangoa eta hontarzün ezinago handien ezagützezko.

G: Zergatik Paradüsian diren saintiez orhitarre egiten da Mezan?

I: Jinkoari eskerren emaiteko harganik ükhen dütien honez; erakusteko ere saintü, egin direla hontan ohereskatzen deriogün Jesüs-Kristen merexiez, eta artekari izan dakizkün Jinkoa gana.

G: Zergatik apezak Mezan hartzen dü Jesüs-Krist ogiaren eta mahatsanoaren bi üdüriren pian; ez aldiz bestek?

I: Hobeki sakrifikadore bezala erakusteko Jesüs-Kristen arimaren eta korpitzetik berheztia kürütxian; haren beraren korpitza eta odolaren haritziaz, ogiaren eta mahatsanoaren bi üdüriren pian; zoin ezpaita apez eztiner.



26. igantian

HAMAZORTZIGARREN KAPITÜLIA

Oiladüraz

Jac. 5. v. 14. Marc. 6. v. 13.

G: Zer da Oliadüra?

I: Sakramentü bat; zoñek eriaren bekhatü benialak parkatzen baitütü; hora azkarzen Dee briaren tentazionen goitzeko, baita osagarria arremaitean, haren hobena bada.

G: Sakramentü honek herioa lehia eraziten dia?

I: Ez.

G: Oliatzeko, ügürüki behar deia, eria azken hatsian den?

I: Ez bortxaz baizik, ezi ikhusten bada eztaitiala itzur bere gaitzetik, ahalik sarriena eta ezagützia diano, olia erazi behar da.

G: Oliatü gabe salba gitakiala?

I: Bai: alabena herabez üzten bagüñü, ogen handi günüke.

G: Eritarzün batetan ihor olia daitia berritan?

I: Ez behin sendotüz geroz, arreritürik hilzera jiten ezpada.

27. igantian

HEMERETZÜGARREN KAPITÜLIA

Ordenaz

1.Tim. 4. v. 14. 2. Tim. 2. v. 5. Hebr. 5. v. 4.5.

G: Zer da ordena?

I: Jaun apezküpiak emaiten dian sakramentü bat; zoñek Eliza gizoner bere eginbide saintian, eta sakrifizioen egiteko, baita odolaren bester sakramentü saintien emaiteko ahala baiterie.

G: Zonbat ordenü da?

I: Zazpi: apeztarzüna, diakretarzüna, sudiakretarzüna, akolita, exorista, irakurzale, eta borthaalzaingoa.

G: Tonsüra ordenü bat deia?

I: Ez, ordenetara adelü bat baizik.

G: Har diroia tonsüra, ordenü sakratiak hartü gogo eztütianak?

I: Eztiro bekhatü egin gabe.



HOGEIGARREN KAPITÜLIA

Ezkonziaz

Ephes. 5. v. 32.

G: Zer da Ezkonzia?

I: Sakramentü bat; zoinzaz Jinkoak gizona eta emaztia algarganatzetan baitü maiteki eta bakez bizitzeko; haur ükheiteko, eta haien Jinkoaren zerbütixian hazteko, eman nahi baterie.

G: Zer egiten dü Ezkonzia sakramentü?

I: Ezkonzen diren bien hitzez, edo zonbait beste ageri den zeñharez jaun erretoraren, edo haren lekhükoaren, eta laur iakileren aitzinian, algar senhar eta emazte hartzen diela erraitiak.

G: Zer zor derio senharrak emaztiari?

I: Maitetarzün, fidelitate, eta ürgaztia.

G: Zer zor derio emaztiak bere senharrari?

I: Maitetarzün berhala, fidelitate, ohore, eta haren manü pian bizi-tzia.

G: Zertatik da sakramentü Ezkonzia?

I: Jesús-Kristen, eta Elizaren batarzünaren zeñharia delakoz.

G: Nola adelatü behar da Ezkonziala?

I: Bere askazi, adizkide, eta gehiener hartzaz ezagütze emanik, hirur kridak eraginik, hetarik Elizako iabek solthatzen ezzapdie: onsa ere kofesa, eta korpitz saintia errezebitürik.

G: Zer adinetan ihor ezkont daite?

I: Mithilkoak hamalaur urthiak bethez geroz, eta neskatilak hamabi bethe ondoan.

G: Ihor ezkont daitia noreki nahi?

I: Ez solthü ezzapda; ez ere askazi, ez aliatiek laur garren belhagian direno, Elizako jaben solthüra gabe. Ez eta lehen edo bigarrenian bekhatiak aliatü dütianak.

28. igantian

HOGEI ETA BATGARREN KAPITÜLIA

Jinkoaren hamar manien enthelega erazitria

Exodi 20. Math. 5. v. 19. Marci. 10. 1. Uc. 18

G: Zonbat dira Jinkoaren maniak?

I: Hamar: Jinko bakhoitz bat adora &c.

G: Erradazü zeri gogoatü dügün Jinkoaren manü bat bederatan?

I: Jakin behar da manü batziek erraiten derikiela, zer egin behar dügün; eta bestek zer etzaikün sori.

G: Zonbat parte dadüzka Jinkoaren lehen maniak?

I: Biga: lehenian Jinkoak ezagüt eraziten derikü, bera dela gure egiazko Jauna, yük adoratü, zerbütatü, eta Jinkoatan, bestiak oro ützirik, eduki behar düguna. Bigarren partian manatzen güüt eztagigüla idolarik, noz-paiko paganoek, eta orano haien goitia zonbaitek bezala.

G: Nolako ziren idolak, eta zer sinheste zien hetan?

I: Imajina elibat, erran nahi da gizon, eta emazte bere artian baliotako ükhen zütienen üdüriak ürhez, zilarrez, zurez, harriz eta hanitz beste gaizaz; zoin erhoki eta ütsütsüki Jinko edükitzentz eta adoratzen baitzütien, eta zoñek ahoetarik minzo baitzaitzen deebriak. Adoratzen ere zien ekhia, argizagia, beste izar elibat; laur elementiak süya airia, hura eta lürra. Orano berak abereturik hanitz abere künteren üdüriak adoratzen zütien, Ejiptako erresuman Apis idi belzaren üdüria bezala.

G: Paradüsüko saintien imajinen Elizan edükitia, eta hen aitzinian belharikatzia othoitzen egiteko, lehen manü honen kontre deia?

I: Ez segür: zeren kristiek badakigü imajina hoiek oihalez, zurez, edo harriz direla, eta hek berek eziela bere baithan berthüterik ez indarrik, guri honki egiteko: bena nola saintü egiazkoez orhit eraziten, eta iratzarren baikütie, haien honkigner iarraigitera, hen üdüriak ohoratzen düttügü, zoin ohore saintetara baitaroagü.

G: Jinkoak eztianaz geroz korpitzik, nola Trinitateko hirur personen üdüria egin ditake?

I: Eztirogü Jinkoaren izatia berartan gure korpitzeko begiez ikhus, bena bai hirur personek guri agertzeko, hartü dütien moldiak egin hala nola Aita Daniel profetari agertü baitzaion gizon zahar bat bezala kaide-



ran iarririk; erakusteko haren zühürtziaren eta bethierezko izatiaren: Semia gizon bezala gizon egin denaz geroz. Eta Espiritu Saintia urzo baten moldian hala Jesús Jaunaren batheyian agertü zelakoz; edo súzko mihi elibaten üdürian, hala Pentekostez apostolietara jin zelakoz. Berhala egiten dira aimgürrien üdüriak, agertü diren moldetan.

29. igantian

G: Zer da Jinkoaren adoratzia?

I: Ezagützia, hura dela ororen kreazalia, eta gehiena, osoki ere haren manü pian bizitzia.

G: Nola behar da Jinkoa maithatü?

I: Hontarzün, ohore, bizi güziak galzera ützi, lehenago eziz haren manik hauts.

G: Nor doa manü honen kontre?

I: Misterio gehienak Paterra, Krehoa eta Jinkoaren maniak eztakitzana: goiz arratsez Jinkoa belhariko othoitzen eztiana, ahal diroalarik. Elizatik berheziak süpertiziosak, azti, eta belhagiliak.

G: Heretiko eta Elizatik berheziak nola doatza honen kontre?

I: Fede bat, lege bat, Eliza bat eta Elizako gehien ageri den jabe bat baizik eztelarik, zoin baita Errümeko Aita Saintia; hoiek ükhatürük fedia-ren eta legiaren bere anzo, eta nahi dien bezala ützülziaz.

G: Süperstizios, eta aztiek nola edo zertan huts egiten die?

I: Jinkoak eta haren Elizak ordenatü eta üsatü dütien zeremonia eta erremedioak aski hon ediren gabez eta her ez fidaz, hitz arze elibatez, zetatzükaz, zeñharazükaz, (Etziteiela deebrigien lagün izan) bustaurez, zon-bait belharrez, edo khandera honenbeste piztüz, eriaren sendotzera, edo gaiza galduen edireitera, zoiñetan sartzen baita deebrigaren artezia agerriz, edo ezabaki, beste ordüz harekin norbaitek hitza hartürük: eta gaizak bera-tzaz eztaidiana, edo Jinkoa ganik indar baten egiteko hartü gabe, natüraz gaintiko gaizen egitera iarten direnak karaktero izkiribatü zonbaitez, edo nola nahi.

30. igantian

G: Belhagiliak zer jente dira, eta nola huts egiten die lehen maniaren kontre?

I: Jente eta espiritu aphal elibat, zoñek dioienaz, arnegatzen baitie bere egiazko Jinkoa, eta batheyü saintian hartü dien fedia eta Jesús-Kris-

ten legia; aita ama, eta Elizako gaiza güziak: eta gero hartzen die bere Jaun eta bürzagi deebría, adoratzen die, zerbüttxatzen, eta hark nahi bezala, bera lagünzen zaiela, egiten dütie gaizki ahalak oro, güziz haurretan, abe-retan, eta lurreko frütietan; halatan mündüko jente gaistoenak dira Jinko-az eta lege oroz erre merexi dienak.

G: Jinkoaren lehen maniari ogen egiten derieia, paradüsüko saintier edo aingürier othoitzen hurak eta haien errelikiak ohoratzen dütienek ere?

I: Ez batere: zeren hurak ohoratzen baitüyü, Jinkoak maite eta adiskide dütialakoz: eta nola hon baita mündü hontako jente perestiek batak bestia Jinkoari gomenda dezen bere othoitzez, eta segur ordian eztelia ogen egiten Jesús Jaunaren kargiari, zoin baita güzien gañeko gure arartegoa. Ageri da, nola saintiek hobeki ezagützen baitütie Zelütik gure galthroak eta beharrak, ürgazten ahal gütiela eta arrerosten behar dütügü-na, bethi Iesüsen merexiez.



31. igantian

HOGEI ETA BIGARREN KAPITÜLIA

Bigarren maniaz

- G:** Bigarren maniak zer nahi dü?
I: Jinkoaren izena iüra eztekala.
G: Sori deia zin egitia zoinbat ordüz?
I: Zin egitia, nola baita Jinkoaren ezartia gure erranaren lekhüko, badakit zina egin behar dela ezin bestez, medezina hartzen den bezala egiaren egarteko, dakigünaz onsa orhitürük lehiatiü gabe, hertü ez emendatü gabe, ez ere ihori gaizkirik egiteko.
G: Zer da, auher Jinkoaren iüratzia?
I: Züzen, behar, eta arrazo gabe iüratzia.
G: Bekhatü handi deia, zin gezürrian egitia?
I: Bai hori da, Jinkoaren gezürti egin nahia, hartakoz eztaite parka penitencia handireki baizik, Elizako jabe gehienez ere.
G: Jinkoaren arnegatzia, hari lotzia bürüütik, odoletik, pasionetik edo bestela, bekhatü handiak direia?
I: Bai hala ari dira dee briak Ifernian.
G: Nor besterik doatza manü honen kontre?
I: Jinkoari edo jenter zinez hitz emanak edükiten eztütienak, baita boto saintiak hausten dütienak.
G: Zin, arnegü, borhau gaiztoen üzteko, zer egin behar da?
I: 1. Goiz oroz gogo har, ezkirela gehiago hetara eroriren, 2. zonbait penitencia igaranez gihauri eman, 3. egar gure erranak hitz hoiez, 4. hori hala düzü edo hori eztüyü hala, 5. kofesa ardüra, 6. ihes egin iokier eta teherner.

32. igantian

HOGEI ETA HIRURGARREN KAPITÜLIA

Hirurgarren maniaz

- G:** Hirurgarren maniak zer nahi dü?
I: Igantiak begira itzak &c.
G: Zergatik Jinkoak manatü dü Igantia?
I: Egün hontan Jesús gure Iauna hiletarik piztü zelakoz.
G: Zer egin behar da iganten onsa begiratzeko?
I: Enzün Meza saintia, ez lanik egin, ez hurak igaren korpitzen ala-geranzetan edo ian edanetan, güziz tehernetan, iokü edo danzan.
G: Ezteia sori ordian lanik batere egitia behinere?
I: Ez: hurak Jinkoak debetatzen düdü lehia eta behar handian baizik Elizako iaber ordian solthüra galthatürük.
G: Zer egin behar da egün harten?
I: 1. Goizan ahalaz parropia Meza osoa debotki, enzün othoitzer onsa beha eta iarrai predikier edo kateximari. 2. Egüerdi ondoan enzün bezperak nork bere parropian, alkharri onsa egiten erakasteko. 3. Egina-ren gañela ezar obra honetan ütsartiak korpitzen eta espiritiaren desa-kitzen sori diren gaizetan.



33. Igantian

HOGEI ETA LAURGARREN KAPITÜLIA

Laurgarren maniaz

- G:** Laurgarren maniak zer nahi dü?
I: Aita ama ohora itzak &c.
G: Jinkoak zer manatzen derie haurrer?
I: Laur gaiza, aita amak maitha, ohora, sinhets eta ürgatz ditzen.
G: Haurrek behar dütieia sinhetsi bere aita amak gaizorotan?
I: Bai, ezpadira Jinkoaren, eta egin bidiaren kontre haien maniak.
G: Nola ürgatzi behar dira?
I: Korpitzez eri, edo beharretan badira, ahalak heltü behar zaie; eta ariman bere penez konsolatü; hilzerakoan ere haier sakramentiak eman erazi.
G: Hil ondoan zer zor zaie aita amer?
I: Haien azken ordeñiak balia erazi, eta hentako Jinkoa othoi erazi.
G: Aita amez zer orano enthelegatzeko da?
I: Halaber ohoratü eta obeditü behar dütügüla gü beno zaharragoak, Eliza gizonak, kargutan direnak oro, hain espiritualekoak, nola temporalekoak.
Zerbütخارier zer zor derie bere bürzagiza.
Maitetarzün, ohore, obediencia, eta fidelitatea.
G: Manü haur onsa begiratüren dienek, zer sari dükeie?
I: Jinkoak mündü hontan, eta bestian benedikatüren dütü.
G: Aita amek ezterieia zerbait ordari bere haurrer zor?
I: Bai hazi behar dütie, eskola erazi gaztigatü, eta haier onsa bizitzen bere egite honez erakatsi.

34. igantian

HOGEI ETA BOSTGARREN KAPITÜLIA

Bostgarren maniaz

- G:** Bostgarren maniak zer nahi dü?
I: Gizon erhaile ez izala &c.
G: Jinkoak manü honzaz eztia debetatzen korritzaren erhaitia bai-zik?
I: Honez ere debetatzen dü heriotze espirituala, zoin egiten baita bekhatiala aholkatziaz.
G: Nola hausten da manü haur?
I: 1. Jinkoaz etsitürük bere bürian erhaitiaz, edo bere biziaren labür-ziaz zonbait gaizki egitez.
 2. Berartzaz, edo bestez lagünaren popatziaz edo hari gaizki egitzaz.
 3. Alkhar hastio ükheitiaz, bilhakaz, edo güdükaz.
 4. Bere etsaieki baketü nahi gabiaz.
G: Nola begira daite manü haur?
I: Onsa nahi, eta egin güzier, baita gure etsaier, Jinkoari hala laket zaiolakoz.
G: Gure etsaier arras parkatü behar deriegia; elizatia aski haier gaiz-kirik ez egin nahia?
I: Zinez parkatü behar deriegü, Jinkoak gihauri parka dizagün; gehia-go ere honki egin behar deriegü, haieki minzatü, salütatü, eta haier begi honez so egin.
G: Nork behar dü etsaiaren ondoan ebili baketzeko?
I: Gaizki egin diala, bere baithan borogatzen dianak.



35. igantian

HOGEI ETA SEIGARREN KAPITÜLIA

Seigarren maniaz

G: Seigarren maniak zer nahi dü?

I: Lüxürius ez izala &c.

G: Manü honek zer debetatzen dütü?

I: Berartan edo bestetan gogo, hitz, eta egite likhitz güziak.

G: Gogo likhitzak bekhatü mortal direia?

I: Bai bere nahiz hetan ihor laket denian.

G: Besteri gogo theyüreki sogitia gaizki deia?

I: Bai mortal da, eta hori aski da gure bethikoz gal eraziteko.

G: Xahü eztiren khantoren erraitia eta irakurtzia gaizki deia?

I: Bai hori da Jinkoari ogen egiteko bide agerian iartia.

G: Aragizko bekhatia handi deia?

I: Bai: ezi nola baikira Jesús-Krist gure Jaunaren partiak baita ere gure korpitzak Espiritü Saintiaren onzi biziak, hoiek theyützen düüğü; eta ardürenik Jinkoak bekhatü maradikatü haur gaztigatzen dü bere azote garratzenez.

G: Honi ihes egiteko, zer egin behar da?

I: Ützi honen erezte pitzgarriak, eta emazten lagüngoa; nork bere begiak apal eduki, hara hona ohiltü gabe; ez iagoitik beha elhe theyü edo sobera nabasier; iraiz bethi honkite ahalke gabiak; eta ez egon auher behinere.

G: Bekhatü hontara erori direnek, zer egin behar die, honen xahatzeko?

I: Ardüra kofesatü ber kofesor jakinsü, zühür, eta perestü bat; Ama Birjinaren ükhen debozione berhezi bat eta züzen egin lehenik Jinkoaren iüstiziari, gero bekhatore lagünari, merexi badü, güzia kofesorak manatüren dian bezala.

G: Neskatila birjina, edo alhargün xahü bat gizonak aragizko bekhatiala eragotzi badü, ezkonzeko hitzen pian; ezkontü ezpada lehenago, edo Jinkoareki botoz estekatü; sortzepenez, edo izatez bardin edo arauzko badira biak, esposatü behar dia, ohoria ebatsi derionaz geroz?

I: Bai Jinkoak, eta lege güziek nahi die hura esposa dezan, baita orano berak emaztia dota dezan, aita khexiak haur ükhatten baderio bere alhabari.

G: Gizonak hitz eman ezpaderio esposatüren diala; solthü ezpada; edo izatez bardin, zer zor derio?

I: Ordian damiaren pakhü, dote doi bat eman behar derio gizon perestien erraniala, eta haurrik badie hurak hazi.

G: Seigarren manü honen begiratzeko, zer egin behar da?

I: Nor bere elhetan, korpitzaren egiten, arropetan, eta ian edaneitan doiaz bizi, zühür, eta güziz igaran.



36. igantian

HOGEI ETA ZAZPIGARREN KAPITÜLIA

Zazpigarren maniaz

- G:** Zazpigarren maniak zer nahi dü?
- I:** Besteren hona ebats eztezala &c.
- G:** Sori deia haurrer bere aita amer ebastia?
- I:** Ez hori bekhatü handi da, güziz gaizki irailteko, eta behar eztirenetako ixilik hartzen baderie.
- G:** Gaizki hartia bühörtü behar deia?
- I:** Bai auher da hartzaz kofesatzia, gaiza eroana osoki, edo eskietan ezpada, haren balioa bühörtzen ezpada.
- G:** Ebatsia ihork bühür ezpadiro, zer egin behar dü?
- I:** Haren ützültzeko ahal dezanan gütiена gogo hartü behar dü, eta hara helzeko bildü zerbait egünkal.
- G:** Nori bühörtü behar da?
- I:** Ebats zaisonari ezagütü bada, edo haren ageri diren züzen dünér, bestela gaizaren bürzagiarentako eman amoinatan, edo harentako Jinkoari othoitz eragiteko.
- G:** Noiz bühörtü behar da?
- I:** Ahalik sarriena, ahalaz ere kofestaü beno lehen.
- G:** Nork hausten die manü haur?
- I:** 1. Besteren hona züzen gabe, eta hark nahi gabe hartzen dienek.
2. Berhala hura gordatzen, edo bortxatzen dienek.
3. Edirena bühörtü eztienek; Elizatik, edo merkhatütik erran erazitzen eztienek, haren bürzagiaren ager eraziteko.
4. Lükħürariek.
5. Izari txipiegiz, gaistoa honaren, edo kharioegi gaizak salzen dütienek, eta güthün falsü egilek.
- G:** Bekhatü hontara ez erorteko, zer egin behar da?
- I:** 1. Jinkoak eman derikünarekin igaran.
2. Bestiak gihaur bezain onsa ikhusi nahi.
3. Gogoa eman, ohoinkeria oroz kontü hersi bat eman behar dela, eta eztaitiala ihor ioan Paradüsialat besteren honareki.

37. igantian

HOGEI ETA ZORTZIGARREN KAPITÜLIA

Zortzigarren maniaz

- G:** Zortzigarren maniak zer nahi dü?
- I:** Iakile falsü ezizala.
- G:** Ezteia iagoitik sori gezür erraitia?
- I:** Ez behinere, ez eta gizon bati biziaren begiratzeko, edo mündü güziaren irabazteko.
- G:** Gezurrez edo gaizki minzatzez besteri damü egin derionaz, ihora züzen egin behar derioa?
- I:** Bai honetan, nola ohorian.
- G:** Gaizki bestez minzatzia bekhatü handi bat deia?
- I:** Bai ebastia beno gaistoago da, ohoria diharia beno haboro dela-koz, eta gaitzago haren bühörtzia.
- G:** Zer da gaizki minzatzia?
- I:** Jente baten ohoriaren kontre zerbaiten erraitia, haren gaizki ezar-teko.
- G:** Gaizki errailer behatzian laket izatiak Jinkoari ogen egiten derioa?
- I:** Bai Beraz erraitiaz bezala.
- G:** Gaizki erranez gal erazi den ohoriaz züzen egin behar deia?
- I:** Bai hoiez kofesatürük ere, bestela ihor eztaite salba.
- G:** Nola bühörtü behar zaio nori bere ohoria?
- I:** Kristi lagünaren kontre gaizki erranak ükhätüz, eta hartzaz ihor dakitzan hontarzün hon ororen irailiz.
- G:** Norbaitez gaizki erraiten enzütian, zer egin behar da?
- I:** Ahalaz ixil erazi gaizki errailia; edo xotilki elhia ützül bestetara; edo so batez ezagüt erazi hura gaitz zaiola.
- G:** Nola ihor begira daite gezürti izatetik, eta egia eztenaren erraite-tik?
- I:** Gogoa hartüz hurak deebrien bekhatiak bezalako direla, zoin Jinkoak bethiz geroz hügү, eta borthizki gaztigatu baitütü.
- G:** Eta gaizki erraitetik?
- I:** Gure lagünaren maitez, eta peretxü handi baten harentako ükhei-tiaz; haren egite ororen alde honiala hartziaz, edo estaliz flakezia.



Bigarren urthiaren lehen igantian

HOGEI ETA BEDERATZÜGARREN KAPITÜLIA

Bederatzü eta hamargarren maniez

- G:** Bederatzü eta hamargarren maniek zer nahi die?
- I:** Aragizko obra onhets eztezala ezkonzet bazik besteren honik nahi eztiala, edükiteko gaiztoki.
- G:** Jinkoaren maniak eztireia hausten egitez, eta erraitez bazik?
- I:** Hausten ere dira gogoaz, eta nahiaz.
- G:** Gogo gaistoak oro bekhatü direia?
- I:** Ez: gure nahiz ezpadira.
- G:** Zoin bideiskaz ihor erortzen da gogotik bekhatiala?
- I:** Hirurez: gogo arhinetik edo aholkütik, laketzetik, eta boronthatiaren han ezartetik.
- G:** Zer da aholkia?
- I:** Gaitzaren ikhuste arhina edo aipatzia, bekhatiala gure deitzeko.
- G:** Zer da laketzia?
- I:** Aipatü zaizün gaizaren, egiteko jiten zaikün nahiküntia.
- G:** Zer da boronthatiaren gaizan ezartia?
- I:** Hori da, boronthatiak onhetsirik bere olez hartzen baitü, eta bere nahiz laketzen aipatü edo eskentü zaion gaiza gaistoan.
- G:** Gogo gaistotan laketzian, zoin bekhatü ihork egiten düdü?
- I:** Gaizkiak berak egitan egiten balütü bezalakoak.
- G:** Kofesatzian aski deia erraitia, gogo gaistoak ükhen dütiala?
- I:** Ez: orano erran behar da, zonbat eta nolako izan diren gogoak; theyü zirenez, eta noreki; hügürkeria, ieloskeria, mendekü, edo ohoinketazko zirenez, eta zonbatetan &c.
- G:** Nola ihor begira daite gogo gaistoetarik?
- I:** Orhitüz Jinkoaren aitzinian girela, zoñek ikhusten baitü gure bihotzen barniak; biziki iratzarririk egon gure sendimentien gañen; onsa begira begiak eta beharriak; ez auher egon, bena zonbait honki egin.
- G:** Nola goith ditzakegü besteren honaren atzaman nahiaren, eta haren hastio ükheitaren gogoak?
- I:** Gure lagünak, gük bezanbat hontarzün dian, alageraki nahiz, Jinkoari hala laket zaiolakoz.

2. igantian

HOGEI ETA HAMARGARREN KAPITÜLIA

Elizako maniez eta Eskümükiaz

Math. 18. v. 17

- G:** Zonbat dira Elizako maniak?
- I:** Zazpi: 1. Igantez Meza enzün ezak, eta besta manatiez debotki.
- G:** Nork hausten dü manü haur?
- I:** Meza osoki enzüten eztianak: aita amek, bürzagi bürzagisek bere haur eta zerbüttxarier ahalaz eranzüten eztienek.
- G:** Mezan algarreki elhestarieki bekhatü egiten dieia?
- I:** Bai handiki, ezi Jinkoa desohoratzen die, eta ez Meza saintia behar bezala enzüten.
- G:** Elizatik hurrentxe direnek, meza ezin enzüten dienian etxezain egon beharrez, zer egin behar die?
- I:** Bere artian aldizka hontara jin; eta etxen, aldirietan, edo bortian abelzain diratianian, igante eta bestez parropia Meza gütentako erraiten den ordüxiari, Jinkoa othoitü belhariko orenak edo konderak eskian, eta Jesùs-Krist jaunaz bat bederaren egiten den sakrifizioa gogoaz lagüntü haren merexiez Jinkoareki baketzeko. Halaber egüerdi ondo hetan bezperen ordüxiari berritü othoitziak, jinen diren egünetan Jinkoaren hobeki zerbüttxatzeko.
- G:** Aski deia bethi igantez, edo aldizko Meza apal baten enzütia?
- I:** Ez; bat bederak, eriz edo ezinez baratzen ezpada, parropia Meza enzün behar dü hirur igantetarik batez, eskümükuren penan.
- 3. igantian*
- G:** Errazü bigarren Elizako mania.
- I:** Hire bekhatiak oro kofesa itzak urthian behin gütiena.
- G:** Nork hausten dü mortalki manü haur?
- I:** Urthian behin Bazkokari berantena jaun erretorari, edo haren lekhükoer, edo hari permisione galthatürük, beste kofesor batí kofesatü eztatianak, eta hori eskümükuren penan.
- G:** Aski deia urthian behin kofesatzia?



I: Bai Elizako maniaren begiratzeko; ororat ere ihor erori baliz bekhatü mortaliala, laster kofesatu behar lüke, korpitz saintiaren onsa hartzeko; berhala eri denian, edo beste hil beldürretan: besta handiez orano hon da kofesatzia, bere konzenziaren xahü edükiteko.

G: Errazü Elizako hirurgarren mania.

I: Ore kreazalia errezebi ezak berantena Bazkoz ümilki.

G: Nork hausten dü manü haur?

I: Bazkoari nork bere parropian, edo jaun erretoraren nahiareki besetan errezebitzen eztianak, eta hori eskümükuren penan.

4. *igantian*

G: Errazü Elizako laugarren mania.

I: Elizak manatü bestak begira itzak leialki.

G: Nork hausten dü manü haur?

I: Bestez langiten ari denak, merexian Jinkoa hetan onsa zerbüttxatü, ikhasi saintien berthütiak, her iarraigiteko; othoitü, ofizio saintietara ioan, eta beste obra honetan ediren igantez bezala, ützirik ioko gaistoak, tehernak, eta danza.

G: Errazü bostgarren mania.

I: Laur temporak, bijiliak, eta Gorozüma barur itzak osoki.

G: Nork hausten dü manü haur mortalki?

I: Hogeit eta bat urthe ardietsiz geroz, Gorozüma oro igantiak salbü; urtheko laur thenporen astizken, ostirale, eta neskenegünak, eta elizaz manatü beste egünak barurtzen eztütianak, ahal ditzakilarik; eta horik oro gure bekhatiez penitencia egiteko; Jesús jaunak berrogei eginenez egin dian baruraren ohoratzeko; Jinkoa benedika ditzan urtheko laur sasoak, eta elizari apez perestiar plazer ditzan eman.

G: Nork eztü bekhatü egiten barur hoiek ez egina gatik?

I: Hirurogei urthe dienek, emazte izorrekin, ünhüdekin, eriek, prabea pairü baten aski azkurre eztienek, eta indarkaz lan borthitzetan bizi denak.

G: Nola behar da barurtü?

I: Egüerdi artio ez deus ian ez edan, etan arratsen igaran gütireki.

5. *igantian*

G: Errazü Elizako seigarren mania?

I: Ostiralian ez neskenegünian eztezala ian aragirik.

G: Nork hausten dü manü haur, eta zergatik da?

I: Eri ezpadira, bi egün holetan aragi ialek, Egüberri besta hetan helzen ezpada; eta ordian aragirik eztüğü iaten, Jesús-Krist gure jaunaren hilziaren eta ehortziaren ohoretan.

G: Errazü zazpigarren mania.

I: Tempora debetaciez eztagiala ezteyik, eta detxema primiziak paka itzak xüxenki.

G: Noiz dira debetü ezteiak?

I: Adbentü lehen igantetik, aparizio zoin baita Hirur Erregen besta; eta hausterik Bazko zaharra lagün gütireki, beste tenporez bezala; bera ordüko debetia da, apezak Meza ürhenzian emaiten dian benedizione solemnela, baita ezteietan egiten diren herots, sonü, danza alageranzia eta sobera ian edatiak, zoin ezpadilirale onsa, Eliza saintak ordü hetan gure bekhatiez penitencia eragin nahi derikülakoz.

6. *igantian*

G: Nork eztü pakatzen xüxenki detxema primiziak?

I: Hurak ebasten, hertzen, bortxatzen, eta gaistoenetik egiten dütienek, Jinkoak eta lege güziek Elizako artzañer, edo hen lekhükoer eman deritzen hazkürre eta züzenak direlarik.

Sori deia detxema primiziak egin beno lehen, frütietarik langilen pakatzia, eta aziaren zerbait berheztia.

Ez lege güziek nahi die, Jinkoari eta haren lekhükoer, züzen hoiek borogü orotarik xahü eta oso eman dakitzen; gero nork beretik zorrak paka ditzan.

G: Elizak manü hoiek oro egin ahal derizkia?

I: Bai düda gabe; zeren Jinkoari amatako haur eman baiterikü; eta ordenatü Eliza sinhetsiren eztiana maradikatü dela, eta igaran dadin pagano eta eskümibatü baten; ororen bürian ere Elizako maniek Jinkoarenen hobeki begiratzera hel eraziten baikutie.

G: Aski deia Jinkoaren eta Elizako manien iakinia?

I: Ez: begiratü ere behar dira onsa.

G: Gihauen indarrez egin ditirogia?

I: Ez Jinkoaren grazia gabe, zoin bethi adelatürk baitago, guri haren emaiteko, galthatzen baderiogü behar bezala.

G: Zer sari hitz eman dü Jinkoak haren manü saintü ororen begizaler?

I: Paradüsia, non bethikoz dohatsü baitirate.



G: Hurak hautse dutükienek zer gaztigü dükeie?
I: Bizitze hontan gaizki dirate, eta Iferniala eroriren, non Jinkoa galdurik, deebrieki bethi erreren baitira: hari ihes egiteko, gitian oren oroz onsa bizi.

7. *igantian*

- G:** Zer da Eskümükia?
I: Sentenzia bat, zoinzaz Elizako jürek, eta legek gaztigatzen baitutie behatü gisa elibaten egiliak; haien manien hautsliak, eta egia ükhatten dienak, aithortü behar lükeienian, nori bere hon edo ohoriaren begiratzeko, edo galdu dianian bühür eraziteko.
G: Eskümükiak zer gaitz eretxekiten derio kristiari?
I: Jinkoaren haurretarik berheztia, eta Elizako hon espiritualen galizia.
G: Zergatik diozü Eskümükia dela berhezte bat?
I: Zeren eskümükati berhezi baita Elizako honen partaletarzunetik menbro hirotia korpitzetik bezala.
G: Eskümükatiak zer hon galzen die?
I: 1. Elizan sartzia. 2. Meza saintiaren enzütia. 3. Sakramentien hartzia. 4. Parte ükheitia Elizako othoitzetan, Ostirale saintian salbü. 5. Sain-tien merexietan. 6. Indüljenzieta. 7. Bere aita espiritualen gidamentietan. 8. Lür saintian ehorzia. 9. Eskümükati Elizatik izentatü bada, debetü da hari minzatzia, hareki iate eta edatia, egoitia eta gañelako nabastarriak Eskümükürenpenan. 10. Hartan hil badite, haien arimak deebriari ützi dira, bethikoz Ifernian erratzeko.
G: Eskümükatiak parkamentiarene ükheiteko, zer egin behar dü?
I: 1. Eskümüka erazi dian bekhatiaz dolü hartü, 2. hartzaz züzen egin edo eman berme hon bat, 3. hitz eman eztela aitzinera ber bekhatiala eroriren, 4. ükhen parkamentia ahala dian apeza ganik, har eztiki hark emanen derion penitencia, eta bertan egin.

8. *igantian*

HOGEI ETA HAMEKAGAREN KAPITÜ-LIA

**Parropia Mezaz,
hur eta ogi benedikatiez,
ohereskiez etainxensatziaz**

G: Zergatik Elizak manatu dü eskümüküren penan, hirur igantetarik batez parropia mezaren enzütia; eta hura, beste meza batzien erraiten direnak beno hobe deia?

I: Bai: zeren ardiak bere artzaña ezagütu behar baitie; orok algarreki harten Jinkoari Jesús jaunaz ber sakrifizioa eta othoitziak egin; enzün pro-noa, zoin diratian asteko bestak, barurak, eskümükiak, ezkonzen kridak, gañelako ere ikhasi behar direnak zoin hontarzün ezpaitira oro edireiten beste mezetan, hartakoz meza gehiena hobe da.

G: Zergaitik kristiak apostoliez geroz, hur benedikatiareki zeñhatzen dira othoitzen hatsarrian, eta elizala sar elkhitetan?

I: Zeren Jinkoa maite badüğü hur benedikatiaren berthütiaz behatü benialak parkatzen baterizkü, eta harzaz ohilzen baitügi espiritu gaistoa, gure othoitzetan nahas ezkitzan, eta xarmeriak hausten baitü.

G: Zergatik apezak egoizten dü hur benedikatia popüliari, parropia Mezaren hatsarrian egiten dian prozesionian?

I: Haren orhit eraziteko batheyü saintian bat bederak errezebitü dian graziaz; eta erakusteko, mündüko egitekoak iraizirik, konzenzia xahü bat ükhen behar diala, Mezako sakrifiziotik gozo hartzeko.

9. *igantian*

- G:** Ogi benedikatia zeren da?
I: Ogi benedikatia da sakramentü saintiaren üdüri bat, zoñen emai-ten Elizan hasi bait ziren, lehen kristiak gibeltü zirenian korpitz saintiaren egün oroz errezebitzetik, zoin hartzen baitzien, baiarzün saintü batetan bizitzeko: bera hau ek gero hazkürre saintü hura ützirik; eta nola ezpaitzen gehiago besta handiez baizik errezebitzen: Elizak haien bake honian eta maitez eduki nahiz, ogi benedikatia sakramentü saintiaren lekhütan ezari dü, igante oroz eman zadin kristi orori.



G: Nola eta zergatik hura ian behar da?

I: Debotki, eta nahasi gabe beste iatekoeki; eta nola baita hur benedikatia bezala santifikatu Jinkoaren hitzaz eta othoitziaz, badü berthütia gure begiratzeko hanitz gaitzetarik, eta espiritu gaistoen enkontrietarik: hartakoz lehenik ohereskatzen eta benedikatzen da altharian, epistolaren althian.

G: Zergatik Elizaren hatsarriaz geroz jente perestiek eman dütie ohereskiak?

I: Zeren Jinkoak debetatu baitzerion Moisari eladin ager eskiak hutsik haren aitziniala, kristiek igante eta besta handiez, parropia Mezan ohereskatzen zütien ogi, mahatsano eta gañelakoak, herrikal nork bere anzo.

G: Zergatik hori?

I: 1. Jinkoari aithortzeko, harganik dütügülä hon güziak, eta hen bürzagi ezagützeko. 2. Haren othoitzeko, gure ükhenak benedika eta emenda ditzagün. 3. Jesús Jaunaren sakrifizioareki batetan errezebi ditzagün. 4. Relijonezko obra baten egiteko. 5. Gure arimen artzañen hobeki haztera helzeko, soberak ere beharrer eman ditzen. 6. Gure izate güzia Jinkoaren handitarzünari omaje egiten deriogü. 7. Azkenekoz gure ohereskiez ohoratzeko saintien bere bestetan, amorekatik jesüsen indarraz Jinkoa ganik ardiets ditzagien behar dütügün graziak.

G: Zergatik elizan Jinkoa inxensatzen da, Jesús Jauna erregez apari-zioz khüñan bezala?

I: Haren khia gora doan bezala, gure othoitziak aingüriez lagüntürik, Jinkoa gana igan behar diala erakusteko, eta hari gure misterioen artian, zor deriogün ohoriaren emaiteko, onhesten dian ürrin honezko sakrifizio batez bezala.

G: Zergatik orano inxensatzen dira eliza gizonak, eta popülia?

I: Zeñharatzeko, kristien bizitziak saintü, eta berthüten ürrinhonez bethe izan behar diala.

10. igantian

HOGEI ETA HAMABIGARREN KAPITÜLIA

G: Nola erraiten dütüzü konderak?

I: Jinkoaren aitzinian belharikatürik, zeñhatzen nüzü, eta erraiten dizüt, O Jesús-Krist gure Jauna adoratzen zütüt, zeren mündia arrerosi baitüzü zure kürütxiaz.

G: Gero zer diozü?

I: Kürütxiari pot eginik, hartan Kredoa, edo sinhesten düt, latiz, edo üskaraz erraiten dizüt, gero bihi larrieta Paterra, edo Gure Aita; eta xehetan Abe-Maria, edo salütatzen zütüt, latiz edo üskaraz.

G: Zergatik erraiten dütüzü konderak?

I: Erazagützeko Ama Birjinari harentiar nizala, eta hartzaz Jinkoa ganik behar dütüdan grazien ardiesteko.

G: Zer uste düzü dela Ama Birjina?

I: Kreatüra dohatsü bat; merexi hanits diana, graziaz eta berthütez bethia, eta Jesús Kristen ama.

G: Zeri gogoatü behar düzü erraitian Abe?

I: Andere honari jin zaion meziari Gabriel aingüriak berria ekharri zerionian, Jinko semiaren ama izanen zela, zoin berriak egin baitü gure salbamentziaren hatsarria.

G: Zeri gogoatü behar da, erraitian Sancta Maria?

I: Hilziari, eta güziz ordian behar dükégün Jinkoaren graziari, zoin Ama Birjinak bere othoitzez ardiets baitirogü.

G: Hon deia hanbat Abe-Maria erraitia?

I: Bai haien erraitien, gogoa ezarten badüğü Kristen, zonbait mistriotan; hala nola haren gizon egite, sortze, hilze eta pitzian, edo Birjina saintiaren misterio dohatsü, alagera, edo penazko zonbaitetan: Jesús, eta María aipatzian, ere salütatü behar dütügi.

G: Sinhesteko deia, honen beste Pater eta Abe-Maria erraitiak berthüte berhezi bat diala?

I: Ez hori süperstizione bat lizate.

G: Birjina saintiari zergatik konderen debozonia hain laket zaio?



I: Zeren ardüra Pater eta Abe-Maria erraiten baitügi, zoin baitzaitzo othoitze laketenak; eta zeren haren hirurogei eta hirur urhetako adina ohoratzen baitügi, konderetan diren hirurogei eta hirur Abe-Mariez.

G: Nori hon egin diro konderen erraiak?

I: Orori, gure Relijionian beharrenik eta gozatsien diren gaizak daduzkanak geroz orotan gainti hon dira irakurtzen eztakienen.

11. igantian

HOGEI ETA HAMAIRURGAREN KAPITÜLIA

Jinkoari othoitü beharraz

G: Aski deia fedezko misterio eta egien sinhestia, kristi hon eta salbatu izateko?

I: Ez: obra honak orano egin behar dira, eta egünak perestuki igaran.

G: Temporaren onsa igareiteko, zer egin behar dü kristiak?

I: Behinere hutsik gabe goiz arratsez Jinkoa othoitü, hari nork bere lana eskentü, eta güziak egin hari laket izateko, eta haren gloria handienaren diren.

G: Hanbat behar dügia goiz arrats oroz Jinkoa othoitü?

I: Bai salbatü nahi bagira, eta Jinkoaren benedizionia jin dakizkün.

G: Nola behar da Jinkoa othoitü?

I: Hur benedikatiareki ahalaz zeñhatürük, belhañez belhariko kürütxe, edo Jesús Jaunaren, edo Andre Dana Mariaren imagina baten aitzinan.

G: Ezteia aski Jinkoaren othoitzia ohian, züti edo beztitzian?

I: Etzaio hala emaiten Jinkoari zor deriogün ohoria.

G: Zergatik beraz bi belhañez belhariko?

I: Zeren Jinkoari minzo baikira, eta Jesüsek bere Aita belhariko othoitü baitü, guri erakusteko, berhala egin behar dügula.

G: Belhariko iartiaz norbaitek erri egin balizazu ützi behar deia hala othoitzia?

I: Ez: zeren Jesús gure Jaunak erran baitü, nork ere ahalke baitüke haren ohoratzera jenten aitzinian, hark ere ahalke dükiala haien Aitaren aitzinian bere haurretan ezagützera.

G: Egiteko lehiatürük bagünü, goizan Jinkoaren othoitziari huts egin ahal giniroa?

I: Ez: gure egitekorik handiena delakoz gure arimaren salbatzia.

G: Egüneko lanez akhitü bagina, Jinkoa othoitü gabe etzan ahal gitakia?

I: Ez: hanbat pena gure korpitzaren hartürük, zerbait, gure arimaren salbatzeko egin dezagün, nahi dü arrazoak.

G: Kristi güziek goiz arrats Jinkoa othoitü behar dieia?



I: Bai aita amek haurrek bezala: bürzagi bürzagisek, mithil neskato-ek, praube, aberats, handi txipi orok.

G: Bekhatü handi deia, hilebeten eta urthen igaraitia, zonbait ari diren bezala, Jinkoa othoitü gabe?

I: Bai halakoek erakusten die Jinkoa mesperetxatzen diela, eta eztie-la haren axola, salbatü izateko.

G: Jinkoa goiz arrats oroz othoitzen diener, zer frütü eta benedik-zione Zelütik helzen zaitze?

I: Hura dükeie bide bat Jinkoaren grazian iraiteko, bekhatiala ez erorteko, edo ez hartan baratzeko, bena bai hartarik laster elkiteko, hilzia-ren beldür ez izateko, eta bethi adelatürik egoiteko, Jinkoaren jüjamentia-la agertzeko.

12. igantian

HOGEI ETA HAMALAURGARREN KAPITÜLIA

Egunkal kristiak egin behar dütianez

G: Kristiak goizan zer egin behar dü?

I: 1. Iratzarri den bezain sarri zeñhatü behar dü, eta erran ene Jinko hona emaiten derizütene bihotza.

2. Jaiki eta beztitü bezain sarri, kürütxe, edo saintü baten imajinaren aitzinian, hur benedikatiareki zeñhatürik etxeko gehienak edo aldizka, bel-hariko erran behar dü etxeko güzieki ahalaz goizango othoitzia.

1. Ene Jinkoa, sinhesten dizüt osoki, heben eta lekhü orotan zirela.
2. Ezagütze zütütene Jaun gehien, eta adoratzen saintü orok beza-la.

3. Maite zütütene bihotz oroz, Jesü-Krist gure jaunaz.
4. Ene Jinkoa esker derizüt igaran gaian eta ene bizi orotan eman deriztadatzün hon oroz.

5. Dolü dizüt, zeren orotako hobena zirelarik ogen egin baterizüt; hastio zitizüt bekhatiala deitzen, edo eror eraziten naien gaizak oro: eta bihotzetik hitz derizüt, zure graziaren indarrarekin etzütüdala gehiago khexa eraziren: bekhatü egin oroz kofesatüren nüü ahalik sarriena, hetzaz penitencia egiteko.

6. Ene Jinkoa, egünko ene gogo, hitz eta lan güziak emaiten deritzüt; idazü laket bazaizü zure benedikzione saintia; zure iüstiziari arrazo egiteko, eskentzen derizüt eta hartzen gogo honez; egün heltüren zaiztadan galziak eta damiak oro.

7. Othoitzen zütüt didazün indar, egün ogenik eztizazüdan egin; bena zure gogara orotan bizi nadin.

8. Gure aita Zelietan zirena &c.

Salütatzen zütüt &c.

Sinhesten düt Jinko aita &c.

9. Saintü dohatsü ene izeneko! zoñek Jinkoaren saihetsian paradü-sian dadükazün eretzetik, ene izate güzia ezagützen baitüzü behar dütü-dan graziak oro ardiets othoi: ene arimaren etsaiak oro gibel erazi, lürrian ere hain onsa zure honkiginak, eta bizitze saintia egizü, iarraik ditzadan, gero hil ondoan Jinkoa laida ahal dezadan bethierekoz zureki Zelian.



10. Espiritü ene xüen ibil eraziteko, Jinkoaz eman zaiztadan aingürü hona ene espiritiaz eta bihotzaz egin behar düdüdanak oro erakats itzatazü fediaz eta karitatiaz, Jesús-Krist gure Jaunaren merexiez bizi eta hil nadin Jinkoaren grazian.

11. Ene Jinko ona, gure aitzineko hilen arima honak oro zure misericordiak othoi bake bethierekoaz goza erazi ditzala hala biz.

13. igantian

HOGEI ETA HAMABOSTGARREN KAPITÜLIA

**Angelus deitzen den debozioniaz.
Eta ian aitzinian eta ondoan
erraiteko diren othoitzez**

G: Zergatik egün oroz goizan, egüerditan, eta arratsen hirurna zeñü khaldi emaiten dira elizan?

I: Kristi ororen iratzartzeko, Angelus othoitziaren erraitera.

G: Zergatik hirur ordü hoietañ erraiten da?

I: Jesús-Kristen, eta Andre Dana Mariaren sortziaz, bizitziaz, eta hiliziaz gure orhit eraziteko.

G: Zergatik aldiskal hirur zeñü khaldi emaiten dira?

I: 1. Guri adora eraziteko Trinitate Saintiaren, zoin Inkarnazioaren misterioan parteliant baita. 2. Eskerren emaiteko hura egin diener, Gabriel haren berriaren ekharle aingüriari. 3. Hartara gogatü zen Birjina Saintari, eta Jesús-Krist gure jaunari, zoñen persona aragistatü baita.

G: Büria gizonek ageririk, lehen zeñü khaldian zer erran behar die?

I: *Angelus Domini nuntiavit Mariae, et concebit de Spiritu Sancto. Ave Maria, &c.*

G: Errazü hori üskaraz.

I: Jinkoaren aingüriak Mariari Inkarnazioaren berria ekharri derio, eta Espiritü saintiaren obraz konzebitü dü salütatzen zütüt.

G: Errazü latiz, bigarren zeñü khaldian erran behar düzün othoitzia.

I: *Ecce ancilla Domini fiat mihi secundum verbum tuum. Ave Maria, &c.*

G: Errazü hori üskaraz.

I: Haur naizüla Jinkoaren neskatoa egin bedi nitan, zure hitzaren arau salütatzen zütüt.

G: Errazü latiz heren zeñü khaldian, erran behar düzün othoitzia.

I: *Et Verbum caro factum est, et habitavit in nobis. Ave Maria. &c.*

G: Errazü hori üskaraz.

I: Jinko semia gizon egin da, eta gureki izan salütatzen zütüt.



14. igantian

G: Jan beno lehen, kristiak nola othoitü behar dü Jinkoa?
I: Erran debotki eskiak algorganatürk, eta gizonek bütüak ageririk,
Benedicte R. Dominus nos & ea quae sumus sumptui Benedicat Dextera Christi.
In nomine Patris &c.

G: Errazü Benedicte üskaraz.
I: Dügün Jinkoa benedika Jesús-Krist gure Jaunak plazer badü, eman
 bizagü eta gure hazkurreko hartzera goazan gaizer bere benedikzioe
 saintia. Aitaren eta semiaren.

Jan ondoan, Jinkoari nola eman behar zaitzo eskerrak?
G: Jan ondoan, Jinkoari nola eman behar zaitzo eskerrak?
I: *Agimus tibi gratias Rex omnipotens Deus pro universis beneficiis tuis, cui
 vivis & regnas in saecula saeculorum. Amen.*

G: Errazü üskaraz.
I: Ororen Jinko eta errege bethi bizia, gehien ere zütüguna, gure
 eskerrak emaiten deritzügü honki egin derizkütün oroz. Hala biz, Jinko-
 ari biz laidorio, bizier bake, hiler pausü eta heben giren orori Jinkoa parka.

15. igantian

HOGEI ETA HAMASEIGARREN KAPITÜLIA

G: Kristiak etzan beno lehen, arratsen zer egin behar dü?
I: Kürütxe, edo saintü baten imajinaren aitzinian, hur benedikatiare-
 ki zeñhatürk etxeko gehienak edo aldizka, belhariko erran behar dü etxe-
 ko güzieki ahalaz.

ARRATSEKO OTHOITZIA

1. Ene Jinkoa adoratzen zütüt saintü orok bezala.
2. Esker derizüt zeren ezdeusetarik idoki bainaizaü, arrerosi, kristi
 egin, eta züganik egün eta bizi orotan ükhen düdüdan honez.
3. Orhit eta ezagüt erazi itzatazü egün egin düdüdan bekhatiak gogo-
 az, hitzez, obraz eta ahatzez.
4. Jar gitian Jinkoaren aitzinian egün egin dütgün bekhatiak xehe-
 roki gogoa ditzagün apür bat, orhitzen girela non izan eta noreki minzatü
 giren. Alte.
5. Ene Jinkoa, bihotzetik dolü dizüt zure khexa eraziz, oro hon zire-
 lakoz: gogotik hitz derizüt zure graziareki ezterizüdala eginen gehiago
 ogenik, eta ene bekhatiez penitencia egiteko, ahalik sarriena kofesatüren
 nüzü.
6. Ene Jinkoa, maite zütüt ene bihotz oroz, Jesús Krist gure Jaunaz.
7. Gure Aita Zelietan zirena, &c.
 Salütatzen zütüt, &c.
 Sinhesten dut Jinko aita, &c.
 Kofesatzen niz Jinko aita, &c.
 Edo latiz *Pater, Ave, Credo, Confiteor.*
8. Saintü dohatsü ene izenekoa, zoñek Jinkoaren saihetsian paradü-
 sian dadükazün eretzetik, ene izate güzia ezagützen baitüzü, behar düdü-
 dan graziak oro ardiets othoi: ene arimaren etsaiak oro gibel erazi, lürrian
 ere hain onsa zure honkiginak eta bizitze saintia iarraik ditzadan, gero hil
 ondoan laida ahal dezadan bethierekoz zureki Zelian.



9. Espiritü ene xüen ibil eraziteko, Jinkoaz eman zaiztadan aingürü hona, ene espiritiaz eta bihotzaz egin behar dütüdanak oro erakats itzadatzü fediaz eta karitatiaz, Jesús-Krist gure Jaunaren merexiez bizi eta hil nadin Jinkoaren grazian.

10. Ene Jinkoa eskentzen derizüt ene loa, zure graziazbekhatü orotarik begira nezazü; arima ene ohatziareki xaha izadazü zure hur benekatiaz: nahi dükezünian Jesüsen boronthatian hil nahi nüzü, bai Jesús hel zakizat zure graziaz.

11. Ene Jinko hona, gure aitzineko hilen arima honak oro zure misericordiaz othoi bake bethierekoaz goza ditiala. Hala biz.

16. igantian

HOGEI ETA HAMAZAZPIGARREN KAPITÜLIA **Jinkoaren graziaz**

G: Zerk gure arimak bekhatü mortaletik xahatzen düti?

I: Jinkoak emaiten derikün graziaiak.

G: Zer da grazia?

I: Jinkoak hontarzünez jenter emaiten derien dohain bat, haien salbatzeko.

G: Zonbat grazia gisa dira?

I: Biga: grazia aktuala, eta grazia habituala.

G: Zer da grazia aktuala?

I: Argi eta iratzartze Jinkoak Zelütik emaiten derikün hon bat, gaitzari ihes egiteko, eta honari iarraigiteko.

G: Zer da grazia habituala?

I: Zelükö dohain bat, zoñek Jinkoaren gogara gure arimak ezarten baitüti, eta indar emaiten haren manien begiratzeko.

G: Nola deitzen da grazia habituala?

I: Grazia jüsto egiten gütiana, gure arimak bekhatietarik xahatzen dütilakoz, eta Jinkoaren aitzinian behar bezalako egiten.

G: Grazia lehen hori merexi dirogia?

I: Ez: zeren Jinkoak hura dohain emaiten derikü Jesús-Krist gure Jaunaren merexiengatik.

G: Grazia santifika gitiroana merexi dirogia, eta nola hura ardiets dirogü Jinkoa ganik?

I: Bai othoitzez, obra honez eta sakramentiez.

G: Zer emaiten derikü grazia jüsto egiliak?

I: Jinkoaren haur egiten güti. Jesús-Kristen aurhide. Bethiereko gloriaren primü.



17. igantian

HOGEI ETA HAMAZORTZIGARREN KAPITÜLIA

Zeremoniez

G: Zergatik dira Elizako zeremonia saintiak?

I: Nola espiritüz eta korpitzez eginak baikira, gure Ama Eliza Sain-tak Jinkoaren misterio gorak haren haurren begier miragarriago erakutsi-rik, nahi dù mündüko gaizek ürgatz dezen gure flakezia, Zelükoez hobeki sinhesteko eta maithatzeko.

G: Nork manatü dütü zeremonia saintiak?

I: Haboroa Jesús-Kristek berak, pitzüz geroz berrogei egünezz Zelialat igan artio, bere apostolier minzo zeno Jinkoaren erresümaz, erran nahi da Elizaz.

G: Espiritü Saintiak erakatsi dia hoietarik zonbait?

I: Bai honek düda gabe gidatzen dù Eliza, eta egia güziak erakasten deritza.

G: Elizako gaiza benedikatü orok nontik hartzen dütie bere indarrak?

I: Jinkoa ganik, zeren Jondane -Paulek baitio, kratüra güziak santifi-katzen direla Jinkoaren hitzaz eta ohoitziaz.

G: Zergatik khanderailüz benediakten dira khanderak?

I: Gure orhit eraziteko Andre Dana Mariaren xahütarzünaz eta kari-tatiaz haren besta handi hontan, haren semiaren jinkotarzünaz zoñek fede gabiak argitzen baitü, nola bizi behar dügü, eta gure egitek besten mirail izan behar diela; merexitü ere Paradüsüko gloriaren argia, zointara sartzia gure arimaren espusak hitz eman baiterikü, edireiten bagüti hil orenian iratzarririk eta tortxo piztia eskian, erran nahi da obra honeki.

G: Zergatik Hautstez emaiten zaikü hauts benedikatia?

I: Zeren nola gure aitzineko arima hon orok hautsa penitenciaren zeñharetan ekharri baitie bürian edo soñian, Jinkoaren parkamentiareni ardiesteko, Eliza saintak hautsen hartziaz erakatsi nahi derikü, Jinkoaren aitzinian bihotz beheratü bateki, bekhatore girela aithortü behar dügüla, eta ezagüti lüretik elkhirkik gütenik uste dükegünian haustüren girela; hartakoz Jinkoareki baketzeko, gure ogenez bethi penitencia egin dügüla behar.

G: Zergatik Erramüz benedikatzen, eta eskiala emaiten dira erramiak prozesionalia joaitian?

I: Hala nola Jerüsalemeko jente honak Jesús Jaunari, hiri hartara sar-tzian, aitziniala elkhirkik ohorez, oliba ostoez bidiak edertü baitzeritzen, zeñharatzeko herioa eta deebria bere hilze eta pasione saintiaz goithüren zütiala, berhala Elizak nahi dù erramiak debotki eskian, Aita bethiereko othoi dezagün, arimaz eta korpitzez bere grazian bizi erazi gitzan; gure obrak egin bidian eta karitatian Jesüsen merexiez pitz ditian; eta gure hirur etsaiak deebria, aragia, mündia garhaitürük, haren glorian sar gitian.

18. igantian

G: Zergatik aste saintuko astizken, ostegün, ostiraletako ofizioan erhaitean dira khanderak?

I: Guri zeñharatzeko edo Profeten hilzia, edo Moysaren zeremo-niazko legiaren ürhenzia, edo Jüdien ütsüeria Jesús-Kristen hil erazitiaz.

G: Zergatik khanderaka hoietarik gorena piztirik gordatzen da ordian althare xokoan, eta herots bat egiten? Zeñharatzeko, ekhia ülhüntü zela, gure salbazalia hil zenian; lürra ikharatü; elementiek eta natüra güziak dolü hartü, bere kreazalia hilzen ikuhsirik.

I: **G:** Neskenegün saintian benedikatzen den xirioak zer erran nahi dù?

I: Jesús hiletarik piztirik üdüri eraziten derikü; hartakoz harritik elki-ten den sü berritik pizten da, hobitik Jesús elkhia zen bezala; honen ezko-ak haren gizatarzün saintia zeñharatzen dù, zoin elkhia baita Ama Birjina-ren sabeletik, ezko xahia erletik bezala; honen garrak zeñharatzen dù haren jinkoatrzüna; hariak haren bi natüralezen algarganatzia: bost inxensü bihiek zeñharatzen dütie Jesús-Kristen bost zauriak, eta haren ürrin honstatzeko ünkhüntiak.

G: Zergatik Ebajelioa erraiten deno Bazkoriz Salbatore artio, haren althian pizten da xirioa?

I: Guri erakhusteko, Jesús-Krist piztü ondoan, bere apostolier agertü zela, eta fedezko misterioak erakatsi berrogei egünezz.

G: Zergatik xirioa Pentekoste bezperan, Batheyüko benedikatzen den hurian sartzen da?

I: Guri Espiritü Saintiaren, üdüri baten emaiteko, zoin besta harten iaitsi baitzen apostolietara süzko mihi elibaten anzo; eta ordian Jinkoa ohoitzen dügü, bere Espiritü Saintiaren berthüta hur saintü hetara isur dezan, batheiatüren direner bizitze berri baten emaiteko.



G: Zergatik hilen ehorztiaren egiten dira othoitzia, obra honak, eta beste zeremoniak?

I: Tortxo argi, hurtzen direnek; Inxensü khetan doenak; zeñü danga airian eranzünik galzen direnek, mündüko bizitzia labür, ezdeus, eta ürüpen bat dela erakusten die; baita orano kristiek dien fedia eta esperantxa, bizi hontan bere berthüten ürrin hon bat emanik, gloriaren argia ikhussiren diela; korpitza hilik ere arima bathi bizi dela, khandera piztia bezala; hur benedikatiaren hiler emaitiak dee briak ohilzen düütü, gure othoitzetan nahaz ezkitzen; ohereskü eta Mezako sakrifizioek arima honak penetarik solthatzen, eta Jinkoa ganatzten dütie.

19. igantian

HOGEI ETA HEMERETZÜGARREN KAPITÜLIA

**Andre Dana Mariaren
debot izan beharraz,
eta Arrosarioaz**

G: Jinkoaren graziaren ükheiteko, Birjina Saintiaren debot izan behar dügia?

I: Bai: zeren Jesús-Krist gure Jaunetik hiperdülle landan, hari beste saintü orori beno haboro zor baiteriogü. Konderetan gañen erran dügün bezala.

G: Zer zeñhare da Ama Birjinaren debot izatia?

I: Harentiar dena Jinkoaren haur egiazko dela; hartakoz gure behar orotan haurrak ama gana bezala, hargana laster egin behar dügula.

G: Nola hori?

I: Haren besta saintietan kofesatziaz eta errezebitziaz, hen besperak eta neskenegünak ahalaz barurtz haren ohoretan.

G: Nola orano hura gure arartekari ükhenen dügü?

I: Egunkal haren letheriñen, konderen, edo arrosarioaren erraitiaz, eta haren konfraria zonbaitetan sartziaz. Konfrairietan saintuki Elizak ezari düütü Jinkoaren gloriatan, eta bere haurren kristi hobetzeko: bena hala ere debetatzen dü haien debozionek eztitzen okher, ez gal erazi, nork bere parropian zor dütian eginbideak.

G: Zer iakin behar die konfrai konfraisek?

I: Bere aurhidegoa saintuko erregla, eta hari ahalaz onsa iarraiki.

G: Zonbat misterio dadüzka arrosarioak?

I: Hamabost, Jesús-Kristen, eta Ama Birjinaren bizitzen gañen; zoñen ohoretan erran behar baita: hetarik bost dira alageranziazkoak; beste bost dolorosak; eta beste bost gloriosak.

G: Erratzü alageranziazkoak.

I: 1. Aingüriaren salütazionia, 2. Santa Elisabeten ikhustia, 3. Jesús-Kristen sortzia, 4. Elizala, haren lehen eroaitia, eta Jesús haurren doktoreki dispüta.

G: Erratzü dolorosak.



I: 1. Olibetako baratzian presoner hartzia, 2. Pilataren etxen azotzia, 3. elhorriz khoroatzia, 4. Kalbarioko mendiala kürütxiaren eramaitia, 5. hartan itzatürük gure salbazaliaren hilzia.

G: Erratzü gloriosak.

I: 1. Jesús-Kristen piztia, 2. Zelialat igaitia, 3. Espiritü Saintiaren iais-tia, 4. Andre Dana Mariaren Paradüsialat korpitz eta arimatan Jesús bere semiaren indarraz igaitia, 5. haren khoroatzia, aingürü eta saintü orotan gañen izateko.

G: Nola hamabost misterio horik ohoratzen dürtügi, eta zer gozo hantik jiten zaikü?

I: Astian behin debotki erraitiaz hamabost Pater-noster, eta ehün eta berrogei eta hamar Abe-Maria behinkoaz; edo hirur aldiz bostna Pater. Eta berrogei eta hamarna Abe-Maria: halaz irabazten dira Aita Saintiek hartako konfraier eman dütien indüljenziak. Eta Abe-Maria hoien kontia jarraikiten da Dabid profetaren psalmier. Erran bedi beraz onsa arrosarioa Jesüsen, Ama Birjinaren, baita Saint Dominika honen emailiaren ohoretan; eta haren besta gehiena onsa begira Ürrietako lehen igante oroz. Gük orai lan saintü honen ürhenzian bezala.

Salve Regina, &c. edo üskaraz

Salütatzen zürtügi erregiña miserikordiaren ama: ohoratzen zürtügi gure bizitzia, eztitarzuna eta esparantxa bezala: zuri gaude oihuz Ebaren haur herratiak, zuri gaude hasperenez eta nigarrez lekhü nigarrezko hontan: eia beraz gure arartekosa, zure miserikordiazko begiez sogigüzü, eta Jesús zure seme benedikatia bizitze honen ondoan erakuts izagüü: A bihotz bera, A dohatsia, A Maria Birjina eztia. Hala biz.

Ene Jinko hona, ene arima zure eskü saintietan ezarten dizüt: ene azken orenian onsa hilzeko grazia emadazü.

20. igantian

Katexima gañekoa erran ürhentü datianian

GÜZIA HONLA LABÜRKIAGO BILDÜ BEHAR DA

G: Zergatik gira mündü hontan?

I: Jinkoaren ezagutzeko, maithatzeko, eta zerbütxatzeko; hala Paradüsiaaren irabazteko.

G: Zer da Jinkoa?

I: Zeliaren eta lurraren egilia, eta gaiza ororen Jauna.

G: Zonbat Jinko da?

I: Ezta bat baizik.

G: Zonbat persona dira Jinkoatan?

I: Hirur; zoin baitira Aita, Semia, eta Espiritü Saintia.

G: Hirur personetarik zoin gizon egin da?

I: Jinko semia bera.

G: Nun gizon egin da?

I: Maria Birjina Saintiaren sabelian, eta sorthü Betleemen barruki batetan egüberri bezpera gai minian.

G: Nola deithü da gizontz geroz?

I: Jesús-Krist.

G: Zergatik gizon egin da?

I: Jenete güzien arrerosi eta salbatü nahiz.

G: Nola arrerosi dürtü?

I: Kürütxian hilziaz, eta Bazkoz arrapiztü da; Salbatorez Paradüsiala igan; Pentekostezez igorri Espiritü Saintia Eliza Santa gana; eta Zelütik iait-siren da mündiaren ürhenziari jente ororen iüjatzera.

G: Zer da althareko sakramentü saintian?

I: Jesús-Krist osorik, diot haren korpitzta, haren odola, haren arima, eta haren jinkotarzuna ogiaren eta mahatsanoaren üdürien pian.

G: Mirakülü hori onsa sinhesten düzia?

I: Bai zinez, Jinkoak hala nahi eta erran dialakoz.

G: Hori sinhesten eztiana, salbatüren deia?

I: Ez batere.

G: Sinhestia aski deia?



I: Ez, Jinkoatan esparantxa ükhen behar dügü, hura goriki maithatü, eta zerbütxatü.

G: Erakats izagüü zer den esparantxa.

I: Ene Jinkoa! Egürükiten dizüt Paradüsia, zure eta Elizako manien begiratzez, honla hura hitz eman deritazülakoz.

G: Erakats izagüü, zer den Jinkoaren maithatzia.

I: Ene Jinkoa! Beste gaizak oro beno maitiago zütüt zihaurgatik; eta ene kristi lagüna nihaur bezala, horik biak manatü deritzazülakoz.

G: Zer da Jinkoaren zerbütxatzia?

I: Jinkoaren eta Elizako manü saintien begiratzia.

G: Jinkoak zer emaiten derie bere manien egiler?

I: Paradüsia.

G: Eta hurak hausten dütianer?

I: Ifernüko sühalamak, hil beno lehen bere bekhatiak parkatü ezpatzitze.

G: Zer egin behar da, bere bekhatien parkamentiaren ükheiteko?

I: Oroz onsa kofesatü ahalik sarriena eta anhartio hetzaz dolü handi bat hartü.

G: Erakatsazu, zer den dolü hon hori?

I: Ene Jinkoa! Biziki ahalke eta dolü dizüt, zuri ogen eginez, hontarzuna bera zirelakoz, oro kofesatüren zitizüt ahalaz onsa, eta enütü gehiago gaitzuala eroriren.

ÜRHENZIA

Azken kapitülü honen ondoan, jaun erretorek haurrer arrerran era-ziren deritze, hobeki azkartzeko, bigarren urtheko hamazazpi lehenak, urthiaren ere bethatzeko.

CETTE ORDONNANCE sera lûe annuellemente par les Curés au Prône les Dimanchez avant la Fête de Sain Marc & des rogations: Et par les Régens aux Ecoliers les jours precedans.

ARNAUD FRANÇOIS DE MAITIE, Par la Misericorde de Dieu, & par la grace du S. Siege Apostolique, Evêque d'Oloron: A tous les Fideles en JESUS-CHRIST de notre Diocese, au Pays & Vicomté de Soule, SALUT. Saint Gregoire le Grand institua l'an 590, les Processions des grandes Litanies à la Fête de Saint Marc, lequel par ce moyen detourna la colere de Dieu, fit cesser les fleaux de la Peste, & autres malheurs qui avoient fait mourir à Rome un grand nombre de personnes; Mais l'Eglise les à retenues pour deux principales raisons, 1. Pour nous faire connoître d'un côté le soin extreme que nous devons apporter à conserver la grace reçue à la Fête de Pâques par l'exercice de Penitence, & de la priere continue, 2.Pour reparer les Sacrileges commis par quantité de Chrétiens à cette même Fête, qui d'ordinaire en cette saison attirent les calamitez & les fleaux publics: Car c'est alors que les Armées se mettent en Campagne; que les Tonnerres commandent à gronder sur nos têtes; que les Campagnes sont sujetés à être ravagées; que les biens de la terre sont exposez aux intamperies de l'air; Enfin que' les maladies commandent à regner, & souvent les mortalitez des hommes & des animaux. Et ce procedé de l'Eglise est fondé sur le sentiment de Saint Paul, qui reprend les corinthiens de sont tems des irreverances qu'ils commettoient vers la Sainte Communion, & leur montre qu'elles sont châties, mêmes des cette vie, Ideo inter vos multi infirmi & imbecilles, & dormiunt multi 1. Cor. cap. 11. Saint Mamert Evêque de Vienne ayant seu, qu'on pratiquoit les Processions des trois jours des Rogations avec beaucoup d'indevotion, desordre, & insolance, jusques-là que Dieu étant irrité contre son peuple, il l'affligea de tremblement de terre, des feux, & d'autres prodiges celestes; pour remedier à tous ces maux, il ne trouva rien de meilleur, que de remetre en l'année 452. ces Litanies en leur ancienne & premiere splendeur.



Aussi-tôt l'Eglise Universelle suivit cet exemple, au rapport de Saint Avit second évêque de Vienne après Saint Mamert, mais avec telle ferveur, que même les Serviteurs & Servantes n'en étoient pas exempts, car le Canon 29. du premier Concile d'Orléans célébré au même teins, commande aux Serviteurs & Servantes de quitter ou interrompre leur travail, afin d'assister devoutement à ces Processions, & à plus sorte raison à leurs Maîtres & Maîtresses, en l'an 507.

L'Eglise en a retenu par tout ce Saint Usage pour d'autres bonnes raisons, 1. Pour faire protestation solemnelle, que nous sommes Pecheurs, & par l'effort de nos larmes & de nos prières, jointes aux intercessions des Saints, dont nous implorons l'assistance, obtenir de Dieu la remission de nos pechez; Et qu'il luy plaise detourner de nous les fleaux de la Peste, de la Guerre, & de la famine, donnant la benediction aux fruits de la terre, 2. Afin qu'étans déchargez du fardeau de nos pechez par la penitence & la mortification de ces Saints Pelerinages. Nous puissions portez sur les ailes de nos prières & de nos desirs, suivre plus librement au Ciel notre Seigneur au prochain jour de sa triomphante Ascension, & demander avec plus de confiance que si nous est nécessaire en cette vie.

Mas nous ayant reçu diverses plaintes dans notre dernière visite dudit Pays, qu'il s'y commettoit de grands abus, dissolutions, querelles, & irreverances contre l'Esprit de Dieu, & de l'Eglise aux Processions de ces jours: Et bien que les Parroissiens soient obligez de droit, & par devoir respectif d'y suivre leurs Pasteurs avec modestie & humilité; Neanmoins parce que lesd.

Processions se faisoient vers des Eglises ou Chapeles étrangères du voisinage, leur tieudeur dans la pieté y trouvant un peu de rigueur, ils ont la plupart negligé d'y aller, & s'y amusoient à jouer, danser, & à commettre des excez qui faisoient perdre entierement le fruit de la priere.

Ce qui nous auroit obligé d'ordonner que les Curez faisoient desormais lesd. Processions dans les limites seulement de leurs Paroisses vers les Eglises annexes, ou Chapelles votives, ou bien vers trois Croix. Mais le changement des lieux ordinaires desdites Processions a donné occasion aux peuples de murmurer & d'imputer leurs alictions publiques, la longueur des pluies, & dimunition des fruits qui leur sont sorvenus depuis, à ce que nous n'avions ordonné, que par un pur esprit de reformation des mœurs. Et enfin Me. Olivier d'Etchecapar Syndic General du tiers Estat, suivi d'autres Codeputez dudit Pays nous a tres humblement suplié, de rétablir lesdites Processions dans leurs anciens lieux de convocation, afin que les Fideles continuent d'y rendre leurs Voeux avec leurs Oblations

ordinaires, d'y recevoir les consolations & instructions accoutumées des Predications. Nous protestant que les Habitans dudit Pays se porteront unanimement à l'avenir, d'assister exactement ausdites Rogations, dans le dessein d'y faire penitence de leurs pechez, & auront un gran soin de conserver la grace de Dieu pendant tout leur Pelerinage, & de changer de vie à leur retour.

A CES CAUSES, Nous considerant que l'Assemblée des peuples à l'occasion desdites Processions, qui honorent les voyages que notre Sauveur a faits, pour operer notre salut, pût aussi lier plus étroitemente les Chrétiens, & leur faire conserver par ces entreveües annuelles l'esprit d'union & de charité par ensemble, & les affermir dans les veritez de la foy, & l'unité d'une commune esperance, comme dit Tertulien; Corpus sumus de conscientia Religionis & disciplina unitate, & spei fadere coimus in catum. Et Saint Leon parlant de l'eficace des oraisons publiques ayant dit, qu'on obtient une entiere abolition des pechez, quand l'Eglise est unie en l'oraison, Car si Dieu promet d'accorder tout ce que demanderont deux ou trois unis pieusement ensemble que pourra t'il dénier à tant de fidelles assemblez unanimement pour les mêmes exercices, en priant par le même esprit & à même intention.

Avons ordonné & ordonnons, que selon l'usage ancien des fideles dudit Pays de Soule, & avec mortification d'esprit & de corps, gardant l'abstinence de viande ausd. trois jours de Rogation, les Curez & tous autres Ecclesiastiques habitués ou residans dans les Paroisses assisteront sous peine d'interdit en Soutane, Surplis, & Bonnet carré aux Processions vers les Saints lieux accoutuméz d'ancienneté pour lesdites Rogations, avec des Chantres fournis par les Parroissiens, ensemble les Maîtres & Maîtresses de chaque maison sans armes à feu, épée, ni poignard, sans préjudice de leurs enfans, & domestiques au moins alternativement, sauf excuse legitime qui sera jugée par leurs Curez, les tous observant la modestie & l'ordre cy-bas prescrits.

1. Avant de partir de leur Eglise ayant formé la contrition de leurs fautes; Ils offriront à Dieu ces saints exercices avec les mêmes intentions, pour lesquelles ils ont été instituez,
2. Ils marcheront deux à deux, les hommes les premiers nû tête, sauf injure de l'air, & aux Stations; Et les femmes après, lisant s'ils sçavent dans leurs livres, ou disant leur Chapelet,
3. Il faut éviter de n'y aller par coûture & curiosité,
4. De ne parler ensemble des choses prophanes, & de ne se disputer ni quereler en chemin,
5. De ne point prier Dieu avec distraction,
6. Pour remedier aux querelles qui ont commencé cy-devant d'interrompre lesdites Processions,



sur la presseance des Croix portées à la Procession des Trepassez dans le Cimetiere, l'Absolvé se fera communement à la fin du Sermon au devant l'Autel, & l'oraison sera chantée par le Celebrant, 7. De ne se separer pas les uns des autres, & de ne quitter pas la Procession avant qu'elle soitachevée, 8. Nous défendons à tous Ecclesiastiques, & fideles sous peined'Excommunication ipso facto, de jouer aux Cartes, ni Quilles en public ni en particulier ausdits lieux d'Assemblée, ni en chemin, d'y manger ni boire dans des Cabarets ou Tavernes, sans prejudice neanmoins à eux de se rafraichir avec sobrieté en quelque lieu particulier, en cas qu'ils soient fatiguez par la longueur du chemin, sans s'y arrêter pour y passer la nuit suivante, le tout à leurs propres frais, sans toucher aux deniers de l'oeuvre qui ne seront par alloüés aux Marguilliers dans leurs comptes. 9. Nous défendons aux Curez, ou Vicaires desdits lieux d'Assemblée, à peine de suspension ipso facto, de souffrir le son des violons, ni danses ausdits jours; Et que les Marchands, Merciers, ou Distributeurs des vivres ou danrées tendent Boutique, ni debitent rien au Porche des Eglises, ni dans les Cimetieres, 10. A leur retour qui se fera à heure convenable, il faut demander à Dieu pardon des fautes que chacun y aura commises, & le remercier des graces qu'on y aura reçûes, pour vivre plus saintement à l'avenir, 11. A ces fins avons enjoint aux Curez d'exhorter vivement, leurs Parroissiens d'y assister exactement, & aux Marguilliers de les y faire trouver dans un nombre suffisant, & bien rangé de chaque familli, 12. De continuer dans les Eglises desdits lieux d'Assamblée les Offrandes accoutumées d'ancienneté, comme des aumônes salutaires por la gloire de Dieu, la remission des pechez, & honneur des Saints Patronis votifs desdites Eglises, pur meriter l'intervention de leurs saintes prières, 13. Afin qu'il n'y ait pas de discorde dans lesdites Assemblées ou l'humilité & la penitence doivent regner, sous pretexte de Presseance. ORDONNONS que les Curez ou Vicaires se retireront desdits lieux d'Assemblée à la fin des saints Offices sans affectation, & les premiers les plus éloignez à proportion, à peine de suspension ipso-facto, 14. Que les Sieurs Patrons, Magistrats, & Gentils hommes des lieux assisteront ausd. Processions, chacun à la tête de ses Parroissiens, sauf excuse legitime qui sera jugée en consciente par leurs Curez ou Vicaires; Autrement ils discontinueront de les recommander aux prieres publiques du Prone pendant les six mois suivans, pour la penitence de leur mauvais exemple, 15. En cas que par malheur, ce qu'a Dieu ne plaise, il y survienne quelque accident ou desordre, Nous requerons ainsi que de droit les Sieurs Juges Seculiers dudit Pays, de châtier severement les refractaires dans les sujets de leur compe-

tance, 16. Et afin que personne ne l'ignore, les presantes seront lûes & publiées annuellement au Prône du Dimanche avant la Fête de Saint Marc, & celuy desdites Rogations par les Curez ou Vicaires à peine de six livres applicables en oeuvres pieuses, 17. Enfin Ordonnons à nos Officiers dans ledit Pays de tenir la manin à l'execution des presentes, ca sera imprimé à la diligence de notre Promoteur.

DONNE à Mauleon le jour de notre Sinode de quatorzième May mil six cens soixante quinze.

ARNAUD-FRANÇOIS DE MAYTIE
Evêque d'Oloron

Par Mandement de Mon Seigneur, BELOSCAR Secrétaire.

LEÇON SUR LA MANIERE DE servir & repondre à la Sainte Messe, à quoys les Regens veilleront bien.

Celui qui sert à la Messe, à soin que les Cierges soient allumez, & les buretes garnies de vin & d'eau, avant que la Messe commence. Il aide au Prêtre à se revêtir, & pren garde qu'il soit revêtu proprement.

Si le Prêtre part de la Sacristie tout habillé, et marche devant modestement, portant le Missel, & les Burettes (si déjà elles n'étoient à l'Autel) Et s'il passe devant le Saint Sacrement, il fait la reverance.

Estant arrivé à l'Autel, et passe au côté de l'Epitre, & y ayant receu le bonnet, il le place en un lieu convenable hors de dessus l'Autel: puis ayant mis le Missel sur l'Autel & les Burettes en leur place, ausitôt il se va mettre à genoux au dessous des degrés tout en bas du côté de l'Evangile, & se tourne vers le milieu de l'Autel.

Il fait toujours la reverance lorsqu'il passe devant l'Autel. Il n'a ni livre ni Chapelet à la main, afin d'être plus libre & plus attentif à bien servir le Prêtre.

Il fait le signe de la Croix avec le Prêtre au commencement, & repond clairement & distinctement au même ton que le Prêtre. Le Regent fera dire les reponses aux enfans en Latin: Il leur parlera fortement du respect & de la devotion avec laquelle ils doivent servir à la Messe; Et seservira aussi de cette oraison, pour imprimer à tour les enfans un grand respect intérieur & extérieur dans l'Eglise, particulièrement en entendant la Sainte Messe.



REPONSES A LA MESSE

Le Prêtre

In nomine Patris, & c.

Introibo ad Altare Dei

L'Enfant

Ad Deum qui laetificat juventutem meam.

Le Prêtre

Judica me Deus, & c.

L'Enfant

Qui tu es Deus fortitudo mea: quare me repulisti, & quare tristis incedo,
dum affligit me inimicus.

Le Prêtre

Emitte Lucem tuam, & c.

L'Enfant

Et introibo ad altare Dei:

Ad Deum qui laetificat juventutem meam.

Le Prêtre

Confitebor tibi en Cithara, & c.

L'Enfant

Spera in Deo, quoniam adhuc confitebor illi salutare vultus mei & Deus
meus.

Le Prêtre

Gloria Patri, & c.

L'Enfant

Sicut erat inn principio, & nunc semper, & in saecula saeculorum. Amen.

Le Prêtre

Introibo ad altare Dei.

L'Enfant

Ad Deum qui laetificat juventutem meam.

Le Prêtre

Adjutorium nostrum, & c.

L'Enfant

Qui fecit Coelum & terrain.

Le Prêtre

Confiteor, & c.

L'Enfant

Misereatur tui omnipotens Deus, & dimissis pecatis tuis perducat te ad
vitam aeterman.

Le Prêtre

Amen.

L'Enfant

Confiteor Deo omnipotenti, Beatae Mariae semper Virgini, beato
Michaeli Archangelo, beato Joanni Baptistae, Sanctis Apostolis Petro &
Paulo, omnibus Sanctis, & tibi Pater, quia pecavi nimis cogitatione, Verbo
& opere. Mea culpa, mea culpa, mea culpa, mea maxima culpa. Ideo pre-
cor beatam Marian semper Virginem, beatum Michaelm Archangelum,
beatum Joannem Baptistam, Sanctos Apostolos Petrum & Paulum,
omnes Santos, & te Pater, orate pro me au Dominum Deum nostrum.

Le Prêtre

Misereatur vestri, & c.

L'Enfant

Amen.

Le Prêtre

Indulgentiam & c.

L'Enfant

Amen.

Le Prêtre

Deus tu conversus, & c.

L'Enfant

Et Plebs tua laetabitur in te.

Le Prêtre

Ostende nobis Domine, & c.

L'Enfant

Et salutare tuum da nobis.

Le Prêtre

Domine exaudi, & c.

L'Enfant

Et clamor meus ad te veniat.

Le Prêtre

Dominus vobiscum.

L'Enfant

Et cum Spiritu tuo.

Le Prêtre

Kirie eleison.

L'Enfant



Kirie eleison.
Le Prêtre

Kirie eleison.
L'Enfant

Christe eleison.
Le Prêtre

Christe eleison.
L'Enfant

Christe eleison.
Le Prêtre

Kirie eleison.
L'Enfant

Kirie eleison.
Le Prêtre

Kirie eleison.
Le Prêtre

Dominus vobiscum.
L'Enfant

Et cum Spiritu tuo.
Le Prêtre

Per omnia saecula saeculorum.
L'Enfant

Amen

A la fin de l'Epître, L'Enfant

Deo gratias.

Le Prêtre

Dominus vobiscum
L'Enfant

Et cum Spiritu tuo.
Le Prêtre

Sequentia sancti Evangelii, & c.
L'Enfant

Gloria tibi Domine.

A la fin de l'Evangile

L'Enfant

Laus tibi Christe.
Le Prêtre

Orate Fratres.
L'Enfant

Suscipiat Dominus hoc Sacrificium de manibus tuis ad laudem & gloria-
ra nominis sui, ad utilitatem quoque nostram, totiusque Ecclesiae suae
sanctae.

Le Prêtre

Amen.

Le Prêtre

Per omnia saecula saeculorum.
L'Enfant

Amen.

Le Prêtre

Dominus vobiscum.
L'Enfant

Et cum Spiritu tuo.
Le Prêtre

Sursum corda.
L'Enfant

Habemus ad Dominum.
Le Prêtre

Gratias agamus Domino Deo postro.
L'Enfant

Dignum & justum est.
Le Prêtre

Per omnia saecula saeculorum.
L'Enfant

Amen.

A la fin du Pater L'Enfant

Sed libera nos à malo.

Le Prêtre

Per omnia saecula saeculorum.
L'Enfant

Amen.

Le Prêtre

Pax Domini sit semper vobiscum.
L'Enfant

Et cum Spiritu tuo.
Le Prêtre

Per omnia saecula saeculorum.
L'Enfant

Amen.



Le Prêtre

Dominus vobiscum.

L'Enfant

Et cum Spiritu tuo.

Le Prêtre

Ite Missa est, ou Benedicamus Domino.

L'Enfant

Deo gratias.

Aux Messes de Requiem Le Prêtre

Requiescant in pace.

L'Enfant

Amen.

Quand les Enfans doivent recevoir le Sacrement de Confirmation, les Regens les y doivent preparer par des instructions particulières, & les mettre en état de repondre sur le Catechisme precedent. Ils doivent aussi instruire particulièrement sur le Baptême, dont ce Sacrement confirme la grace, & puis leur apprendre ce que c'est que la Confirmation.

PROFFESION DE FOY

Que les Regens feront entre les mains du Supérieur Ecclesiastique, en les approuvant.

Je crois de ferme foy tout ce que l'Eglise Catholique, Apostolique, Romaine croit & professe, je condamne & rejette tres-sincèrement toutes les Heresies & Opinions erronées, singulierement celles de Luther & Calvin, que la même Eglise à condamnées & rejetées: Ainsi Dieu soit à mon ayde, & ses Saints Evangiles, sur lesquels je jure de vivre & de mourir dans la profession de cette même foy.

Et ce entre les mains de

en presence de

temoins soussignez,

FAIT à

ce jour du mois de

KATEXIMAREN BIGARREN PARTIA,
besta gehienet eta Elizako
eginbide saintien ezagützeko,
heren urthian erran behar dena gure kristi legen aratuala

Oloronko gure jaun apezküpiak
manatü derikün bezala bere ordenanzez tit. 2. chap. 1.

Jarraikiten diala Trentako Konzilio jeneralra
Sess. 5 cap. 2. & sess. 24. cap. 4& 7.

Jinkoa miragarri da dohatsietan,
dio errege Dabitek bere psalmü 67.

Pauben,
Jerome Dupoux, inprimazaliaz egina,
1696



KATEXIMAREN BIGARREN PARTIA, besta gehienetan eta Elizako eginbide saintien ezagützeko

Athanase Belapeyre apez, Teolojian baxelier, Zuberoako ofizial, eta Sorhoetako erretorak herri hontako erretor, bikari, eta Jinkoaren beldürti güzter grazia eta bakia direla ziek Jesùs-Krist gure Jauna ganik.

Badakizie ene aurhide üskaldünak, Elizak manatü derizkula bestak, bere haurren argitzeko; egia haur ardüra erran behar deriezien zien ardier zien prono, katekima, eta predikietan; hala nola urthe naturala bere saso- etan arrapartitu baita, berhala Elizako debozioniak ereñik bezala dira tempora arau; amorekatik hala erakats dezagün, Jinkoak zer egin nahi ükhen dian gure salbatzeko, eta gük ere hargana helzeko, zer egin beharrenik dügün.

Egiaz kristiek gogoa emaiteko balie, zertako diren bestak, saintuki bizitzeko iakin behar lütükienak oro, eta nori iarraikiteko dien, ikhas litza- keie. Honek berak iratzarri güty, bigarren katekima honen zientako egite- ra, amorekatik Franzia herri onsa xüxentü direnetan bezala, gurian ere frütü honak sor ditian graziaren indarrareki.

Hartako katekima honez labür erakatsi behar düzie bestakal, zer misterioak hoietan igaran diren, predikü lüzez beno ihikiago eta hobeki, zoin jente xehek enzün bezain sarri ahazten baitütie, zeren bortü arte hoietan gure laborari eta kabalezain gaxoak lanez akhitürik, hen espiritiak hain sortha eta lanpüts gerthatzen baitira, non haboroetan predikü handiek Elizan lehen lo eraziten baitütie, eziz iratzartzen misterio barnen har- tzeko. Arren jondane Paulek Korintako popüliari zioan bezala, *Lac vobis potum dedi, nom escam*, ezne edatera emaiten deriziet, eta ez iate borthitz bat. Ziek ene aurhidiak zien ardier egia gorak goza erazi itzetzie eztiki, labür eta ardüra, hoien ikhastera Elizala jin eraziz.

Ardüra ere adin orotakoer gomenda izezie, katekima haur onsa eta üsü irakurt dezen, eta zihaureiek sogiozie besta saintietan gañen eginen dütüzien predikü goreni irazkiari bezala.

Azkenekoz zien ardier Zeluko bidia har erazi nahi baderiezie, eta honen aitzinazia, eztizeziela behinkoaz sobera gaiza erran, bena bai zon- bait ordüz ber egia berriz erran; hala hobeki enzüler sar dakitzen gogo- etara; orano hurak ützül hanitz aldetara. Oraiko Elizako artzain perestü eta iakinsienek egiten eta erakasten, derikien anzo. Eta sinhets nezazie,

ber artheliari minzatzeko bizi deno ezariak, hain labür izan behar diala, nola üsü haier erakastian. Haur eman da Mauleko hirian Apirillaren biga- rrenian urthe 1696.

Belapeyre, ofizial



Heren urthiaren azaroko lehen igantian

LEHEN KAPITÜLIA

**Igante Saintiaz,
parropia Mezaz,
eta hontako eginbidez**

GALTHOA: Zer da igante saintia?

IHARDESTIA: Haur da Jinkoak haitatü dian eguna, berheziki santifikatü izateko.

G: Zer da igantiaren santifikatzia?

I: Santuki haren igaraitia.

G: Igante hitz honek zer erran nahi dü?

I: Dio Jaunaren eguna; zeren haur güziz bere zerbütxuko ezarri baitü.

G: Zergatik diozü Jinkoak egün haur berheziki haitatü diala?

I: Zeren mündiaren hatsarretik, Jinkoak asteko egünak berhezi nahi-rik, hontako zazpi egünetarik bat haitatü baitü, berheziki santifikatü izateko.

G: Nozpait zoin egün haitatü zian?

I: Zazpigarrena, zoin hartakoz deitzen baitzen Sabatoa, edo pausütz-koa.

G: Zergatik Jinkoak manatü zian egün hora?

I: Orhit eraziteko, mündia sei egünetan egin ziala, eta zazpigarrenian gelditü zela bere lan orotarik.

G: Zer erran nahi dü pausü horrek?

I: Mündia osoki behar bezalako zela, eta etzela berririk deus egiteko.

G: Eta zer orano?

I: Jinkoak adelatzen deriküla, mündia ürhentü datianeko, bethiko pausia. Hab. 4. v. 3.

G: Noren manüz egün haur igantiala ezari da?

I: Apostolu saintien eta Elizaren indarraz.

G: Zergatik egün haur haitatü die kristien pausiaren?

I: Jesüs Jaunaren hiletarik pitziaren, eta honlako egünian Espiritu Saintiaren eaixtiaren orhitzarretan.

G: Zer da beraz hoben Jinkoarenik?

I: Astekal egün baten Jinkoari emaitia, zoin Sabatoaren lekhütan, apostoliek igantia egin baitie, zoin baitzen asteko lehen eguna.

G: Igantia zoin egün üdüri eraziten derikü?

I: Mündiaren egitiaren lehen eguna, zointan Jinkoak egin baitzian argia.

G: Egün honek Bazko, eta Pentekoste üdüri eraziten dütia zerbaitetan, zoin Elizak bethi hontan orhit eraziten baterizkü?

I: Bai, zeren Jesüs-Krist bere hobitik elkhirik, mündiaren argia baita; etaigorri Espiritu Saintia, apostoliak argitü baitutü.



2. igantian

BIGARREN KAPITÜLIA

**Parropia Mezaz
Eta lehenik, pronoaz,
aitzineko 9 igantian erranez lekhora**

G: Egün honen santifikatzeko eta Jinkoari emaiteko, zer egin behar da?

I: Hontan egin obra onak.

G: Zoin da egün saintü hontan egin beharrago dügüna?

I: Meza saintiaren enzütia.

G: Zoin meza enzütekoago dügü?

I: Nork bere parropiakoa, lehen Elizako maniaren arau.

G: Zergatik hobe da parropia Mezaren enzütia, beste bat beno lehen?

I: Zeren parropia Mezala bilzen baitira lekhüko Jinkoaren haurrak zointan pronoa egiten baita.

G: Zer da pronoa?

I: Pronoak bi gaiza gehien dadüzka.

G: Zoin dira?

I: Lehena da Jinkoaz manatü den othoitzia, Elizako güzien, honen artzain, prinze, eri, desditxatü, eta haur beharretan diren ororentako.

G: Othoitza haur Jinkoari laket zaioia?

I: Bai, güziz algarreki artzañaz eta ardi bildü honez oroz egiten denian.

G: Zoin da pronoaren bigarren parte gehiena?

I: Errerorak honi iarraiki eraziten deritzon argiak.

G: Artzañak bere ardier emaiten deritzen eskolak Jinkoari laketago zaitzoia, eziz atzenak?

I: Bai, zeren arimen haxia egari behar dianarena baitira.

G: Zergatik orano?

I: Zeren haur baita Elizak manatü, eta gehiago, gomendatü diana: hontan ere haren maniak, bestak, barurak, eta beste Jinkoaren zerbütxükoak erakasten baitira.

G: Parropia Mezak badia orano zerbait Jinkoari laketago zaionik?

I: Bai.

G: Eta zergatik; ezteia ber Jesùs-Krist Jauna bardin Meza orotan Jinkoari ohereskatzen??

I: Haur egia da: bena parropia Meza gehiago da, hontara kristi güzien batziaz.

G: Zer dü honek hoberik?

I: Jinkoari algarreki othoitzen eskenzia, arthelin gañen ezari denaren ahoaz.

G: Parropia elizek zer beste hontarzün die?

I: Hoier dira ikhastiaren eta sakrementien üthürriak, non edireiten baitira kateximaren eznia, batheiatzia, krisma eta olio saintiak, eta urthekal Bazkoa egiten.

G: Zer da haboro parropia elizetan?

I: Kristien ehortzia ber ilherrian.

G: Horiek orok zer egiten die kristien batarzünian?

I: Haur da algarreki arrasortzia batheyiaz; ber üthürrikitik iakin beharen, eta sakramentien hartzia, eta hiletarki pitziaren ügürükitia.

G: Onsa ari deia, nork bere hiriko elizaren edertzeko, zerbait emai-ten diana?

I: Bai kristiak hetara ioaitera dei ditzen hobeki, hartakoz hurak xahü, argi, eta althariak eder eta ahalaz ohoratu üdüki behar dutie.



3. igantian

HIRURGARREN KAPITÜLIA

**Jesús-Krist gure Jaunaren bestez,
eta Elizaz haren misterio erakasten derizkünez.
Abentüko lehen igantiaren aitzinian erraiteko**

- G:** Zoin da daigün igantia?
I: Abentüko lehen igantia.
G: Zer deitzen düyü Abentia?
I: Tempora, zointan Eliza orhitzen baita Jesús Jaun ügürükien mündü hontara jitiaz.
G: Tempora saintü hontan zer darabila gogoan?
I: Gure aitzinekoen nahiak, zoñek hasperenez galthatzen baitzien mesia jin ladin.
G: Zer deitzen düyü Mesia?
I: Krist, edo Jaunaz berekatia, zoin sakratü baitü bere jinkotarzunaren barneko indarraz.
G: Elizak zer dü gehiago gogoan Jesús-Kristen jiten gañen?
I: Orano jondane Johane Batistaren predikatzia, zoñez bidiak adelatzen baireritzo.
G: Nola bidia adelatzen derio?
I: Penitenziaz.
G: Elizak ezkütia ere gure salbazaliaren azken jitiaz orhit eraziten?
I: Bai, ordian jinen da bizien eta hilen jūjatzena.
G: Zergatik mintzo da bigarren jingei honzaz?
I: Amorekatik, haren lehen jitiak zühörtzen eztapagüütü, zointan Jesúsek grazia ekhartean baterikü; beldür giren haren jüstizia boroga eraziren derikünaren.
G: Jinkoaren jüstizia garratzen lotseriak zertara eroan behar güütü?
I: Haren saintuki maithatzera.
G: Zer ikhasi behar dügü eskola hontarik?
I: Jesús-Kristen nahi ükheitia, eta honi penitenziaz bihotzen adelatzia.

4. igantian

LAURGARREN KAPITÜLIA

**Egüberriren aitzineko igantian,
bestan berian, eta ondokoetan erraiteko**

- G:** Zoin besta ohoratzen dügü daigün egün?
I: Egüberri.
G: Zer erran nahi dü Egüberrik?
I: Jesús-Krist mündü hontan sorthü den egün saintia.
G: Haren ama nor izan da?
I: Maria bethi birjina.
G: Zer dio honen bethi birjina izatiak?
I: Birjina zela erdi beno lehen; birjina erdzian; birjina erdi ondoan.
G: Zergatik Egüberriren bezpera gaia, bestiak oro beno ohoratiago baratü da?
I: Jesús-Kristen gaiaz sorthü izan nahiaren orhitarretan.
G: Zergatik sorthü da gaiaz?
I: Erakusteko haren jin aitzinian mündian ülhünbia zela.
G: Besta honek zer dü berhezirik beste ororen artian?
I: Zeren hontan hiru Meza erraiten baitira; bata gaiherditan; bestia argitzian; herena beste ordietako orenian.
G: Zeri gogoa eman behar da gaiherdiko Mezan?
I: Orhitü behar da Jesús-Krist barruki batetan sorthü dela, eta ezari aberen jantegi batetan.
G: Noiz itxura hontan güiziz sugin behar deriogü?
I: Apezak haren korpitz adoragarria hitz sakramental ezarten dianian, altharia eduki behar da jantegi hura bezala, eta Jesús-Krist adoratü.
G: Zer egin behar da bigarren Mezan?
I: Jinko haurra adoratü artzañeki, zoñi ainguriak erran baitzerien haren sor berria.
G: Zerk artzain saintü hoiek deithü zütian gure salbazaliaren sor lekhiak?
I: Zeluko müsika, eta kantore alagera batek.
G: Zoin kantorek?



I: Elizari hain ardüra Mezan erraitera laket zaionak, eta zoin Egübezriz boztario handiago bateki kantatü behar baita.

G: Zoin da haur?

I: *Gloria in excelsis*, zoñek baitio, Jinkoaren biz gloria lekhü goreneta, eta lürrian bakia eman bedi boronthate hon diener.

G: Heren Mezan zeri gogoa eman behar da?

I: Ama Birjinak mündü hontan sorthü dian Haur hori, bethidanik Jinkoaren semia dela.

G: Jinkoaren semia, eta Mariaren semia bere persona deia?

I: Bai; ber persona da gizon egiazko, eta Jinko hontarzün oroz bethe bat.

G: Zer erran nahi da gizon egiazko izatia?

I: Gük bezalako korpitz eta arima baten ükheitia, eta gure üdüriala engina, bekhatia salbü.

G: Zergatik haurtü izan nahi da?

I: Gure flakezia güzien egartzeko, eta onsa maithatü izateko.

G: Jesùs Krist sorthü deia behardün eta nekezü?

I: Bai düda gabe, barruki batetan sorthü denaz geroz, tempora bortitz batetan, khüña bat ohatzeko ükhen gabe.

G: Zergatik?

I: Gabeziaren, eta gaitz egarten guri erakasteko.

G: Zer ohore gure salbazaliaren egite eta berthüte zor deriegü?

I: Her irraikitia.

G: Nola gabeziari irraikiren gira?

I: Maithatzez jente beharrak, eta ez gaizak ezar auherretan, lehenago hurak eman eztienier.

G: Eta besta hontan nola behar dügü irraiki Jesùs Kristek egari dütian nekezier?

I: Herabe gabe; ez hotza gatik ere hutsik egin ioaitera haren zerbütxü saintietara.

G: Nola adelatü behar dügü besta hontara?

I: Konfesione hon batez onsa xahaturik, sü gorri bateki Jesùs Jauna harturik, hari Jüdiek egin etzerien beno batzarre hobiagoreki.

5. Igantian

BOSTGARREN KAPITÜLIA

Zirkonzisioniarenen bestaz,
eta urthatsez

G: Zoin besta dügü daigün eg?

I: Zirkonzisionaren besta.

G: Zer zen zirkonzisionia?

I: Lege zaharreko sakramentü bat, zoñek sartzia emaiten baitzian Jinkoaren populiaren artiala, orai batheyiak Elizala sar eraziten gütian bezala.

G: Zirkonzisionia nori eman izan da?

I: Abrahami; Jinkoak hareki eta haren ondokoeki Alianza egin ziaren zeñharetan.

G: Zirkonzisioniak zer berheziki zeñharatzen zian?

I: Jente güzien zaña theyü zela.

G: Nola theyü?

I: Bekhatü orijinalaz.

G: Zergatik Jesùs-Kristek saintü zelarik, Zirkonzisionia hartü nahi ükhen dü?

I: Erakusteko gure bekhatien gaztigiaren egartera, eta hen xahatzera, jin zela.

G: Zergatik Jesùs-Krist hasi da haurzaroan bere odolaren isurtzen?

I: Erakusteko, bere odolaz gure ükhüzteria jin zaiküla.

G: Egün hartan zer egin zien orano?

I: Jesùs izena Jinkoaren semiari eman zeren.

G: Jesùs izen honek zer dio?

I: Salbazalia erran nahi dü, eta Jinkoaren semiari eman zaio, zeren gure bekhatietarik idokiten baikütü.

G: Jesùs izenak zer ohore merexi dü?

I: Etzaio aski ohore emaiten ahal, izen handi honen enzüliak oro Paradüsian, lürrian, eta Ifernian belharikatzen direnaz geroz. Philip. ij. v. 10.

G: Gure salbazaliaren zirkonzisioniak zer erakasten derikü?

I: Gure bihotzaren ebakitia, diot nahi gaistoen muztia, güziz gure sendimentien sentherietara dütigün erortokien.

G: Besta hontan zer egin behar da?

I: Daigün urthia oro Jinkoari ohereskatu, eta haur orhoi, haren zerbütxian igaran dezagün.



6. igantian

SEIGARREN KAPITÜLIA

Aparizioren aitzineko igantian. Besta hontan ere erraiteko

- G:** Zergatik daigün egü. besta hain handi bat dügü?
I: Aparizio delakoz.
- G:** Zer deitzen düzü Aparizio?
I: Jesús-Krist gure Jaunaren ager erazitia.
- G:** Zergatik bestya horri izen hain edre bat eman derie?
I: Zeren Elizak hortan hirur misterio handi ohoratzan baitü, zoñek Jesüsen goratarzuna erakuts erazi baitie.
- G:** Zoin dira hoik?
I: Hirur Errege zühürren adoraziona: Jesús-Kristen batheiatü izatia Jondane Johane Batistaz: eta haren lehen mirakulia, huretik mahatsano egin zianian Kanako ezteitan, Galileako herrian.
- G:** Zer ziren hirur maje deithü hurak?
I: Hirur jaun handi izarren onsa ezagützale ekhia iaikiten den herrian zaudianak, zoin errege deithü baitira.
- G:** Hurak etziren beraz Jinkoaren popülükoetarik?
I: Ez: pagano ziren.
- G:** Zergatik Jinkoak bere semiaren adoratzera deithü zütian?
I: Erakusteko; ordü hartan paganoek haren ezagützia behar ziela.
- G:** Nola Jesús zen eretziala hel erazi zütian?
I: Izar batez.
- G:** Non ikhasi zien profezien arau Jesüsek Betleemen izan behar ziala?
I: Jerüsalemeko hirian, zointan baitzagoan ordian gehienki egiazko Eliza.
- G:** Hirur erregek zer egin zien Jesús haurra ediren zienian?
I: Adoratü zien, eta hari ohereskatü ürhe, inxensü, eta mirra.
- G:** Zergatik hirur dohain horik?
I: Errege batí bezala ürhe eman zerien: Jinko bat bezala inxensü; eta gizon bezala mirra, honen egün batez ehortzi behar geiaren ohoratzeko.
- G:** Judioak ere jin zirena haren adoratzera?
I: Ez: eta hura zen haien ütsüeri geiaren zeñhare bat.

G: Baia Herodes Jerüsalemeko erregia?

I: Honek alegia egin zian hura adoratü nahi ziala, bena etzian gogoan Jesüsen salha erazi nahia baizik, haren hil eraziteko.

G: Herodes zer üdüri da?

I: Ipokritak, zoñek Jesús adoratü nahi diela ürüpen egiten baitie bena hura bereietan ezaba kürütxian berriz itzatten die egite gaitzez.

G: Besta hortarik gozo hartzeko, zer egin behar da?

I: Jesús Jauna gana hel eraziten gütian izarrari bethi iarraiki, diot haren ziaren deitzia.

G: Eta orano zer besterik?

I: Sobera jan eta edatiaren lekhütan, hari egin merexi dütian oheresiak.

G: Nola?

I: Behar gaxoen eretzian, hoier honki egitez.



7. igantian

ZAZPIGARREN KAPITÜLIA

**Aparizio ondoko Iganteko,
Jesü-Kristen batheyün gañen;
eta hurez mahatsano eginaz**

G: Erran zenerikün igaran eguna erregeren adoraziona beno lehen, Elizak orano ohoratzen zütiala beste bi misterio, zointan Jesü-Kristen indarra ageri baitzen, zoin dira hoiek?

I: Bata da Jesü Jaunaren betheiatü izatia.

G: Zer adin zian batheiatü izan zenian?

I: Hogeい eta hamar urtheren üngürünia.

G: Nork batheiatü zian?

I: Jondane Johane Batistak.

G: Batheyiak zer zeñharatzen zian?

I: Penitencia, eta bekhatien parkamentia erran nahi zian.

G: Jesü-Kristek batheiatü beharra ziana?

I: Ez; hura saintütärzüna bera zenaz geroz.

G: Zergatik beraz batheiatü nahi izan da?

I: Bekhatiaren itxuraren ekharteko zoñen xahatzera jiten baitzen.

G: Zergatik orano?

I: Batheyiaren ezarteko saintifikatzeko.

G: Zer heltü zen Jesü Kristen batheyiaren ohoratsiagorik?

I: Gañeko minzo bat zoñek baitzioan, haur da ene seme maitia, zointan onsa laketü bainiz.

G: Zer igaran zen gehiago ordian?

I: Espiritü saintia jaitsi zen Jesü Kristen gaña, urzo batenm üdürían.

G: Zergatik hala?

I: Jesü Kristen emetarzünaren erakusteko.

G: Gaiza hoiek orok zer zeñharatzen zien?

I: Batheyian: Jinkoatan diren hirur personen batarzüna, eta agertzia.

G: Nola hori?

I: Aita ageri da minzatzian; Semia berartan; eta Espiritü Saintia urzaren üdürían.

G: Zoin da orhitzen zaikün beste mirakulia?

I: Hurez mahatsano egitia Kanako ezteietan, Galileako herrian.

G: Huraren mahatsanoala ützülze honek zer zeñharatzen zian?

I: Erran nahi zian Moisaren legiaren ützüzia gure Ebanjelio saintiala.

G: Zer beraz zeñharatzen zian mahatsanoak?

I: Jinkoaren haurrek Jesü-Kristen graziatik jiten zaien alageranzia espirituala, eta gar saintia.

G: Mirakülü honek nola ager erazi zian Jesü Krist?

I: Zeren haur baitzen haren lehen mirakulia, eta ordian haren disipuliek hartan sinheste hartü baitzien, Jondane Johaneren Ebanjelioak dioan bezala.

G: Hanbat gaiza miragarriren ohoratzeko, zer egin behar da?

I: Orhitü gure batheyiaz, eta hartan Jinkoari hitz emanak berritü.

G: Nola hori?

I: Berriz hitz emaiten gogo honez Jesü-Kristetan sinheste oso batükhen nahi dügüla.

G: Eta zer gehiago?

I: Mündüko gora behera güziak üzten dütgüla, bizitze gaistoak, eta gañelako Debriaren aholkiak.



8. 9. eta 10. igantian

ZORTZIGARREN KAPITÜLIA

**Jesús-Kristen biziute estaliaz bere ama Birjina,
eta Josef saintieki Aparizioren ondoko
bigarren, heren, eta laur igantetan erraiteko,
hanitz merexi dialakoz**

G: Erran itzagüü Jesú斯 Kristen bizi hatsarrian agertü ziren gaiza miragarriak.

I: Aingüriek haren sortziaz Jinkoari esker handiak eman zeritzen; artzañak jin ziren khüñala, haren adoratzera; Erregek hara ekharri zeritzen bere ikuhs garri ederrak; eta Elizala eroan zienan, Simeon eta Anna alhargün saintiek hura maiteki ezagüü eta ohoratu zien.

G: Zer gero heltü zen?

I: Han hasi ziren haren desditzak eta haren askaziak bortxatü izan ziren haren eroitera Ejiptarat.

G: Zergatik?

I: Herodes khxiaren ihesi, zoñek hil erazi nahi baitzian.

G: Zergatik Jinkoaren haur honek khüñatik hasi behar zian hala gaitz hartzen?

I: Zeren kürützia baitzen haren siratsa.

G: Herodesen gaizki egin nahiak nola jakin zütien?

I: Aingürü batek hurak salhatü zeritzon Josef saintiari amets batetan eta hura manatü zian, Herodesen eskietarik itzur ladin Ejiptarat.

G: Eta zer, Jinko haur honek bere askazier etzerien beraz gaitz bei-zik eretxekiten?

I: Maite dütianak bere kürütxiaren egarle lagün nahi dütü.

G: Noiz ützüli zen Ejiptarik?

I: Herodesen hil ondoan, ainguriak Josef saintia manatü zian, Israeleko herrialat hura arrekhar lezan.

G: Egon zena Jüdean?

I: Ez; lotsaz Arkelaus Herodesen semiaren, zoñek haren eretzialat bere aitaren gogo gaistoa begiratü baitzian.

G: Haur honek beraz bethi etsaiak ükhen zütian?

I: Bai eta etsai handiak, eta erregiak.

G: Non egon zen?

I: Nazaret Galileako bürgian bere askazieki.

G: Lehen tempora haiez geroz etziana deusek jakin erazi Jesú斯 Kris-ten jitia?

I: Ez batek ere, hamabi urthe zütükiano.

G: Adin hortan zer heltü zaion?

I: Jerüsalem era joanik bestaren ohoratzera Mariareki eta Josef bere hatzaliareki, itzuri zaien aitzinetik zoin gero Elizan ediren baitzien.

G: Zer ari zen han?

I: Jarirrik zagoan jakinsien erdian, her beha eta galthoz: haren zühür-tziak eta ihardeste ederrek güziak izitzen zütiela.

G: Hitz hoiek zertzaz orhit eraziten zütie?

I: Jesú斯 Krist han ari zen bezala, haurrek ere gure elizetan katexima onsa erran behar diela, jakinsier beha, batak bestiari galtha, eta ihardets.

G: Zergatik beraz Jesú斯 jakinsien erdian jarirrik zagoan?

I: Zeren egiaz hen bürzagia baitzen, zonbat ere ezpaitzian orano bere ahal güzia erakusten.

G: Zergatik Jesúsek hamabi urthetan ager erazi nahi ükhen zian bere zühürtzia?

I: Erakusteko, ordian drano ezaba eta gordez bizi nahi izan zela; hala nahi izan zelakoz.

G: Zonbat egon zen ezaba?

I: Hogeい eta hamar urtheren üngürünia zütükiano, eta hura Jondane Batistak batheia artio.

G: Hara drano ihurk zer zakian hartzaz?

I: Deusere, baizik adinetan aitzina, zoen bere zühürtzia bethi gehia-go erakusten ziala.

G: Zer da orano Jesú斯-Kristez izkiribatürük?

I: Bere aita eta amen maniak onsa begiratzen zütiela.

G: Eta zer orano?

I: Josef saintiareki langiten ari zela, eta ofiziale baten edükiten ziela.

G: Zer ofizio egiten zian?

I: Maiastürügoa.

G: Hala Jinko batek merexi ziana bizi?

I: Bai, jente güziak eskolatzen dütianaz geroz.

G: Horrek zer erakasten derie?

I: Jinkoak zerbaitetara deitzen gütianian baizik ez agertzia: gañelan bizitze, nekezü, estali, eta behera batir jarraikitia.

G: Haurrer güziz zer erakasten derie?



I: Hen berthüte ederrena dela, bere aita amen, askazi eta gehienen manü pian bizitzia.

G: Eta zer orano?

I: Elizala ardüra joan behar diela; han bere artzañer onsa behatü, eta galtheroer ihardetsi.

G: Noiz egin diroie?

I: Kateximaren erraitian.

G: Han behar direia ere galthatü?

I: Bai, eztakitzeten ikhasteko.

G: Hortik zer jinen da?

I: Jesús-Krist bezala adinian eta zühürtzian bethi aitzinatüren dira.

G: Jesús-Kristek haurzarotik etzian zühürtze oso bat?

I: Bai düda gabe, bena egünetik egüniala hura hanbatenaz ager erazi dü; haurrer erakasteko bethi agüdotiago behar diela.

G: Ama Birjina nola bizi zen?

I: Jesús-Krist bezain ezabaki.

G: Zer ari zen?

I: Jesüsen egiter, eta harez erraiten zütiner gogoa emaiten zian.

G: Beraz Jesü-Kristen etxekoan saintütärzuna zertan zagoan?

I: Legiak manü egin zerien ordietan elizala zabilzan; Jinkoa orotan zerbütxatzan; bere laner jarraikiten, eta ezaba bizi ziren.

G: Horietarik orotarik zer ikhasten dügü?

I: Egiazko saintütärzuna ezuela, herots handitako gaizen egitia, bena bai nor bere eretzian berthütez beheratzia, eta bigabiaren emeki egartia.

G: Bena zergatik ebanjelistik hain güti erraiten derikie Jesü-Kristez eta haren etxeko saintiez?

I: Guri erakasteko, aski dioie: eta hain sarri ikhasten derikie, eztügula behar iarraiki gaiza soberari.

G: Zer iakin behar dügü?

I: Dakitzagünetarik gozo hartzia, eta gañelan eztakitzagünetan ixil egoitia.

11. igantian

BEDERATZÜGARREN KAPITÜLIA

Septuajesimaren iganteko

G: Tenpora saintü hontan berheziki zeri gogoa emaiten düüzü?

I: Ez tirela orai erraiten kantore alagerak, zoin baitira Alleluya, Gloria in excelsis, Te Deum, eta kolore bioleta elizak hertzen diala.

G: Zergatik horik?

I: Dolü eta hasperen zeñharetan, bi arrazogatik.

G: Zoin da lehena?

I: Egün hoiek üdüri eraziten derizkie Adamen egünak, eta hura nola bizi izan zen, hasten gira elizan irakurtzen.

G: Zer erran nahi düüzü Adamen egüneuz?

I: Dolützko eta penitenziazkoak, nola baitira bekhatorek eta esterratierek merexi dütienak.

G: Elizak zer beraz erakasten derikü ororen dolü honzaz?

I: Alageranziak, sobera ian eta edatiak, karataiskeriak, eta beste solazak ützi behar dütgüla.

G: Zergatik?

I: Haur hon elibatek bezala, gure ama Elizareki nigar egiteko; orhitürik gure salbazaliaren herio pasioniaz.

G: Bigarren arrazoa zoin da?

I: Gorozüma saintiaren onsa igaraitera adelatzeko.

G: Zergatik beraz ihor egün hoietan, beste ordiez beno gehiago, sobera jan edan, erhokeria eta gaiza debetatier senthatuki iarraikten da?

I: Horik oro dira Deeibriaren xotileziak, Elizaren gogo saintien galerazi nahiz.

G: Zer gaitzak orano egite gaisto hoietarik jiten dira?

I: Baruraren huntarzünaren, eta kristiek Gorozüman beste obra hon egin ahal litiroien ororen bidia hausten die.

G: Elizaren gogoari iarraikiteko, zer egin behar da Ihauterian?

I: Lehenik joan elizala gogo honez Meza saintiaren enzütera; han egon lützaz ago, Jesü Jaunaren bihotzez lagünzeko, besten haboroek ahazten dieno.

G: Eta zer orano?



I: Ützi jokiak, apairü handiak, karataiskeriak, danzak, eta gañelako gaiza debetatiak. Eta adiskidegoaz, edo ihes ezin eginez, hetarik zonbaiten ihor helzen bada, beste ordiez beno zühurrago eta emiago agertü behar dü.

G: Karataits lasterkariak nor üdüri dira?

I: Indioak, eta soldado Jesús Jauna bilaizi zienak, zoñek begiak thapatu baitzeritzen, eta hilzerakoan hari egin mesperetxü hanitz.

12. igantian

HAMARGARREN KAPITÜLIA

**Gorozümako lehen igantian
Iesús-Krist erakutsi behar desertian:
edo Ninibako hiriaren barura eta dolia**

G: Gorozüma nontik da?

I: Apostoliek haur hatsarretik manatü die.

G: Zergatik?

I: Semiaren bizitziaren bereberki ohoratzeko, zoin barurtü baitzen desertian berrogei egünez.

G: Zergatik orano?

I: Gure bekhatiez penitentzia egiteko barurez eta bezte gaztigiez.

G: Zergatik orano?

I: Gure zalbazaliaren herio pasioniaren hobeki ohoratzeko, eta Bazko bestetara adelatzeko.

G: Elizak zertara eroan nahi güütü Gorozümaren baruraz?

I: Egiazko baruriala, eta gaitzeturik gibelziala.

G: Zoin da haur?

I: Bekhatiari ihes egitia.

G: Zeri orano?

I: Jokü, tempora galze, eta solaz debetatier.

G: Elizaren gogoan Gorozümaren onsa igaraiteko, zer beraz egin behar da?

I: Jan edanak, loa, eta solazak hertü; hobeki Jinkoaren othoitzeko.

G: Kristiek nola igaraiteko die Gorozüma?

I: Barur, othoitz, eta jente beharrer, beste ordiez beno gehiago honki geiten; lagün saldoer ihesi; gure ogenen ezagütziaz ahalketurik, zoñek hil erazi baitie Jesús Jauna.

G: Barurtzera zoin dira bortxatü?

I: Hogeい eta bat urthiak igaran dütienak oro, egiten ahal badie.

G: Hel eztitakanak barurtzera, arras igaran ditakia mortifikatü gabe?

I: Ez; eta ahalaz sarthü behar die Elizaren gogoan, zerbait berer herzen diela.

G: Zergatik Gorozüman kürützia, imajinak, eta althariak estaltzen dira?



- I:** Dolü eta penitencia zeñharetan.
G: Kristiak beraz zer sendimentü ükhen behar dù Gorozüman?
I: Bihotz uruski, hasperen saintü, zinezko penitencia bat: baita Jin-koaren hitzari behatü sinheste oso bateki.
G: Zer orano?
I: Ofizio saintetara joan, eta hetan Elizareki hasperen egin ixilik.
G: Eta zer orano?
I: Batbedera adela onsa kofesatzera ordü honez, egon gabe berant, eta Bazkozko lehietrano.

13. igantian

HAMEKAGARREN KAPITÜLIA

**Pasioniarengan
Erramü Bestako**

- G:** Zer besta dügü elizan daigün igantian?
I: Erramü.
G: Zergatik daigün igantia deitzen die Erramü?
I: Egün hortan egiten den prozesioa gatik zointan batbederak erramü adiska bat eskian baitadüka.
G: Prozesione hori zergatik egiten da?
I: Orhitzeko Jesús Jaunaren Jerüsalemera ohorez sartziaz, bere herio Pasionaren sei aitzineko egünin.
G: Gure salbazaliaren hilzerakoan ohoratze honek zer zeñharatzen dü?
I: Bere hilziaz Deebria, Mündia eta aragia goithüren zütiala, eta Paradisia idekiren zeriküla.
G: Jesús Jaunari nor elkhia zaion aitziniala?
I: Jente xehiak eta haurrak.
G: Zergatik?
I: Zeren arima eme eta xahien laidorioak maite baitütü.
G: Nolaz Jerüsalemeko handiak eta lege zaharreko gehienak etzaitzon elkhia bidiala?
I: Hen ürgülliak etzian merexi parte ükheitia Jesús Jaunaren ohore egün hartan.
G: Zer beraz egin behar da hartara parte ükheiteko?
I: Hura bezala eme izan, eta bihotza beheratü.
G: Zergatik Jesús hara sarthü zen asto baten gañen?
I: Profezien egiati hel eraziteko; eta guri gal eraziteko gora izan nahiaren.



14. igantian

HAMABIGARREN KAPITÜLIA

Erramü igantian erran behar da Aste Saintuko

- G:** Nola deitzen da daigün astia?
I: Aste Santia, eta penazkoa.
- G:** Zergatik hala daritzo?
I: Hontan Jesús Jaunak gure arrerostiaren misterio handia egin, eta lan handiak egari dütialakoz.
- G:** Astizkenian zer heltü da?
I: Egün hortan gure salbazalia hogei eta hamar dineren Jüdas bere diszipüliak jüdier saldu zeren.
- G:** Ostegünian zer egin izan zen?
I: Gure salbazaliak ülhünzian bere apostolier hoñak ükhüzi zeritzen, eta bere korpitz saintia sakramentü izateko eman.
- G:** Jesús Jauna noiz jüdier eskietara eman zaien?
I: Ostegün gaian Jüdas jiten zela haren korpitz saintiaren errezebitzak, Olibetako baratziala, ohorez egiten den bezala, Jesüsi pot bat egin zerion, honen zeñharatzeko bereki eroan zütian soldadoer, amorekatik hura hartürük esteka lezen hala egin zien bezala.
- G:** Jesús-Kristek gai hartan zer soferitu zian?
I: Gaizki egile bat bezala eroan zien Anna, eta Kaifaren aitziniala, zoin baitziren apezen gehienak: Jondane Petirik hiruretan ükhüti zian etziala hura ezagützen: haren diszipüliak ihesi joan ziren, eta gai orotan soldadoen mertxedian ützirik, hoiek bere ahalaz mesperetxatu zien, haren izan saintia arnegatü, hura xuflestatü, eta harez erri hanitz egin.
- G:** Ostiralian zer heltü zen?
I: Jüdiek goiztiritik aküsatu zien Pilataren aitzinian, zoin baitzen Errümeko Enperadoriaren Gobernadore Jüdeako herrian. Pilatak hura igoり zian Herode gana: zoñek bere kortekoeki erho baten hartü baitzien; gero Herodak arregorririk Pilata gana, azotatu izateko soldadoek ezin borthizkiago odola isur erazi zeren azote khaldiz.
- G:** Azotatu zien ondoan, zer egin zien?
I: Soldadoek eskarlatazko manto batez estali zien; bürün gañen ezari zeren elhorrizko khoroa bat, eta kanabera bat eskian; salütatzen ziela

errigarri bezala, komediako errege baten anzo. Bera orano sordeits jüdiek Pilatari Jesús hilzera kondemna erazi zeren, eta desditxatū honek hala egin, hen gogara izateko.

- G:** Jesús-Krist hala kondemnatü ondoan, jüdiek zer egin zien?
I: Kürütxe sortha bat bizkarrian ezarri zeren, eta hala hura eroan Kalbarioko mendiala, non hura pikarraitürük bi ohoñen artian itzatü baitzien kürütxe hartan gañen.
- G:** Hilze laido garri honek hen errabieria ase ziena?
I: Ez: beste gaizki hanitz ere egin zeren: Jesüsek erranik, egarri zela; ozpin edateko eskentü zeren.
- G:** Jesús-Kristen egarriak zer zeñharatzen zian?
I: Gure salbatzeko sü handi baziala.
- G:** Eta haren nahiari jarraikiten ezkirenian?
I: Haren etsai eta erhailek bezala ozpin emaiten deriogü.
- G:** Jesús-Kristen hilzerakoan zer heltü zen?
I: Ekhia arras gordatü; lürra bortizki ikharatü, arrokak erdiratü; eta hilen hobiak ideki ziren.
- G:** Eta zer orano?
I: Hil hanitz piztu eta jenter agertü; Elizako ere beloa goihenetik zola lano zatikatü.
- G:** Zer zen Elizako belo hura?
I: Estalgi Xerübinez pintatü bat, zoñek eretze saintena berhezten baitzian Elizaren gañelatik.
- G:** Beloaren hauste hark zer zeñharatzen zian?
I: Zelia, zoin baita egiazko lekhü saintia, zointan baitago Jinkoa bere handitarzünareki, ideki zaiküla Jesús Kristen hilziaz.
- G:** Zergatik Jinkoak mirakülü hoiek oro egin dütü bere semiaren hil orenian?
I: Amorekatik güziak jakile izan litian jüdien kontre.
- G:** Eta gure kontre ere jakile izateko?
I: Bai Jesüsen hilzetik gozo idokiten ezpadüğü.
- G:** Hontarik gozo hartü zienek zer egin zien?
I: Bere bulharrer kolpü emaitz zoatzan, eta oihuz: haur egiaz Jinkoaren semia zen.
- G:** Noiz gihaurtan sendimentü hoiek piztu behar dütü?
I: Kürütxiaren adoratzera jitian.
- G:** Zergatik?
I: Zeren ordian bat bederak ezagützen baitü Jinkoaren egiazko seme bakhoitza dela, kürütxian itzatü izan dena.



G: Ezta beraz kürütxiaren materia adoratzen?

I: Jinkoari eztatsala.

G: Nori doa adorazione hori?

I: Jesús Krist Jinko biziaren semiari.

G: Hori nola hartzen düzü?

I: Jondane Paulek dioan bezala, Jesús-Kristen kürütxian ezarten diala bere gloria; erran nahi dü hura Jesús-Krist krüzifikatian ezarten dala.

G: Gure salbazalia hil zenian, zer egin zerien?

I: Soldado batek iskerreko saihetsa igaran zerion lanza batez, eta hain sarri odol eta hur hantik elkhiten ikhusi zerien.

G: Jesús Kristen saihetsetik elkhi diren odol eta hur haiak zer zeñharatzen die?

I: Batheyia: zointan haren Eliza bere salbazaliaren odolian ükhüzi baita, eta hur saintü batetan.

G: Jesús Krist nola ehortzi zen?

I: Hil zen eguneko ülhünzian, Josef Arimatia aitürünsemiak, eta Nikodeme Farisien Jinkoaren beldürti zenak kürütxetik eraitsirik, mihiše eder batez estalirik ohoratuki ehortzi zien, eta hura ürrin hon batzieki, harriz egin hobit berri batetan ezari.

G: Neskenegün saintian zer egiten da Elizan?

I: Bazkozko xirioaren zeremonia saintia; eta Batheyüko huren benedikziona; zoin zeremoniak oro misterioz bete baitira.

G: Beste ordüz noiz egiten ziren?

I: Neskenegün gaian, zointan Jesús-Krist hobitik elkhi baitzen.

G: Bazkozko xirioak zer zeñharatzen dü?

I: Jesús-Krist arrapiztiak mundiala ekhartenten dütian argia eta boztagria.

G: Zergatik batheyüko hura benedikatzen da?

I: Erakusteko zonbat berthütez bete den.

G: Aste honen onsa igaraiteko, zer egin behar dügү?

I: 1. Hobeki barurtu; 2. bereberago bizi; 3. kofesa ahalik sarriena; 4. joan Tenebroak deitzen diren hirur egunetako ofizio saintietara; 5. Ostirale Saintian kürütxiaren adoratzera, eta gure salbazaliaren zauriak sendi, zerbait soferitzten dügüla; 6. gaiza hoiien ororen egiteko Elizaren gogoan, bethi gihaurtan igaran pasioniaren misterioak hirur egun hoietaan, eta otoitz ondoan, dakianak irakurt zerbait sainturik.

15. Igantian

HAMIRURGARREN KAPITÜLIA

Bazko besta saintietako

G: Egün zoin besta dügü elizan?

I: Besta orotako handiena, zoin deitzen baitügi Bazko, eta zoñek hanbat merexi baitü, non bihar eta etzi orano begiratzen baita, eta bestorduz zortzi egün iraiten beitzian.

G: Elizak zer misterio ohoratzen dü egün saintü haietan?

I: Jesús-Krist gure Jaunaren hiletarik pitzia.

G: Zer erran nahi dü hiletarik pitzia?

I: Haren arima eta korpitza berri algaganatzia, zoin herioak berhezi baitzütian.

G: Nork ikhusi dü Jesús-Krist arrapitztük?

I: Emazte saintiek, bere apostoliek eta bostetan ehün beno haboro hartan sinhesti hartü zienek.

G: Nola borogatü zerien bere arrapitzia?

I: Heki jan zian, eta elhestatü zen bere korpitza honki erazi, eta hen eskiak bere zaurietan ezar erazi zeritzen.

G: Alleluya hitz honek zer erran nahi dü, zoin hain ardüra egün saintü hontan erraiten baita, eta ondoko Jinkoaren zerbütixetan?

I: Dio Jinkoaren direla laidorioak, eta hura zen alageranziazko oihu bat Jinkoaren Populiaren artian.

G: Zergatik beraz hain ardüra arrerraiten da?

I: Boztario zeñharetan.

G: Eta zergatik tempora hontan Jinkoa züti ohoitzen da?

I: Alageranzia ere zeñharetan, eta Jesús Krist hiletarik, zütütü dela.

G: Zergatik besta haur, eta Bazkoko tempora güizia hanbat alageranziareki ohoratzen dira?

I: Zeren Jesús-Krist hontan ageri baita goithürük herioa eta bekhatia.

G: Zergatik herioa?

I: Zeren bizi baita, eta gehiago ezpaitaite hil.

G: Zergatik bekhatia?

I: Zeren garhaitzen baitü herioa zoin bekhatiak jin erazi baitzian.

G: Bazko etzena jüdio populiaren besta bat?



I: Bai; hura zen besta bat, zointan Jinkoaren popüliaren Ejiptarik elkitia eta solthüra ohoratzen baitzien.

G: Bazko hura zertyan üdüri da guria?

I: Zeren Jesús-Kristek arrapitzürük begiratzten baikütü hilze bethierokotik eta Ifernütik.

G: Bazko hitz honek zer erran nahi dü?

I: Dio Igaraitia.

G: Zer zeñharatzen derikü igaraite horrek?

I: Hala nola Jesús-Krist heriotik biziola igaran baita, berhala bekhatütik graziala igaren behar dügülä.

G: Diozünian, Jesús-Krist arrapitzürük eztela hilzen gehiago, zer horrik idoki nahi düzü?

I: Eztügula haboro bekhatürük egin behar.

G: Nola beraz ihork ezagütüren dü Bazko besta hontan egiazki arrapitzü denez Jesús-Kristeki?

I: Hastio eta üzten badütü ez solamens bekhatiak oro, bena bai orano hetara erortokiak, eta lagün gaistoak.

G: Nola orano?

I: Zeluko gaizer jarraikiten bada, eta ezdeusen edükiten aldepekoak oro, handikeriak, sobera agertü nahiak, plazerak; azkenekoz Jinkoaren gaizetan gozo hartzen badü.

G: Jinkoaren gaizetan gozo hartzia zer da?

I: Debozionaren, othoitziaren, parropiako zerbütxü saintiaren, predikaren, eta katemixaren maithatzia.

G: Baskoren tempora güzia zer sedimentütan igaran behar dügü?

I: Alageranzia espiritual batetan.

G: Nola?

I: Gozo hartüz bekhatien parkamentian, eta ügürükiten dügülä, Jesús-Krist bezala arrapitzüren girela.

G: Jesús-Krist bezala arrapitziaik zer erran nahi dü?

I: Haren glorian bizitzia arima eta korpitzian, parte hartzen badüğü haren penetan.

16. igantian

HAMALAURGARREN KAPITÜLIA

Saint Marken; eta Letheriñen aitzineko
igantetan orhit, errege Dabitek
othoitz handiak egin zütiala popüliarentako,
üzürriak hil eraziten zütianian;
Jinkoari galthoz hura bera gal erazi lezan,
2. Reg. 24. v.14. 15. &c.

Eta Dabitek orano hoñez popüli güziareki
ihes egin ziala Absalonis,
eta Jinkoaren azotiaren pian jarri

1. ARTIKÜLIA

G: Zer egiten da elizan Saint Markez eta Letheriñen hirur egünetan?

I: Prozesione, eta othoitz handiak egiten dira, zion deitzen baitira letheriñak.

G: Zer erran nahi dü Letheriña hitz honek?

I: Dio othoitziak, eta gomendiak.

G: Beraz leteriña hoiek zer dira?

I: Orok Jinkoari egiten deritzen othoitziak popüliari begiratzeko haren khexueritik, eta honi galthatzeko, benedika ditzan lurreko frütü aitzinatzan hasi direnak.

G: Zergatik bi gaiza horik algarganatzen dütüzü?

I: Zeren gosia, agorreria, eta hilzia jentetan eta aberetan algarri ardura jarraikiten direnak, baitira Jinkoaren azotiak.

G: Amatikatü behar dügia Jinkoaren khexueria?

I: Bai, eskandalooak emendatzen direnaz geroz: nork bere eretzian gaizki sobera egiten; eta Jinkoaren maniak oro ostiko petan erabilten.

G: Prozesionek nola ematzen die Jinkoaren khexueria?

I: Ogenen dolia, eta penitencia ager erazitenago dütielakoz, kharrika orotara eta kanpoetara iher doela, oihu egitera bezala, egizie penitencia, eta Jinkoari parkamentü eska zakitzoie.

G: Zergatik goatza eliztarik elizetara?

I: Orotan artekari saintiak ediren nahiz.



G: Zer egiten da letheriñetan?

I: Jinkoaren ematzeko zerbütxia ahal dakigün güzia.

2. ARTIKÜLIA

Letheriñak zer diren

G: Zergatik hasten dira letheriñak?

I: Orok algarreki galthatzen diela Jinko Aita, Seme eta Espiritu Saintiaren miserikordia: hori dioie hain ardüra erraiten diren hitz hoiek: Kirie Eleison, Christe eleison. Kirie eleison: Grekez: o Jauna egigüü mertxede! O Krist egigüü mertxede! O Jauna egigüü mertxede.

G: Gero zer erraiten da?

I: Bereber Jesús Kristi hersatzen gira, eranzün erazi behar gütianari bezala.

G: Zer diotsogü?

I: *Christe audi nos, Christe exaudi nos.* Dio Krist beha zakizkü; Krist emagüü.

G: Eta gero?

I: Deitzen dütüğü berheziki Jinkoatan diren hirur personak, Aita, Semia, eta Espiritu Saintia, zoin baita Jinko bakoitz bat: diotsogüla, *Miserere nobis.* Egigüü mertxede.

G: Letheriñen aitzinatzian zer diogü?

I: Ama Birjinaren, aingürü, patriarka, profeta, apostolü, martir, doktor, apezküpü, konfesor, apez, diakre, fraide, ermita, birjina, alhargün dohatsü, azkenekoz saintü eta sainta güzien othoitzer gomendatzen gira.

G: Zergatik?

I: Jinkoaren adiskide, eta Paradüsian diren ororen, gureki othoitzen sar eraziteko.

G: Zer erraiten deriegü?

I: *Ora pro nobis.* Othoi egizie guretako.

G: Gero zer diogü?

I: Arrützültzen gira Jesús Krist Jauna gana, zoin othoitzen baitüğü, gure salbatzeko egin dütiane oroz, begira gitzan gaitz güzietarik, güziz bekhatütik.

G: Zer diogü Jesús-Kristi?

I: *Libera nos Domine* Jauna begira gitzatzü.

G: Eta gero?

I: Elizako jabiak oro, eta Jinkoaren popülü güzia bakian, eta ditxa honian bizi ditian othoitzen düü.

G: Popüliak zer ihardesten dü?

I: O Jinkoa enzün gitzatzü, othoiez gautzü, *Te rogamus audi nos.*

G: Zer dioie, azkenzian hiruretan *Agnus Dei* erraiten dütögünek?

I: Hoiez othoitzen düü Jesús Krist Jinkoaren axuri mündiaren bekhatien xahazalea, behar dütögünak eman ditzagün, eta ogenak parka.

G: Othoitza haur nola ührnrnen da?

I: Hatsarrian bezala, Jinkoari miserikordia galdegitez.

G: Horik direia oro?

I: Ez. Apezak popülü güziaren izenian hitza hartzen dü, eta erraiten Pater noster: gure Aita &c.

G: Zer dio gero?

I: Jinkoaren othoitzeko ürgatz gitzan, erranik psalmü bat: apezak berriz Elizako behar ororen gomendiak egiten deritzo: eta popüliak ihardesten derio.

G: Eta azkenekoz?

I: Apezak Jesús-Kristen izenian, Jinkoari bere popülü güziaren galtzhoa eskenzen deritzo hanitz othoitzez, zoin ürhenzen baitüti gomendatzen deritzola biziak eta hilak.

3. igantian

Leteriñen bijiliaz, eta gañelatikoez

G: Zergatik eztügi jaten aragirik hirur letheriñetako egünez?

I: Othoitza ari girela, gure korpitzen hezteko.

G: Zergatik eztütügi osoki barurtzen?

I: Etzelakoz nozpait barur egiten Bazko tempora, alageranziazko tenpora zelakoz.

G: Elizak zer erakasten derikü hain handi diren othoitza hoiez?

I: Egiazko othoitziaren espiritua.

G: Othoitza hoiek aspaldikoak direia?

I: Bai zahar dira, eta popülia saldoz hetan zabilan, lana ützirik hetaera helzeko.



G: Zergatik beraz oraiko kristiek hain herabe die ibiltera letheriña eta prozesione penazko hoietara?

I: Debozionia arras hoztū zaielakoz.

G: Zergatik letheriñak egiten dira Salbatore bestaren aitzinexian?

I: Jesús-Krist Zelialat igaiten dela, üdüri da Elizak bere behar güziak gomendatu nahi deritzola, zren jenten artekaria baita Jinkoa ganako.

17. igantian

HAMABOSTGARREN KAPITÜLIA

Salbatorez

G: Zer besta dügü egüna?

I: Salbatore besta diot Jesús-Krist gure Jauna Zelialat igan den egüna.

G: Jesús-Krist etzena Zelian?

I: Bai han zen Jinko bezala Aita bethierekoareki, bena Zelialat igan da gizon bezala korpitza eta arimatan.

G: Nola?

I: Beraren indarraz.

G: Zer sinhesten düzü dela Zelia?

I: Dohatsien egongia.

G: Zergatik Jesús-Krist hara igan da?

I: Hasteko gozatzen bere Erresümaren.

G: Zergatik orano?

I: Gure lekhiaren han adelatzeko, eta gure abokatü izateko.

G: Jesús-Krist noiz igan da Zelialat?

I: Arrapitzü zenetik berrogei egünen ondoan.

G: Zergatik berrogei egün hurak üürgerki zütian?

I: Hanitz aldiz bere diszipüler agertuz segürtatü nahi baitztian, egiazki arrapitzü zela.

G: Ütsartetan non zen Jesús?

I: Ezta sori horren galthatzia, zeren Jinkoak ezpaiterikü ikhasi nahi ükhen.

G: Zelialat igan zen egünian zer egin zian?

I: Bere diszipülieki jan; lüzaz heki minzatü zen hurak Bethanialet eroan zütian, eta Olibetako mendiala, nontik Zelialat igan baitzen, hurak eskiak goraturik benedikatü zütianian.

G: Zer heltü zen ordian?

I: Hurak benedikatzen zütiala, emeki igan zen so zauskola bere diszipüliak, odee batek hen begier estal artio.

G: Eta haiiek zer ikhusi zien?

I: Orano gora so zaudiala, bi aingürü xuriz estalirik agertü zaitzen.

G: Badakizia zer erran zerien aingürü haiiek?



I: Etzela deusi gehiago sogiteko; eta Jesús egün batez agerriz Zelütik jinen zela, harat igan zen bezala.

G: Gero diszipüliek zer egin zien?

I: Jesús-Kristek manatü zerien bezala algarreki joan ziren Maria haren ama saintareki; eta ixil emeki ügürüki zien hitz eman zerien Espiritü Saintia.

G: Jesús-Krist nola dago Zelian?

I: Ohore eta indar handieki, Jinko bere aitaren esküñeko aldian.

G: Horrek zer erran nahi dü?

I: Oro egin ahal ditiroala Zelian, eta lürrian.

G: Misterio honek zer eragin behar derikü?

I: Gure bihotzak Zelialat gora erazi; handitarzunik ez nahi ükhen, Jesús-Kristek beria ager erazi dirogüno.

18. igantian

HAMASEIGARREN KAPITÜLIA

**Erraiteko Salbatore ondoko igantian,
baita Pentekostez eta honen bestetan**

1. ARTIKÜLIA Espiritü Saintiaren jaitstiaz

G: Eliza daigün igantian hanbat ohoratzen dian besta zoin da?

I: Pentekoste, zoin baita Espiritü Saintia jaitsi zen eguna.

G: Pentekoste hitz honek zer erran nahi dü?

I: Dio Bazkorik berrogei eta hamargarren eguna, zoin besta jüdiek ere hanitz ohoratzen baitzien.

G: Espiritü Saintia beraz noiz jaitsi zen?

I: Bazkorik berrogei eta hamargarren egünian, igante batez goizaneko bederatzü orenen üngürünian.

G: Jaitste hura nola egin zen?

I: Herots handi Zelütik jiten zen bat enzün zien bat batetan, aize borthitz batena bezala, zoñek bethe baiztian, diszipüliak bildürük zaudian, etxe güzia.

G: Zer heltü zen gero?

I: Süzko mihi elibat bezala agertzen ikhusi zütien, zoin berhezi baitziren, eta hetarik bat bederatan gañen baratü.

G: Jüdiek zer egin zien?

I: Jüdiek zoin mündüko eretze orotarik bildürük baitzaudian Pentekosteren ohoratzeko, Zelütik jiten enzün zien azanziala laster egin zien.

G: Zer ediren zien?

I: Apostoliak ediren zütien, zoñek Jinkoaren miragarriak ohoratzen baitzütien, eta bat bederak bere anzo minzo zirela enzüten zütian.

G: Apostolier beraz zer heltü zaien?

I: Zeluko sü haren agartziari bihotzak piztú zaitzen eta garrez bethe, orotan erraiteko Jesús-Krist arrapiztú zela.

G: Aitzinetik egin zian herots handi hark zer zeñharatzen zian?

I: Gure arimak Jinkoa maithatü beno lehen, harentako dian larderia saintia zeñharatzen zian.



- G:** Súzko mihi haietan zer erran nahi zien?
I: Argiz eta garrez bete ziren apostolien predikiak.
G: Espiritu Saintiak haietzaz zer zioan aitzinetik?
I: Hek mündü güzia argitüren eta gorthüren ziela; zeren bat bederak bere anzo minzatzen enzütén baitztutian apostoliak.
G: Eta hak zer erran nahi zain?
I: Ororen minzatziala Jesùs-Kristen Ebanjelioa predikatu izanen zela.

2. ARTIKÜLIA

Pentekoste, hitzaz, eta berrogei eta hamar egün garren honek zer dioan

- G:** Jüdiek baziena bere Pentekostia?
I: Bai: baziela lehen erran dügü.
G: Zer zen hora?
I: Bere Bazkoaren berrogei eta hamargarren eguna, zoin hendiki bere artian ohoratzen baitzien.
G: Zer heltü zen hen Bazkoaren berrogei eta hamargarren egünian, noiz Ejiptako erresümärik elkhi baitziren?
I: Egün harten lege izkiribatia eman zaien Sinai mendin gañen sü eta xilimisten artian.
G: Haur zertan üdüri da kristien Pentekostia?
I: Zeren lege berria egün hontan orori iakin erazi da, Jinkoa agererazi dian sü berri baten erdian.
G: Guri agertzen zaikün sü berriaren artian, zer da besterik Sinaiko süyan etzenik?
I: Batak emaiten zian lotseria; eta bestiak ematzen güty, Jinkoa ere maitha eraziten.
G: Jüdioak zer ari ziren Pentekostez?
I: Bere üztako primiziatarik egiten zütien ogiak Jinkoari ohereska- tzen zeritzen.
G: Zer deitzen dütüzie primiziak?
I: Lehen frutiak.
G: Eta horrek zer üdüri dü gure Pentekostereki?

I: Zeren Pentekostez, Espiritu Saintiaren jaitstiaz, eta Jondane Petiriren peredikatziaz gure Eliza sortzen berri zenaren primiziak Jinkoari ohereskatü baitzitzon.

- G:** Nola hori?
I: Hirur mila jenteren kristitziaz, zoñi hanitz besterik jarraiki baitziren.

3. ARTIKÜLIA

Elizaren hatsarrian Espiritu Saintiak egin dütian miragarriez

- G:** Elizaren hatsarreko kristiak nola bizi ziren?
I: Ezin saintukiago; eta orok etzien ber bihotz eta arima bat baizik; etzien ere bere artian deus berhezirik.
G: Nola?
I: Bere honak salzen zütien, eta hen balioa apostolien eskietara ekhaten, zoin hoiek bat bederari beharraren arau emaiten baitzeritzen.
G: Lehen kristiek zoin berthüte orano ager eraziten zien?
I: Jesùs Kristen izenaren amorekatik gaitz hanitzen egartian alageria zitaria.
G: Jinkoa nola adoratzen eta zerbützatzen zien?
I: Egün oroz bilzen ziren algarreki othoizteko, apostolien predikier behatzeko, eta Eukaristia sakratiaren hartzeko.
G: Orori beraz jente perestü ageri ziren?
I: Bai, bethi elizan algarreki Jinkoaren othoitzen ikhusten zütien, eta güziek maite.
G: Eta zer ikhusten zien miragarrienik?
I: Apostolietan heltü zen berritarzüna.
G: Zer zen hora?
I: Hain sortha eta jakite gabe ziren gizon elibatek hain goraki Jinkoaren barnia, eta eskritura saintiak erazagüt litzen.
G: Zer berrikeria orano heltü zen apostolietan?
I: Beldürtiak bihotztoitü ziren, jakile azkar izateko Jesùs Krist arrapiztü zela.
G: Eta bere erranak nola egartzen zütien?
I: Popülü güziaren aitzinan egiten zütien miraküliez.
G: Nola orano?



- I:** Bere buriak hilzera eta pena orotara eskenzen zütien, goraki egar-teko Jesús-Krist arrapitztûrik ikhusi, enzün, eta honki ziela.
G: Nork eman zerien indar hora?
I: Espiritu Saintiak hen bihotzeten Jinkoaren maitetarzuna piztûrik.

4. ARTIKÜLIA

Espiritu Saintiaren bethi Elizari jarraikitiaz

- G:** Espiritu Saintiak Eliza eztia ürgatzi bere hatsarrian baizik?
I: Ondoko zekuria orotan bardin egarten dü.
G: Zertan güziz Espiritu Saintiaren lana ageri da Elizan?
I: Eman derion indarrian, deusek hura garhait eztiroan.
G: Elizak zertan indar hori erakutsi dü?
I: Hirur ehün urthez emeki bere gaizki egilen egartian.
G: Elizaren indarra ezteia beste borogütan ageri?
I: Bai, haur gorazki ageri da hanbat heresiaren goitzian.
G: Zer deitzen dütüzi heresiak?
I: Jakite gaistoak, zointan ihor Jinkoaz erranari beno lehen, jarraikit-en baita bere ürüpenari, haur Elizak kondemnatûrik ere.
G: Espiritu Saintiak Eliza nola ürgazten dü orano?
I: Xahuki hitz egien, eta saintutárzunaren espiritiaren haratn bethi irain eraziz hanbat gaizki egileren artian.
G: Gaizki bizi direnen gaztigatzeko, zer egin behar da?
I: Ahalaz onsa bizi Elizaren hatsarrekoak bezala; emeki egar gaitzak; ber bihotza eta arima ükhen orok; iraiziz gure artetik bilhaka eta etsaigoa güziak.
G: Elizak bethi irañen dia?
I: Bai: eta Jesús Kristen hitzaren arau, eztie hura goithüren Ifernuko borthek.
G: Zer dira Ifernuko borthak?
I: Iferniaren indarra; eta honek dio tiran gaistoen borthitzarzunek ez heresiek, ez ere itxuski bizi direnek, zonbait bereberrek, ez eta Elizako zerbütxarieki, eztela haur jagoitik eragotziren.
G: Horiegatik orogatik Eliza bethi egiati eta sainta izanen deia?
I: Bai zinez.
G: Nola bethi egiati?
I: Zeren Jinkoak erran derizkün egiak bethi erakatsiren baiterizkù.

- G:** Nola bethi sainta?
I: Zeren bere hitz ssaintiez bethi sorthüren baitutu saintiak batarzün dianian.
G: Nork egiten dü mirakülü hori?
I: Haur pizten dian Espiritu Saintiak.

5. ARTIKÜLIA

Fediaren erakuste bat

Espiritu Saintiaren etezian, eta Elizan bethi bizi beharra

- G:** Espiritu Saintiaz eta Elizaz gañe hontan erran dütüznak sinhesten dütüzia zinez?
I: Bai, bihotz osoz sinhesten düt Espiritu Saintian; Eliza sainta katalika; eta saintien parteliant izatia.
G: Espiritu Saintia Jinko deia?
I: Bai, Aitareki eta Semiareki, Espiritu Saintia ber Jinko bat da.
G: Norkigorri dü egün?
I: Aitak, eta Semiak.
G: Zergatik diozü Aita eta Semiak haurigorri diela?
I: Zeren bietarik jiten bada.
G: Zergatik Espiritu Saintiaren landan, ezarten düzü Eliza?
I: Erakusteko, Elizaren ahala, saintutárzuna, eta indar güziak jiten direla Espiritu Saintia ganik.
G: Apostolietan nozpait bezala, Espiritu Saintia egiazko arima hontan dagoa?
I: Bai, hura dago jente perestietan, hoiek oro dira Espiritu Saintiaren egongia.
G: Badagoa ere Espiritu Saintia hen korpitzen?
I: Bai.
G: Hoiek zer zor derie?
I: Ez theyützia Jinkoaren egongiarene.
G: Jinkoaren egongia hori, zoin baikira gihaur, nola theyützen da?
I: Bekhatiaz.
G: Zoin bekhatuz gehiago?
I: Aragiaren likhisüráz.
G: Zergatik?
I: Arima eta korpitza algarreki theyützen dütialakoz.



19. igantian

HAMAZAZPIGARREN KAPITÜLIA

Trinitatiaren bestako

- G:** Egün zoin besta ohoratzen dügü?
- I:** Trinitate saintiarena.
- G:** Zer da Trinitate saintia?
- I:** Jinko bakhoitz bat hirur bereber diren personetan, Aita, Semia, eta Espiritü Saintia.
- G:** Nola ohora dirogü Trinitate saintia?
- I:** Maitetarzünez bat egiten girela algarreki, Aita, Semia, eta Espiritü Saintia izatez bat diren bezala.
- Katexima honi emenda ezazü Trinitatiaren misterioaz errana lehen partian, bigarren kapitülian.*

20. igantian

HAMAZORTZIGARREN KAPITÜLIA

Besta berriz Jesús Jaunaren korritz saintiaren ohoretan

Heben orhit, nola Dabid erregiak apezeki, lebiteki, eta popülü güzia-reki ohore handitan, Jinkoaren arkha eroaiten zian Obededomen etxera; gero berhala hantik Sioneko mendi saintiala, amorekatik hura egon ladin Dabid berak egin zerion Tabernaklian. 2. Reg. c. 6. Parapilo. c. 13.

- G:** Daigün ostegünian zoin besta ohoratzen dügü?
- I:** Althareko sakramentü saintiarena.
- G:** Zergatik Elizak prozesione hain ohoratü bat manatü dü egün hortan?
- I:** Bi arrazu gehienegatik.
- G:** Zoin da lehena?
- I:** Jesús gure Jaunari eskerren emaiteko, zeren apairü Jinkoaz egin bat, eta hain sakrifizio saintü bat bethiko eman baiterikü.
- G:** Zoin da bigarrena?
- I:** Ohoratzeko Jesús-Kristek bere Elizari eman derion indar handia-ren, sakramentü saintü honen etsaien goitzeko.
- G:** Egün hortako prozesionian nola ediren behar da?
- I:** Espiritü bildü bateki, begiak behera so, tortxo bat eskian, Jesús-Kristi egün hortan emaiten zaion ohoriaren zeñharetan, eta hain honki handi egin derikünaren orhitzarretan.
- G:** Hain honki handi baten Jesús gure Jaunari ezagütziaren emaiteko, aski deia egün hortako prozesionala, eta zerbütü saintiala joaitia?
- I:** Ez; bena orano zortzi erria diraiano, ahalaz Meza saintia enzün behar liate; eta eginian behin gütirena haren adoratzera joan elizala.
- G:** Zer gozo hartü behar da besta hortarik?
- I:** Misterio hori sinhets osoki, eta federeki erran ardüra, Jesús-Kriste Jauna sinhesten dizüt azkarki, zure korritz eta arimareki zirela altha-reko sakramentü saintian.
- G:** Zer egin behar zaio gehiago?
- I:** Dohain hain handi eman derikünaren hari eskerrak eman, eta haren aitzinian egon peretxü berhezi bateki.



HEREN PARTIA

**Andre Dana Mariaren,
eta hanitz saintüren bestetako.
Besta hoiez jeneralki**

Erretorek urtheko laur temporakal behin, haurrer katexima haur erran erazi behar derie, onsa ezagüt dezen, bestak zertako diren.

G: Saintien bestak zer deitzen dügü?
I: Jinkoari ohereskatü diren egünak saintien orhitarretan.
G: Zoin egünez hoien orhitarria egiten dügü?
I: Hen hil egünareki haboroetan.
G: Zergatik beraz, Elizak dioan bezala, hura deitzen die hen sor egüna?
I: Zeren hen sortze egiazkoa baita, Zelian sortzia, eta bethi dohatsü izateko.

G: Elizak zergatik manatü dütü honlako bestak?
I: Jinkoaren ohratzeko bere dohatsietan.
G: Nola?
I: Zeren Jinkoak hurak saintü eta dohatsü egin baitü.
G: Elizak beraz zer gogo dü, dohatsiez orhitzeko manatü dütian bestetan?

I: Her grazia eta gloria eman deritzenez, eskerren Jinkoari ohereskatzia.

G: Zer da dohatsien gloria?
I: Jinkoaren gloria bera, zoin hetara hedatzen baita.
G: Dohatsien besten begiratzetik zer gozo jiten zaikü?
I: Biga handirik.
G: Errazu lehena.
I: Dohatsien orhitarriaren ohoratzian, her jarraikitera piztú gira.
G: Eta bigarrena?
I: Bere ohoitzez ürgazten gütie.
G: Elizak zergatik debozione berhezi bateki andre Dana Mariaren bestak ohoratzen dütü?

I: Zeren honek merexi berhezi bat baitü, eta ihork bestek eztütükian dohañak.
G: Zoin da hetarik handiena?
I: Jinkoaren ama izatia.

G: Horrek zer ditxa derio?

I: Trinitate saintü güziareki algorganatze berhezi bat.

G: Nola Aita bethierekoareki?

I: Semiaz, zoin arteko baitie.

G: Nola Semiareki?

I: Honen ama delakoz.

G: Nola Espiritü Saintiareki?

I: Hargana jin delakoz, haren odol ezinago xahütik Jesùs-Kristen korpitzzaren egiteko.

G: Zer beraz sinhetsi behar dügü Birjinahonez?

I: Jinkoak haur graziaz bete diala, bere Semiaren ama egin dianian.

G: Eta zer orano?

I: Haur adelatü diala, haren egongia merexitü baten izateko.

G: Honen ohoitzez eztütüzia egürükiteko grazia handiak?

I: Bai: Jinkoak haur haitatü dianaz geroz, honzaz graziaren egiliaren guri emaiteko.



ANDRE DANA MARIAREN BESTA SAINTIEZ

LEHEN KAPITÜLIA

Haren konzepzioniaz,
zoin baita Abentüko
zortzigarren egünian

G: Egün zer besta dügü?

I: Andre Dana Mariaren Konzepzione miragarria. const. Sixti 4. cum praeexcelsa. lib. 4. extravag. de reliq. & ven. ss.

G: Zergatik miragarria deitzen düzü?

I: Zeren Jinkoak mirakülüz, Joakim eta Anna haren aita eta ama zahar dohatsiereman eta sor erazi baitzerien.

G: Elizako jakinsiek zer sinheste die andre Dana Mariaren konzepzionen gañen?

I: Hura xahü izan dela grazia berhezi batez, diot thaka eta bekhatü orijinala gabe.

G: Zer arrazu die honen hala erraiteko?

I: Zeren üdüri baitzaie, Jesús Kristen ohoriak ezin üzten ziala behinere bere ama sainta Deebriaren eskü pian izatera.

G: Bena hala izan ezpada, üdüri da Jesús-Krist elizatiala haren salbazale?

I: Orobak haur haren salbazale lizate.

G: Nola?

I: Jente güzien gaitz bardinetik haren begiratüz eta bere graziaz aitzindanik Adamen bekhatiaren khozütik gibeltüz.

G: Elizak jüyatü dia, andre Dana Mariaren konzepziona thaka gabe zela?

I: Ez: aita saintiak erran dü etzela orano gaiza hori xuritü; eta etzela heresia, ez bekhatü mortal, horren ez sinhestia. Const. Sixti 4. gravenimis. ibid. Conc. Trid. ss. 5. Decret. de pec orgi.

G: Hortan zeri sugin behar da?

I: Aita saintiaren zühörtze handiari, eta honen orano gogoa emaitia-ri, zer sinhetsi izan den hortzaz igaran zekürü güzietan.

G: Zer da beraz seguriuk gaiza hontan?

I: Elizak üzten diala bat bedera sinhestera, haren konzepziona thaka gabe izan dela, eta hon dela horren sinhestia.

G: Besta hontan zertzaz gehienki orhitzeko dügü?

I: Gure izate itxusgarriaz, eta Jinkoak mündiari egin derion grazia handiaz, emaitez, Maria, zointarik ükhen baitü bere salbazalia.



BIGARREN KAPITÜLIA

Andre Dana Mariaren sor egünaren.

Bürüilaren 8

- G:** Egün zoin besta begiratzen dügü?
- I:** Andre Dana Mariaren sor egüna.
- G:** Beste jentiak bezala, haur sorthü deia bekhatiareki?
- I:** Ezta hori sinhesteko, ez eta Jinkoak Jondane Johane Batistari beno grazia gütiago egin deriola.
- G:** Jinkoak Jondane Johane Batistari zoin grazia egin zerion?
- I:** Santifikatü izatia, bere amaren sabelian zela; eta hori egin zian andre Dana Mariaren hitzak.
- G:** Hortik zer idokiten düyü?
- I:** Hark berak eztiala dohain gütiago bat ükhen, bera lehenago handiagorik.
- G:** Beraz andre Dana Mariaren saintütarzuna nolako zen?
- I:** Saintütarzün bethe bat; bekhatü güziez baita benialez xahü zenaz geroz: halaz Elizak sinhesten dian bezala. Conc. Trid. ss. 6. Cap. 23.
- G:** Zer da gorenik Birjina honen berthüteatan?
- I:** Honek haurzarotik Jinkoari hitz eman zeriona, bere birjinitatia begiratüren ziala.
- G:** Zertzaz lagünzen zian birjinitate saintia?
- I:** Othoitzetan, eta bereber bizitziaz.
- G:** Eta gañelan zerari zen?
- I:** Honek güziak egiten zütian Jesús-Kristen ama gei zenak, eta haur bere sabeliala hartü eta egari behar zianak, merexi zian bezala.
- G:** Hortarik zer ikhasteko dügü?
- I:** Jinkoaren honkiak onsa geñhatü behar dütgüla, eta biziki adelatü Eukaristian Jesús-Kristen hartzera.
- G:** Nork güziz behar dü jarraiki Birjina saintari?
- I:** Neskatilek eta emaztek, hura emakümiaren ohoria delakoz.
- G:** Zertan hura üdürü izan behar die?
- I:** Hura bezala ixil, eme, xahü eta behera izatez.

HEREN KAPITÜLIA

Andre Dana Mariaren Anonziazioniaren.

Martxoaren 25.

**Aitzineko igantian erran behar da,
baita bestan ere**

- G:** Zoin besta dügü daigün egün?
- I:** Gabriel aingürü dohatsiak Maria Birjina saintari berria eman zero-narena, haur Jinkoaren ama zatiala.
- G:** Zergatik haur dülüratü zen aingüriaren berri honen enzütian?
- I:** Zeren honek ezagützen baitzian, etziala merexi hain ohore handi bat.
- G:** Zergatik orano?
- I:** Birjina egiazko bat bethi erreus da, zerbait gaiza goraren ikhustian eta enzütian.
- G:** Birjina saintak zoin berthüte ager erazi zütian misterio hontan?
- I:** Xahütarzün miragarri bat, gogatü nahi gabez Jesús-Kristen ama izatiaren ohoriaren ükheitera, beldürrez hala hert lakion bere xahütarzüna.
- G:** Orano zoin berthüte?
- I:** Fede eta sinheste oso bat erakutsi, aingüriari zioionian: zure hitza egin bedi nitan.
- G:** Zer heltü zen oren hartzan?
- I:** Jinkoaren semia haren sabelian aragistatzan zen.
- G:** Zer da aragistatzia?
- I:** Hartzia gizonaren korpitza bezalako baten,uria bezalako ere arima beteki: eta hitz batez gizonzia.
- G:** Beraz Jinkoak nahi zian, hura goga ladin gure salbazaliaren gizonziari.
- I:** Bai.
- G:** Zergatik?
- I:** Amorekatik Mariaren sinhestiak, Ebaren sinhetsi gabiaz Jinkoari züzen egin lizon.
- G:** Ebaren, eta Mariaren artian zer üdürü edireiten düyü?
- I:** Onsa handi bat ageri düyü misterio hontan.
- G:** Nola?



I: Aingürü gaisto batek therriatü dü Eba, eta aingürü dohatsü batek
ohoratü dü Maria.

G: Zer da gehiago?

I: Deebriak therriatürik Eba, honek Jinkoaren debetia hausten dü;
eta Mariak hura begiratü ainguria sinhetsirik.

G: Eta zer orano?

I: Ebak Adami ezkenzen derio herioaren frütia, eta Mariak biziaren
frütia emaiten derikü.

G: Azkenekoz zer?

I: Ebak hasten dü gure galzia; eta Maria da gure salbamentziaren
hatsarria.

G: Hortik zer idoki daite?

I: Hala nola Jesús-Krist baita Adam berria; berhalan Maria dela Eba
berria.

G: Eba hitz honek zer erran nahi dü?

I: Bizi ororen ama.

G: Zoin da beraz Eba egiazko, eta bizi güzian ama egiazko?

I: Birjina dohatsia.

G: Hanitz ügürükiteko dügia honen othoitzetarik?

I: Bai düda gabe.

G: Egün harganik zer ikhasteko dügü?

I: Jesús-Kristen errezebitzeko, nola adelatü behar dügün.

G: Zer da hori?

I: Xahütarzüna, eta hümilitatia: milatan lehen hil, eziz gogo theyürük
ükhen, Jesús-Krist hartü behar dügünian, ez eta ondoan.

LAURGARREN KAPITÜLIA

Andre Dana Mariaren Bisitaziaren.

Úztailaren 2.

Aitzineko igantian erraiteko

G: Zoin misterioren orhitzarra da daigün egün?

I: Birjina saintaren, Elisabet bere kosia saintaren maiteki eta hümili-
tateriki bere etxen ikhusten izanarena.

G: Hoiek biak nola ziren?

I: Elisabet izorra zen Jondane Batistaz; eta Maria Jesús-Kristez.

G: Ordian zer heltü zen?

I: Maria minzatü bezain sarri, santa Elisabetek sabelian zadükän hau-
rra, boztarioz jauzkatü zen, eta Marian zen Jesüsa adoratü.

G: Santa Elisabetek Mariari zer erran zerion?

I: Birjina saintari oihuz erran zerion: emazte ororen artian onsa
dohatsü zira, eta benedikatü düzü zure sabeleko frütia.

G: Eta Mariak; zoñi hain ohore handiak egiten baitzeritzen?

I: Honek erran zian Magnificat kantore sakratia.

G: Hitz güitian zer dadükä kantore miragarri honek?

I: Mariak Jinkoa hontan gloriaz bethatzen dü, eta bere büria ezdeu-
sen edükiten.

G: Zergatik egün oroz kantore haur erraiten dügü elizan?

I: Espiritü Saintiak egün bihotzetara isuri zian alageranzia saintiaren
orhotzarretan.

G: Nola adelatürik erran behar da kantore saintü haur?

I: Boztario handi bateki Jinkoaren handigoez, eta hümilitate barna
bateki.



BOSTGARREN KAPITÜLIA

Khandaillüko.

Baranthailaren 2.

**Aitzineko igantian erran behar da,
baita bestan**

G: Zoin misterio ohoratzen dügü daigün egün?

I: Andre Dana Mariaren Pürifikazionia, eta Jesús-Kristen ohereskatzia elizan.

G: Lege zaharrian zer zen pürifikazionaren zeremonia?

I: Legiak manatü zian, emazte güziak elizala joan litian xahatzera, erdzeitik berrogei egiñen ondoan, seme egin bazien; eta hirur hogeien ondoan, alhaba bazen.

G: Xahatze hark zer zeñharatzen zian?

I: Adamen bekhatürük landan, gure sortzia theyü eta eta maradikatü zela.

G: Bazena deusere theyürük Jinkoaren semiaren sortzian eta Maria-ren erdzian?

I: Jinkoari eztatsala.

G: Zergatik beraz Pürifikazionaren legetik igaran da?

I: Hümilitatez, eta beste emaztiak üdüri izateko, hala egin behar zian.

G: Zergatik hark Jesús-Krist ohereskatü zian elizan?

I: Zeren legiak nahi baitzian, lehen sorthü haurrak han ohereska litian. Exodi 13.

G: Zergatik?

I: Orhitzeko Egiptan, Jinkoak bere popülia zilhetü zianian, ejipzienen haur lehen sorthiak oro hil erazi zütiala; eta israeliter bere lehen sortiak bizirik begiratü.

G: Zer manatü zian gero?

I: Israeliten amek bere lehen haurrak ohereska litzoien, zoin berhala arrerosten baitzütien haren eskiatarik, diharü emaiten zerienaz.

G: Pürifikazionian zer sakrifizio egiten zien?

I: Aberatsek axuri bat ohereskatzen zien; hon güti zienek bi urxapal, edo urzume. Levit. 12.

G: Zergatik Ebanjelioa ezta minzo urxapal eta urxümez baizik?

I: Zeren Josefek eta Mariak, hon gabe zirelakoz, indar güti zienek bezala, bere oheresiak egiten baitzütien.

G: Hortik zer ikhasteko dügü?

I: Gabeziaren maithatzia, zoñek Jesús-Kristen etxeakoak, eta hura bera üdüri eraziten baikütü.

G: Zergatik Jesús-Kristek elizan ohereskatü izan behar zian?

I: Jente güzien berme bezala, hura han eman behar izan da.

G: Ihork ezagütü ziana hura ohereskü hortan?

I: Bai, Jinkoak haren ezagützeko, piztü zütian Simeon zahar dohatsia, eta santa Anna alhargün perestü, profetesa, eta barur egile handia.

G: Haur egün hartan zer ari zen?

I: Jesús-Krist elizan ohereskatzen ziela haur minzo zen Israeleko popüliaren arrerostia ügürükien zian ororeki.

G: Eta simeon gizon zahar saintiak zer egin zian?

I: Jesús Jinkoaren haurra bere besoen artiala hartü zian, eta erran Nunc dimmittis kantoria.

G: Zer dio kantore saintü honek?

I: Zahar dohatsü hark etziala gehiago ansia hizez, ikuusiz geroz mündiaren argia izan behar ziana.

G: Gero zer egin zian?

I: Aitzindanik erran zütian, Jesús-Kristek egariren zütian gaitzak, eta haren ama saintiak zütükian minak.

G: Zergatik khanderak pizten dira besta hontan?

I: Alageranzia zeñharetan, eta Simeonen erranaz orhitzeko, bai ezi Jesús argia zatiala, paganoen argitzeko, eta Israelko popüliaren ohoretako.

G: Besta hontan zer ikhasteko da Maria ganik?

I: Jinkoaren legiari onsa jarraikitia, eta honi itzurtzeko ez ibil arrazu bilha.

G: Zer ikhasteko da Jesús-Krist Jauna ganik?

I: Gihauren hareki aita bethierekoari ohereskatza, güziz Mezako sakrifizio saintian.

G: Zergatik elizan egün oroz erraiten da Nunc dimmittis kantoria?

I: Simeon gizon perestiaz orhitzeko, eta harganikikhasteko, eztügi-la sobera behar nahi lurreko bizia.

G: Zer beraz nahitzeko dügü?

I: Jesús-Kristen ükheitia.



SEIGARREN KAPITÜLIA

Zeliala eroan izanaz.

Agorrilaren 15.

Aitzineko igantian erran behar da

- G:** Zoin besta dükegü daigün egün?
I: Birjina saintaren hilzia, eta zelialatzia.
G: Eliza saintak zer kantatzen dü hartzaz?
I: Egün hortan aingüriak beno gorago hura altxatü izan zela, eta Paradüsia oro boztarioz bethe ziala.
G: Hortzaz jakinsü saintiek zer sinheste die?
I: Haur korpitz eta arimatana gloria igan dela.
G: Zer orano?
I: Hanitz elizatako libürü zaharretan irakurten dügü, egün hortan haur hil delarik, herioak ezin goithü ziala.
G: Nola boroga daite sinheste hori?
I: Zeren Jesùs-Kristek arrapitzü denian, hanitz saintü arrapitzü baitü, zoin ohorez bereki Zelialat eroan baitütü; eta sinhesteko baita, eztiala gütiago egin bere ama saintarentako.
G: Bena zer sinhesteko da güziz Birjina saintaz?
I: Bere semiaren hitzaren arau, haur hain goratü izan dela, nola bere buria beheratü baitzian berthütez.
G: Zergatik da besta hortako prozesionia?
I: Franzia erregen debozione bat da, luis hamirugarrenak hasia, zointan berak, eta bere erresüma Birjina saintaren gomendü berhezian ezartzen baitütie.
G: Horren othoitzetarik hanitz egürükiteko deia?
I: Ihor honez düda daitia.
G: Honek zer galthatzen dü gehienki bere peretxa zaletarik?
I: Haren berthüter jarraiki ditian, güziz haren xahütarzünari eta hümilitatiari.

ZAZPIGARREN KAPITÜLIA

Andre Dana Mariaren presentatziaz.

Azaroaren 21

- G:** Eliza saintak zer orhit eraziten derikü Birjina saintaren Presentazionian?
I: Ekhia jaikiten den herritik aspaldian jin zaikün sinheste hona.
G: Horrek zer dadüka?
I: Maria dohatsia haurzaroan Jinkoari ohereskatü izan zaiola, eta eskentü bere Eliza saintan.
G: Züzeneki hori sinhesteko deia?
I: Birjina sainta ohoratzen dütien gaizak oro ihiki sinhetsi behar dira fediari ogen egiten ezpaderie.
G: Bena zer da segürik?
I: Egiaz Birjina sainta haurzotik berheziki Jinkoari ohereskatü izan zaiola, eta bethi hazi haren hegälpetan.
G: Zertan üdüri zen haur Eliza?
I: Zeren haur baiten Eliza bizi bat, non Jinkoaren semiak egon behar baitzian.
G: Zer ikhasteko dügü besta hontarik?
I: Haurzotik gure bürien bethi Jinkoari eskenzia bere Eliza saintan.
G: Nola merexitüren dügü ohore hori?
I: Othoitziaz, xahütarzünaz, eta zühürtziaz.



LAURGARREN PARTIA

SAINTIEN BESTEN

LEHEN KAPITÜLIA

**Jondane Johane Batistaren sortziaz.
Aitzineko igantian erran behar da,
baita bestan**

G: Zer ohoratzen dügü daigün egün?

I: Jondane Johane Batistaren sortzia.

G: Nor da Jondane Johane Batista?

I: Jesús-Kristen aitzindaria, profeta eta gizon orotako handiena, Jin-koaren semiaren errania.

G: Jesús-Kristen aitzindari hitz honek zer dio?

I: Popüliaren adelazalia, haren onsa hartzeko, zoin erhiaz ere erakutsi baitü ziola hori düziela.

G: Erran horren merexia zer da?

I: Erakustia, Jesús-Krist heltü zela; aldiz patriarka eta profetek ezpaitzen hura ikhusi hürrün danik baizik.

G: Honen batheyiak zer zeñharatzen zian?

I: Jesús-Kristek eman behar zian batheyü hobia zeñharatzen zian; eta hari bidiak adelatzen zeritzon, penitenciala jenten aholkatziaz.

G: Honen sortziak zer dü bereberik?

I: Grazian sorthü baita.

G: Nola?

I: Zeren santifikatü izan baitzen, bere ama santa Elisabeten sabelian zela, Jesús-Kristen bere aitzinian ükheitiaz, eta Birjina saintaren minzoala.

G: Honen sortzian zoin mirakülü handiena agertü zen?

I: Zakaria honen aita dohatsiak, zoñek minzoa galdu baitzian, berria hura jin zaion, erraiteko Benedictus kantore saintiaren.

G: Hitz güitian zer da kantore honen gozoa?

I: Aitzindari saintiaren sortziari, noiz hasten baita agertzen Jesús-Kristen argia, egüna sortzen dela ikhustian bezala, alageratü behar dügüla.

G: Zergatik?

I: Zeren ekhi egiazko sortzen dena, zoin baita Jesús-Krist, bere aitzindarian bere argien ager eraziten hasten baita.

G: Jondane Johane Batista nola bizi izan da?

I: Miragarri saintuki; baita penitencia borthitz izigarri bateki.



- G:** Zertan ageri da honen saintütarzuna?
- I:** Eremiala ioan zen egoitera, hirur urthe baizik etziala; eta honek eman dū ermita saintien bizitzaren muldia.
- G:** Nolako zen honen penitencia?
- I:** Etzian iagoitik edan hur baizik; larhoti iatez bizi zen, eta bere korpitza larrü gogor eta bilhazü garratz batez estalirik zian.
- G:** Elizak zergtik honen sor egünian hanbat alageranzia erkusten dū?
- I:** Eztū hortan egiten, aingüriak heltüren zena, aitzindanik erran zianaren bethi irain erazitia baizik.
- G:** Nola?
- I:** Gabriel aingüriak honen aita Zakaria saintian aitzindanik erran zerion, güziak alageratüren zirela honen sortziari.
- G:** Alageranziazko süyak hartako pizten dütieia?
- I:** Bai.
- G:** Elizak sü horik pizten dütia?
- I:** Bai, kristi herri haboroetan, güziz hontan jaun erretorek besta honen bezpera ülhüntzian, prozesioniareki sü ohorezko hori pizten die, elizan kantatzen hasirik ut queant laxis. Haur ürhentü denian Benedictus Antienna. Gero Benedictus osoki süyaren aitzinian, gero Dominus vobiscum. Oremus. Deus qui praesentem diem, c. Gero Dominus vobiscum. Benedicamus Domino Deo G. Gero elizalakoan Te Deum, haur ürhentü denian, Elizaren begiratzeko othoitzia bere beriseteki.
- G:** Zoin arrazu gatik sü haur egiten da Elizako debozioniareki?
- I:** Jondane Johaneren sü holakoetan beste ordüz zonbait lekhütan egiten zütien süperstitionen gal eraziteko.
- G:** Nolako ziren süperstizione hurak?
- I:** Danzatzia sü horren baranoan; jokhatzia kantore itxusien erraitia, sü gaña belharren egoitzia; egüerdi beno lehen, edo barurik hen bilzia; bere gañen hen ekhartia, urte orotan edükitia; hontako ilhintien edo inkatzen begiratzia.
- G:** Zer ikhasi behar dugu Jondane Johane Batista ganik?
- I:** Mündiaren edükitia ezdeusen, et penitenciaren saintütarzunareki algarganatzia.

BIGARREN KAPITÜLIA

Apostolü, eta Ebanjelista saintiez.

Zoin urthekal hiruretan
erran behar baita
apostolien bestetan

G: Zoin deitzen dützie apostoliak?

I: Jesús-Kristek lehen deithü dütianak, bere Elizako artzain izateko.

G: Zertako deithü izan dira?

I: Jesús-Krist mirakülen jakile, eta legiaren begiari izateko.

G: Nontik güziz ageri zaikü, hen jakilegoa sinhetsi behar dögüla?

I: Haur bere odol isuriez segürtatü derikielakoz.

G: Jinkoaren hitzak nola zeñharatzen derikü apostolien izate ohoratia?

I: Haur zeñharatü da Apokalipsaren hamabi harri hoietan, zointan gañen hiri sainta ohatürik baita, diot Eliza, eta zointan gañen izkiribatürik baitziren hamabi apostolien izenak.

G: Zergatik Elizako habiak bezala eduki dira?

I: Zeren Eliza baitago apostolien erranetan gañen.

G: Apostolien erranek nola bethi iraiten die?

I: Batetik bestiala hel eraziten dütiela jaun apezküpiek, zoin baitira apostolien ondokoak.

G: Apostolü haboroez nolaz hain berri güti dakigü?

I: Hen frutiak ager eraziten dütie hen lanak.

G: Zoin dira hen frutiak?

I: Hen predikiek mündü güzia, herri ohiletrano Ebanjelioaz, eta kristi Elizaz bethe die.

G: Eta zoin dira ebanjelistak?

I: Jesús-Kristen bizitze eta predikien laur izkiribazaliak.

G: Zoin da lehena?

I: Jondane Matheu apostolia, zoñek gure salbazalia hil zenetik sarri izkiribatü baitzian Jüdeako herrian.

G: Eta bigarrena?

I: Mark saintia Jondane Petiriren seme espirituala eta diszipülia, zoñek Errümeko hirian izkiribatü baitzian, Jondane Petirik han Eliza ohatü zianian, Jesús-Krist hil zenetik hamar urtheren üngürünian.

G: Herena zoin da?



I: Lük medezi saintia, Jondane Pauleren lagüna eta diszipulia; zoñek bere Ebanjelioa izkiribatü baitzian, Jesús-Krist hil zenetik hogei eta hirur urtheren üngürünian; eta zoñek lehenik haren haurzaroko misterioak ikhasi baiterizkü.

G: Eta laurgarrena?

I: Jondane Johane Jesús Jaunaz maithatia, zoin lothü baitzen haren bolharrian, apostolier bere korpitz saintia eman zerien aiharian; bethi birjina izana, apostolü, ebanjelista, profeta zoñek bere Ebanjelioa hasten baitü Jinkoaren semaiak bethidanik dian sortzetik.

G: Honek bere Ebanjelioa noiz izkiribatü dü?

I: Jesús-Krist hil zenetik hirur hogei eta bost urtheren üngürünian, heretiko zonbaiten goitzeko, zoñek haren jinkotarzuna ükhatten baitzen.

G: Lük saintiak eztia orano izkiribatü betse libürü bat?

I: Apostoliez eginak izkiribatü dütü, non baitira Elizaren hatsarrian igaranak, eta Iondane Paulez eginak.

G: Ebanjelisten izkiribietan, zeri hobeki gogoa emaiteko dügü?

I: Hen emetarzün eta humiliatiari, zoñek hurak ohora eraziten baiterizkie, eta bere erranak sinhets eraziten, espiritua gogor eztiner.

G: Eta zer orano?

I: Hen bardin egiaren erraitiari, algarren berririk etzienian ere.

G: Zertan güziz apostoliak ohoratü behar dütügi?

I: Hümilitatiareki hen izkiribien irakurtez, eta predikier behatzez, zoñek hen erranak argitzen baiterizkie.

G: Zertan orano her iarraikiteko dügü?

I: Iesús-Kristen amorekatik, gaitz egartian laket izatez.

HIRURGARREN KAPITÜLIA

Jondane Petiri eta Paule, apostolien bestako

G: Zoin besta egün ohoratzen dügü?

I: Iondane Petiri eta Paule apostolien bi prinzena.

G: Hoien besta zergatik ber egünian begiratzen da?

I: Zeren hoiek egün honeki egiaz martir algarreki hil erazi baitzüten; eta hek bere odolaz Errümeko Eliza gorritürik haur ohatu; beste eliza ororen büria izan behar zialakoz.

G: Zergatik hark besten büria izan behar zian?

I: Zeren Jinkoak haitatü baitzian Errümeko hiria münduko handiena, han Iondane Petiriren jargiaren lanhatzeko, zoin Jesús-Kristek ororen, gehien ezari baitzian.

G: Zertan dago Errümeko Elizaren gehiengoa?

I: Jinkoak haur ezari dü, Eliza güzien ama, eta egiaren begirari handiena izateko.

G: Zertan orano?

I: Beste eliza orok honeki bat bethi izan behar die.

G: Kristi güziek, Aita Saintiari zer zor derie?

I: Obedientzia egiazko bat, haur Iondane Petiriren ondokoa, eta Eliza güziaren haxia egarten dian büria delakoz.

G: Zer zen Iondane Paule?

I: Farisien iakinsü bat, hatsarrian Ebanjelioaren etsai gaitz bat, bena gero honen predikari goriena.

G: Zergatik Iesús-Kristek haur mirakülü hain handi batez kristi egin nahi ükhen zian?

I: Hontan ager eraziteko bere graziaren, eta amorekatik orok honen erranak hobeki sinhets litzen.

G: Nork haur egin dü apostolü?

I: Iesús-Krist arrapiztiak.

G: Zertako güziz Jinkoak deitü dü?

I: Ebanjelioaren paganoer erakasteko.

G: Zer izkiribatü dü?

I: Hamalaur letera miragarri.

G: Zer martirioz hil erazi zien?

I: Ebaki zerien büria.

G: Eta Iondane Petiri?



I: Haur kürütxiaren itzatü zien; bena bere hil eraziliak othoitü zütian, hoñez, gora ezar lezen; etzialakoz Iesüs-Krist bezala hil merexi.
G: Iondane Petirk zer izkiribatü dü?
I: Bi letera eder ezinago.
G: Zer ikhasteko dügü apostolü saintü hoiatarik?
I: Iesüs-Kristen maithatzia; hil harentako behar bada; eta honen ohoriaren bethi aitzinatzia, iagoitik akhitü gabe.

LAURGARREN KAPITÜLIA

Jondane Esteberen bestako.

Abentüko 26

G: Egün zoin besta ohoratzen dügü?
I: Iondane Estebe, kristien lehen martir izan denarena.
G: Zer da martirioaren grazia?
I: Bere odolaz segürtatzia Ebanjelioaren egiaren.
G: Eta zer orano?
I: Jesús-Kristi erakustia haren hitzaren arau hura ahal oroz onsa maite dügüla, baita haren ohoretan gure bizia gal. Ioan. 15. v. 13.
G: Jondane Esteberen ohore berhezia zer da?
I: Jesüsen amorekatik hilzen erakastia hanbat martir saintüri.
G: Hoiek hanitz direia?
I: Bai: eztitake aski onsa izenta: tiran gaistoek hirur ehun urthez kristi perestü orotan hil erazi dütienak: orano minzatü gabe, geroz ardüra heretikoek, eta fede gabek hil erazi dütinez.
G: Martir hoien izigarri den saldoan, zeri güziz gogo hartzeko dügü?
I: Haur gazte eta birjinak erran eztaitian beno gehiago ikhusi izan direla, fediaren egarteko heriotze borthitzeneratik igaraiten.
G: Martir hitz honek zer erran nahi dü?
I: Dio iakile.
G: Elizaren gloria zer da beraz?
I: Hanbat iakileren odolak azkartü dian honen fedia.
G: Zer ikhasi behar dügü martir saintietarik?
I: Gure egite honez eta pazenziaz gure fediaren borogatzia.
G: Jondane Estebe ganik zer güziz ikhasteko dügü?
I: Gure etsaintako Jinkoari othoitzia.
G: Zer gozo ügürükiteko dügü gure etsaien eginen dütügen othoitzetarik?
I: Hoien hontzia: hala nola Iondane Esteberen othoitziak Iondane Paule bere hil eraziliaren kristi hon egitia ardietsi baitzian, harri khaldiz hura eraiten zienen arropak begiratzen zütian ber orenian. Act. 7.



BOSTGARREN KAPITÜLIA

Domi Sainthore bestako,
Azaroaren aitzineko igantian erraiteko

- G: Elizak zergatik manatü dütü saintien bestak?
 I: Jinkoaren ohoratzeko bere zerbütxarietan.
 G: Nola?
 I: Zeren Jinkoak hoiak saintü, baita dohatsü egin baitü.
 G: Elizak beraz zertako bestak ezari dütü dohatsien orhitzarretan?
 I: Jinkoari berari ohore emaiteko, zoin hetara hedaten baita.
 G: Dohatsien besten begiratzetik zer hontarzün jiten zaikü?
 I: Bi gozo handi.
 G: Errazü lehena.
 I: Saintiez orhitzian, pizten gira hen egiter jarraikitera.
 G: Eta bigarrena?
 I: Hen ohoitzez ürgazten baikütie.
 G: Elizak zergatik manatü dütü Domi Sainthore, zoin ohoratüren baitügi daigün egün?
 I: Arima dohatsü güzientako Jinkoari eskerren emaiteko.
 G: Zergatik orano?
 I: Gehiago berthütila gure hel eraziteko, hanbat egite saintü batetan ezagüt eraziten derizküla; eta azkenekoz gure artekarien emendatzeko.
 G: Besta haur nolaz urtheuko besta handienetarik bat da?
 I: Zeren haur baita, Jinkoak berak dohatsü güzien Zelian bethi beginatzan dian bestaren üdüria.

SEIGARREN KAPITÜLIA

Aitzinekoaren landan ber igantian, edo
Domi Sainthorez erraiteko hilen egünaz.
Hilez, eta hilen mezez

- G: Elizak zergatik manatü dütü egün bereber bat, hilen arima hon ororen ohoitzeko?
 I: Orogen algarreki ürgazteko.
 G: Noren behar dügü güziz ohoitü?
 I: Nork bere askazi, adiskide, eta honkigilen.
 G: Noren orano?
 I: Ohoitz bat ere, edo bereber güti eginen zaienean, Elizak ororen ama hon bezala, hartzen dütü arranküra, hen ürgazteko.
 G: Hilen Meza zergatik ezta orotan bestiak üdüri?
 I: Zeren hoitan hertzen baitira alageranzia zeñharatzen dütien gaiak oro.
 G: Zergatik?
 I: Zeren Eliza orhitzen baita, bekhatiak herioa mündiala sar erazi diala.
 G: Nola?
 I: Zeren lehen gizona egin baitzen bizitzeko, eta bekhatiala eroriz, hilzera kondemnatü baita.
 G: Eliza beraz ezta belbez estalzen, ez eta ülhünki ari kantatzen, lürreko honen galzia gatik?
 I: Ez: hori da bekhatiaz dolü hartzeko.
 G: Kristiek nola konsolatu behar die hilzian?
 I: Ügürükiz, egün batez arrapitzüren direla.
 G: Elizak nola erakusten dütü ügürükite hori hil ohoretan?
 I: Hanbat khanteraren pitziaz.
 G: Hoiek orok zer erran nahi die?
 I: Biziaren, eta alageranziaren zeñhariak dira.
 G: Beraz alageranzia zerbait nahasten da hil ohoretan, eta zerbütxü saintietan?
 I: Bai arrapitziaaren ügürükitzaz.
 G: Ohoitzek ürgazten dütieia hilak?
 I: Bai, eta gehienki althareko sakrifizioak.
 G: Zergatik?
 I: Zeren han Jesús-Krist ohereskatzen baita, Jinkoareki gure bakia-ren egilia.



ZAZPIGARREN KAPITÜLIA

**Urtheko laur tenporez,
eta bijiliez**

- G:** Urtheko laur tenporen barurak zergatik manatü dira?
I: Jinkoari ohereskatzeako urtheko saso ororen.
G: Zergatik hirur barur saso kal?
I: Barur bat da urtheko hilebete bat bederaren.
G: Ordenü sakratiak tempora hoietaen emaiten dira?
I: Eliza zerbüttxatzen da orok ohorez barurtzen dien ordü honzaz, ardiesteko graziaren altherer eman dakitzan, hoiiek mereksi dütien zerbüttxari honak.
G: Kristiek orano erran behar dütieia othoitze bereberak, ordenü saintiak onsa har ditian?
I: Bai: haien egiten direnaz geroz, Jinkoa othoitü behar die, hurak benedika ditzan.
G: Zergatik barurtzen dütüğü besta handien bezperak?
I: Zeren bizitze hontan penitencia algarganatü behar baitüğü boztarioareki.
G: Daigün bizitza nolako date?
I: Alageranzia oso bat, eta besta bethiereko bat.

ZORTZIGARREN KAPITÜLIA

Elizaren sagarazioniaz

- G:** Elizaz zergatik hain ohoratüki sagaratzen dira?
I: Guri peretxü handi baten emaiteko lekhü saintientako.
G: Zergatik orano?
I: Zeren Eliza harriz eta zurez eginak, egiazko Elizaren, diot dohatsien algarreki egoitiaren üdüri elibat baitira.
G: Nola?
I: Zeren Eliza baita egiazko eretza, non Jinkoa baitago, eta lekhü haur kristiez, harri biziez bezala eginik baita.
G: Urthe kal zergatik berritzen da elizaren sagarazionaren orhitzaria?
I: Kristien bihotzeten lekhü saintien eta hetan egün oroz egiten diren misterioen peretxiaren berritzeko.
G: Zergatik orano?
I: Amorekatik kristi bat bederak berri dezan egün saintiaren orhitzia, zointan Jinkoari eman izan baitzaio.
G: Zoin egunez Jinkoari eman izan gitzaitzo?
I: Batheyükoan, zointan Aitaren Semiaren, eta Espiritü Saintiaren egongia biziak gerthatü baikira.
G: Egün hareki zer egin behar düğü?
I: Batheyüko hitzemanak berritü arzara zin egin Jinkoatan sinheste oso bat dükegülä; mündüko plazer itzal baizik eztirener ihes eginen düğü-la, baita espiritu gaistoaren egiter, eta zekürü nahasi honi.



BEDERATZÜGARREN KAPITÜLIA

**Patron saintiez,
eta gure aingürü begirariaz**

G: Eliza bat bederak zergatik dü patron bat?

I: Kristier berthütiaren mulde baten emaiteko zoñek biziki pizten baitutu hari jarraikitera.

G: Orotan gainti zeri sognin eta jarraiki behar dügü gure patron sain-tian?

I: Halakoan. Heben katexima erran eraziten zianak nori bere patron saintiaren berthüte berhezi zonbait zeñharatüren deritze, zoin haurrer onsa ikhas erazirik, goza eraziren baiteritzte.

G: Eta egia deia Jinkoak nori bere aingürü begirari eman deriküla?

I: Bai: Eskritüra saintiak erakasten derikü aimgüriak igorri zaizküla gure salbatzen ürgazteria, eta badirela ez solamens erresümen, eta herrien, bena bai ere jente bat bederaren begiran ezari direnak.

G: Zer gozo idokiteko dügü egia hontarik?

I: Jinkoaren hontarzünaren ezagütze handi baten ükheitia.

G: Eta zer orano?

I: Kristi güziak onsa ohoratu behar dütgüla, haur txipietrano, zoñek aingüriek bethi Jinkoa ikhusten baitie. Mat. 18.

G: Zer gehiago?

Aingürü saintiaren peretxü handi bat ükhen, zoin gure begiran baitaukü aldirian, eta haur ez erreus bekhatü batez ere.

G: Eta azkenekoz?

I: Erein ardüra othoitz saintiak Jinkoaren aitzinian, eta gomenda gure aingürü honer, hurak plazer dütienen eroan haren althare bethierekoala, inxensü ürrin honetakoa bezala. Apoc. 8.

ÜRHENZIA

Uste gaberik lerratü balin bazaikü lan hontan orotan hitz bakhoitz bat egiai ogen egin lerionik, hura maradikatzen dügü, zeren ezpaitügi libürü haur egin, ahalaz Jinkoaren ohoriaren goratzeko, eta honen hau-rren argitzeko baizik. Hartakoz nahi dügü gogo honez behar [...] Ama Eliza [...] Errümekoak [...].

fides vestra anuntiatur in universo mundo, dio Iondane Paulek hoier izki-ribatü derien leteraren lehen kapitülian. Mauleko hirian Apirillaren biga-rrenian urthe 1696.

BELAPEIRE, Ofizial